

(cuaderno manuscrito)

0. **ERROMES IBILALDIA**

=====

1975'gn. Ekainak 15'tik Irailak 13'ra.

1. **EUSKAL- HERRIAN**

Ekaina.- Euskalerrriak bere gain zigor haundi bat zeraman garai hartan: Bizkai ta Gipuzkoari hiru hilabeteko "estado de excepción" erantsi zien Gobernuak, apirillaren 26'tik hasita.

Herria lasai ezegoen; sufrimen eta kezka haundiak zeuden han eta hemen, eta Eliza ere isilik ezin-ba egon.

Gero zehatzago ikusiko dugunez, Errenteri bailarako apaiz taldeak ere arazo honi nolabait erantzun nahi, eta neke asko ondoren, idazki bat eratu zuen, eta 14-15 (larunbat-igande)-ko meza guztietan irakurri zitzaion kristau herriari.

Berehala, larunbatean bertan, Altza-S.Paulo'ko apaizei deitu zien poliziak edo zelatariak eta orri hori eskatu, ta eman egin zieten. Igandez berriro gobernuko-sekretak joan zitzaizkien elizara, eta elkarrizketa zakar samarra izanik, eskatu zuten orria eman zitzaien.

Igande gabea Altzan apaiz taldea bildu ginen eta elkarrekin afaldu ondoren elkarrizketa biziaskoa izan ere bai, egun hartako gertakizunak gogoratuz: haietako bat Erramun Aranburu'ri gertatua. Larunbat arratsean Torreatzera zijoala ohartu zen bere atzetik bi polizia zijoazkiola. Atzera egin eta ihesi joan, eta nunbait lo eginbearra izan zuen. Igande goizean guregana etorrita gertatua esan zigun. Ezegoen lasai Erramun. Berriro San Pedrora joan zen, ta igandeko Mezak eman ondoren, kanpora joan. Gaua gure etxean igaroko zuen.

2. Ekainak 16, astelena.- **BAIKETA**.-

Goizetik inguruko apaiz batzuk deitu zidaten polizia edo zelatariak haien galdezka zebiltzala esanez.

Bazkalondoren Lasartera joan nintzen, hango emakume talde bati ezkontza sakramentuari buruz buruz bigarren hitzaldia ematera. Han hitzaldia ematen ari nintzela urrutizkinetik Joantxo Aldasoro-k deitu zidan Kerman Aramburu'ri galderak egin zizkiotela esanez eta neregana Lasartera joan nahi zutela hitzegitera. Joan Mari (Galarraga?) eta biak heldu ziren ta nik itxogiteko esan nien. Berriro urrutizkinetik deia: Joantxo zen; etxera bi gizon joan zirela nere galdezka, eta Lasarteruntz joan zirela: prest egoteko.

Bukatu nuen nere hitzaldi eta alkarrizketa, eta lasai, nere ustez. Kanpora irten eta Kerman eta Joan Mari'rekin labur-labur hitzegin nuen.

Kerman'ek:- "Jexux, ez zekiat hanka sartu dudana, bainan komisiorenen galdera egin zidatek eta nik erantzun. Izenak jakin nahi zizkiten, batez ere "Justitia et Pax"en izenak, baina nik ez nekiela: nere komisiokoenak bakarrik nekizkiela.

Horrela, kotxe batean hiru poliz-sekreta agertu ziren.

- ¿Es Ud. D. Jesus Zubillaga?
- Servidor
- Tiene que acompañarnos a la Comisaría.
- ¿Tienen Udes. autorización del Sr. Obispo para detenerme?
- No, pero tenemos órdenes de ntros. superiores.

- Sí, pero yo creo q. necesitan Udes. una autorización expresa del Obispo para llevarme, ¿no?
- Mire Ud.: pregúntele eso al Sr. Comisario: él le dirá si tiene autorización o no.
- Si le he de preguntar al Comisario en la Comisaría, supone q. ya me han llevado Udes. allí. Y eso es lo q. no debe ocurrir. A no ser q. Udes. me obliguen a ir.
- Tómelo Ud. como quiera, pero debe acompañarnos.
- De acuerdo.

Hiru lagun ziren. Atzean nerekin zegonak oso begiratu gogorra zuen, eta burlaz bezela esan zidan:

- ¿Con que todavía Uds. se agarran a lo del Concordato?
- Ah, pues sí. ¿O no sabe Ud. cuál es la ley del Concordato?

Ixiltasun haundian Lasartetik Donostiko Komisaria'ra turismo berebillan eramanez ninduten.

Gobernu etxearen atzekaldetik sartu ginan. Eskuan eznamakien ezer. Izan ere nik neukan zorroa Kermani utzi nahi nion, liburu artean gure itzaldiaren ale bat Setien Jaunarentzat prest neukalako. Kermani eman nion Lasarten:

- Germán, llévame esto a casa.
- Poliziak: No, ya lo puede Ud. mismo llevar.
- Nik: No, como son los libros de la clase q. acabo de dar, es mejor que los lleve él.

Horrela esku hutsetan gelditu nintzen.

KOMISARIA'n

=====

Arratsaldeko seiterdiak edo izango ziren han sartu nindutenean. Berehala, Komisarioarekin hitzegin gabe, lenengo pisura igo ginen, eta han lehenengo aldiko gela hartan bertan galdeketa hasi zuten.

Sekreta batek galderak egin, eta nere erantzunak beste batek idatzi.

Lehenen izen-abizenak, bizilekua, lankera... Gero:

- Tenga Ud. este escrito y mírelo, a ver si lo reconoce.
 - ¿Puedo leerlo?
 - Sí, sí (burlaz); lo puede leer. Léalo, léalo.
Lo conocerá Ud. ¿verdad? ¿Verdad q. lo conoce?
 - Pues sí, lo conozco.
 - ¡Y sabe también quién lo ha sacado a multicopia!
 - No, eso no. No sé quién lo ha sacado.
 - Por favor! No me va a decir q. no sabe quién lo ha sacado, cuando Ud. es el arcipreste de esa zona; eso Ud. lo tiene q. saber. Me podría decir a lo sumo q. no quiere decir quién lo ha sacado, pero no que no lo sabe.
- Orduan ni isilik; konturatu nintzen bide hori ez zela erabilli behar.
- Dígame quién ha preparado este escrito.
 - Entre todos los sacerdotes de la zona de Rentería.
 - Pero Ud. sabe muy bien q. estos escritos no se preparan entre todos, sino un pequeño grupo, o uno solo.
 - Pues sí, lo he preparado yo.
 - ¿Ud. solo, o con un pequeño grupo?

- No, con un grupo grande. Porque lo hemos preparado en reunión general convocada.
- Udes. han tenido reunión el jueves día 12.
- Sí, señor.
- ¿Ud. convocó esa reunión?
- Normalmente las suelo convocar yo, pero esa no lo hice.
- ¿Pues quién lo hizo?
- El Sr. Obispo.
- ¡Ajá! O sea q. la convocó el Sr. Obispo. El Obispo auxiliar ¿no?
- No, no; D. Jacinto.
- ¿D. Jacinto?
- Sí, sí, D. Jacinto. Porque estamos preparando unos trabajos y teníamos interés en que acudiese el mismo D. Jacinto y lo convocase él.

Sekreta hori zutik zebilen batera eta bestera, eta noiz behinka idazkariaren lanari begiratzek zion. Halako batean begiratu eta esan zion:

- No, hombre, no. No es D. Jacinto Setién. Es D. Jacinto Argaya.
- ¿D. Jacinto Argaya? eze ez el obispo? ¡Zi yo creía q. el único obispo de aquí era Zetién!
- Perdona Ud., jefe.
- Bah! no tiene importancia. Borra Setién y escribe Argaya.
- ¿Ya sabe Ud. cómo es el 2º apellido del Sr. Obispo? Galdetu zidan neri.
- Pues, no lo recuerdo bien. Creo que... Goikoetxea; pero no estoy seguro.
- Y a la reunión del día 12 acudió D. Jacinto...
- Pues, no. Me indicó q. estaba cansado y q. no podría acudir él y q. le enviaría en su lugar al Obispo auxiliar. Y acudió él.
- ¡Ajá! O sea q. acudió el Obispo auxiliar. Y allí se reunieron para tratar de este tema.
- No, no! La reunión principalmente se convocó para otra cosa. Con vistas a unos trabajos q. teníamos previstos para más tarde.
- ¿Y qué hicieron en esa reunión, sino estudiar este tema?
- Pues mire Ud.: más de una hora duró una reflexión-diálogo que tuvimos, dirigida por el Obispo auxiliar, y que no tenía nada que ver con este tema. Después tuvimos una Misa concelebrada con homilía. Posteriormente tuvimos otro encuentro para plantear una serie de trabajos pendientes.

- ¿Y cuándo trataron este tema?
- Después q. el Obispo auxiliar se marchó.
- Oiga, no me va a decir Ud. que él no estuvo presente y que no le interesaba el tema. ¡Si sabemos bien todos cómo piensa ese señor! Y teniendo entre manos un asunto tan de su gusto, no me va a decir que él no sabía nada ni estuvo presente.
- Crea Ud. lo que quiera. Pero yo le digo que no estuvo presente, porque nosotros no quisimos implicar a nuestros Obispos en esta acción. El supo que íbamos a tratar el tema; pero por no hacerlo delante de él, incluso tergiversamos en parte el orden del día. Y rápidamente tuvo que marcharse porque le llamaron.

Berehala antzeman nion ez zidala sinisten baina aurrera jarraitu genuen.

- ¿Después trataron el tema?
- Sí, señor.

- ¿Ud. les propuso ese tema o lo propuso algún otro?
- No, el problema venía de más atrás. Porque dedicamos ya toda una reunión del mes de mayo a reflexionar sobre el estado de excepción.
- ¡Ajá! O sea q.ue en mayo lo trataron ya. Y quedaron en que alguien iba a presentar un borrador.
- Sí, a modo de resumen y recogiendo las ideas q. allí se presentaron.
- Y ¿quién presentó ese borrador?
- Pues, yo.
- Y en esa reunión del día 12, salió ya la redacción definitiva ¿no?

- No; sino q. quedamos citados para otra reunión.
- Pero, cómo? Si el 14 lo estaban leyendo ya Udes.!
- Sí, pero nos reunimos el día 13.
- ¡Ajá! El 13? Y a qué hora?
- A las 8,30 de la tarde.
- ¿Hasta cuándo duró la reunión?
- No sé exactamente. Hasta las 11 aproximadamente.
- ¿Dónde se reunieron?
- Donde siempre: en el convento y parroquia de PP. Capuchinos de Rentería.
- ¿En qué calle está eso?
- Ah! pues no lo sé.
- Es, es... la calle Martín Echeverría, ¿no?
- Ah! pues es posible. Sí, así será.
- En esa reunión del día 13, ahí sí, se reunió el grupito de redacción.
- No, no! Se convocó a todos los q. quisieran tomar parte en ella. Porque fue consecuencia de la reunión general del día anterior. Y nos reunimos un grupo grande.
- ¿Cuántos eran?
- Aproximadamente, de 20 a 30.
- Allí llevó ya Ud. el borrador?
- Sí.
- Y allí se ultimó?
- Sí, entre todos se le dio un amplio retoque y quedó terminada la redacción final.
- Y quién la sacó a multicopia? Ud. lo sabe ¿no?
- Pues sí; pero creo q. no debo decirle quién es, porque él ha actuado a mis órdenes: yo soy para él como un superior; y creo que no es necesario que yo diga su nombre. El responsable total soy yo.
- ¿Cuántas copias se sacaron?
- Las justas para cada uno de los sacerdotes de la zona, de 50 a 60.
- Y ¿quién las distribuyó?
- Nadie. Todos sabíamos que para tal hora de la tarde estarían en el convento de los capuchinos las hojas y que de cada parroquia interesada debía acudir alguien a recogerlas.
- Y ¿nadie estuvo cuidando el reparto?
- Nadie, porque todos acudimos a la misma hora, y sabíamos dónde iban a estar colocadas y nos las servimos.
- Ud. leyó la hoja en su parroquia?
- Sí la leí.
- En qué Misas?

Erantzun nion. Eta, ea ez al zuen beste inork gure parrokian irakurri: baietz, parrokoak. Eta bere izena galdetu ziten, eta zer mezetan irakurri zuen.

Orduan beste giroko galderak egin zizkidan. Orria eskuan hartuta:

- No es que yo no esté de acuerdo con algunas cosas que Uds. dicen aquí; yo también estoy de acuerdo; pero hay otras afirmaciones que...
- Mire Ud., del contenido de la homilía no me pregunte Ud. nada, porque no voy a responderle.

Creo que Ud. no es quién para preguntarme sobre el contenido de una homilía.

- O sea que Ud. opina que la policía no es competente para estos asuntos: o sea que sólo la Iglesia?
- Sí, señor: Ud. lo ha dicho. Pienso que sólo la Iglesia puede entender acerca del contenido de la predicación, y yo tengo mis superiores y a ellos me atengo.
- Y Ud. no pensaba que cuando estaba leyendo la homilía, podía haber allí, en la iglesia, personas... extrañas? digamos, policías?
- Ah! pues, sí, sí.
- Y Ud. se daba cuenta de que por esta homilía podían venirle consecuencias perjudiciales para Ud.?
- Sí; claro que me daba cuenta de ello.
- Y a pesar de todo, Ud. lo dijo?
- Ah! pues claro! Qué quería Ud. que hiciese?
- Y ¿por qué razón lo hizo?
- Por razones de conciencia. Yo entendí que eso era un deber; y pienso que había que hacerlo.
- Sí, ¡la conciencia! la conciencia! A veces hay que hacer caso a la conciencia; pero, no siempre. Si ve Ud. que eso le va a traer perjuicios, no va a estar pendiente de su conciencia.
- Ud. lo cree así? Pues yo no; creo que la conciencia es un deber y una exigencia primordial.

Honetan galdeketa bukatu genuen, eta idazkariaren orriak irakurri ondoren, konforme nengoela ta izenpetu nuen. Aspertuta nengoen horrenbeste galderaz, eta lehenbait-lehen bukatuta kanpora irten nahi nuen.

Sekreta bere buru egiten zuenari ematera joan zen. Irakurri ondoren, neregana etorri zen.

Edadeko gizona zen buru hori, eztarri txarrekoa. Han hasi zitzaidan hura:

- Ya ha hecho Ud. la declaración. Ya ha visto cómo le han tratado. ¿Le han maltratado; le han torturado? Pues como a Ud. les tratamos a todos. Y yo no sé de dónde sacan que aquí maltratamos a la gente, les hacemos no sé qué torturas... Diga Ud. también por ahí que le hemos maltratado. ¿Es que le hemos maltratado?
- No; a mí no me han maltratado.
- Espere Ud. que ahora vamos a llevar esto al Sr. Gobernador, para que él disponga.

Bitartean lehengo bi poliziekin gelditu nintzan. Halako batean, galderak egin zizkidanak esan zidan:

- ¿Por qué se ha cargado Ud. toda la responsabilidad?
- Pues mire Ud., porque creo que la tengo; yo soy el responsable de la zona, y creo que tengo que cargar con ello.

Isilik gelditu zen. Hordurako ni jabetu nintzan bailarako erantzupedun izateak bere arriskua baduela; ta arriskua jokatu behar dela ta ondorenak jaso ere bai.

Era horretan, behin baino gehiagotan, lan hori gertatzen ari ginela esan nien nere lagunei: -Poliziak zerbaiten galdera egiten badizue, arziprestea han zela esan; arzipresteak deitutako bilerak zirela.

Oraintxe etorri zan hori aitortzeko garaia.

Halako batean polizi-edadeko hori etorri ta berri txarra eman zidan:

- Lo siento, pero el Sr. Gobernador ha ordenado que queda Ud. detenido. Yo creía que esto sería sencillo trámite normal, y que de aquí iría al Juzgado, pero debe quedarse en la Comisaría.

- ¿Puedo llamar por teléfono a casa? Galdetu nion polizi gazteari. Baietz uste zuela baina beste nagusi horri galdetuko ziola.

Onela, despatxu hartatik, polizi han zegola deika hasi nintzen.

Etxean inor ez zegoen: arratsaldeko 8'15 ziren. Despatxura deitu ta inork erantzuten ez.

Beste pixka bat itxogin genduen ta berriro etxera deitu nuen. Arantxak telefonoa hartu zuen: Kaixo, Jexux! Nun zaude? libre al zera?

- Estoy en la Comisaría. Quedo detenido aquí. Te llamo para que lo sepáis, y por si queréis traerme algo de cenar.

- Zer nai dezu bialtzea?

- Algo caliente, para entonar. Mándame también las zapatillas y quizás alguna manta.

- Poliziak: Aquí ya le darán las mantas)

- Bueno, Arantxa: agur!

Orduan, behe-beheko mailara jeaitsi-arazi zidaten, ta han izen-abizenak berriro hartu, eta nere “pitxiak” utzi arazi zizkidaten (los objetos de valor): ordularia, boligrafoa, dirua, karneta, oinetako lokarriak eta gerrikoa: bi sudurzapi ere banituen, eta bat han utzi beharra izan nuen.

Gauza horiek denak orri batean idatzi zituen ta izenpetu nuen. Orri horiek prestatzen ari ziren bitartean, aurrez aurre preso bat barroteen atzean ikusten nuen. Hitz batzuek isilka egin nituen harekin: mutil gaztea zen, ogei-ta zortzi bat urte eta, Tolosarra, moskortuta edo dirurik gabe harrapatu zutela ta... Oraindik ere mozkor itxura zeukan.

- Y tú, qué ¿has hecho algo?

- Pues mira, yo soy cura, y me meten aquí por un sermón.

- ¿Eres sacerdote? Y a los sacerdotes también los traen aquí?

- Pues ya ves.

- Y ¿por un sermón?

Une horretan zelatariak giltzak hartu zituen. Nik uste nuen mutil horrekin batean edo jarriko nindutela ta pozik egongo nintzen; baina aurrerago eraman ninduten eta gela txiki-itxi batean sartu.

Gela horren neurriak 3 mtro-luze, 2 mtro-zabal eta 3 mtro-betik gora: gutxi gora behera. Aurrez-aurre ormigoizko ohea eta gainean “koltxoneta” bat.

Zelatariak giltzez itxi ninduen, eta hantxe bakardade latzean gelditu nintzen. Zirrikurik ez zegon, dena itxita: ta sapaiean ipurtargi baten argia.

Lehenengo orduak egin nuen deklarazioa ausnartzen erabilli nituen: alde batetik pozik nengoen. Nik ere noizbait leku horietatik igaro behar nuen. Ez zen nahikoa beti besteek sufritzea: nor berari noiz bait garaia badatorkio, tah ara neri ere etorri.

Otoitz pixka bat egin nuen: Jaunari ordu haietan nere bihotza. Abestu ere bai: ez neukan eztarri lehuna baina erdi-isilka “Ama maite, Maria” abestu nuela

gogoan dut.

Aparia eraman zidaten: gogoa baneukan eta gogoz afaldu nuen. Batera ta bestera pausoak ematen nituen: bai pauso ugari gela txiki artan!.

Gela zelatariak iriki zuen:

- Puede coger dos mantas.

Bi manta zikin hartu, komuneko joan-etorria egin ta berriro gelan sartuta.

Oheratu nintzen: ohe gogorra. Manta haiek nazka ematen zidaten. Argia pizturik gau osoan. Lo egin nuen, bai esnatu ere askotan.

Goizean, ez dakit zer garaitan, zelatariak leiotila iriki ta hotsa:

- Pueden doblar las mantas.

Jaiki; mantak tolestu ta oinetakoak jantzi.

Atea irikitakoan mantak kampa atera, komunera joan, aurpegia urakin busti ta sudur zapiarekin lehortu. Ta pasaeran Tolosar mutil horri eskua jasoaz diosala egiten nion. Komunen ondoan zeuden beste gela batzuek, bakartiak: baina haiek ate-zirriku zabalak bazituzten: han zeuden gizon gazteak ere ikusten nituen. Ixiltasun gogorra: haiek jendea ikustea berenik bazezaketen. Ni ta beste bi geuden bakoitza gure gelan erabat itxita. Egun luzeari hasera eman nion. Zer egingo nuen? Irakurtzeko libururik ez neukan, idazteko tresnarik ere ez; norekin hitzegingo nuen? Jainkoarekin eta...nere buruarekin ere bai. Errosarioaren zati bat errezatu nuen. Zerbait gosaldutako ere bai.

Ormak zituen azulejo txikiak zenbatzen hasi nintzan: 67.657, ehuneko aldearekin, zenbatu nituen.

Eta nere pentsaketak:

Bazirudin bizitzatik arrapatu nindutela, ta beste mundu illun betera eraman nindutela.

Orduan konturatu nintzen nere lagunak, nere etxeak, nere herritarrak zenbat maite nituen eta haiei nola nengoen erantsita.

Heriotza ere horrelaxekoa izango da nunbait: bizien eskuetatik kenduko gaitue. Baina orain gertatu zaidana okerragoa izango da noski: izan ere, hil dena Jaunaren eskuetara igaro da: orduan ez dugu mundu honen ordainetan hutsa izango baizik Jainkoaren gurasotza, adiskidetasuna aurkitzea. Oraingo hau, orde, hutsa ta illuna, bakardadea.

Nere etxeak hain gogoan nituen:

“Juanxo(erretorea) ta Arantxak(gu apaizok urtetan zaindu gaituena) orain zer egingo ote dute? Nere familikoei esan beharko diete-ba. Nundik hasi beharko ote dute? Mariari (nere arreba moja) deituko diote noski ta harek Tolosara berria eraman beharko du. Ta nere senideak berri hau nola hartuko ote dute? Ta aita ta amak jakiten badute?

Ni hemen egon beharra txarra izango duk baina Joantxok daukan egitekoa ere ez duk oso ona.”

Berehala ohartu nintzen gure bizitzak oso gutxi balio duela: iruditzen zaigu dena gerala ta guztia dezakegula, eta nahi-ta-ezkoak gerala. Baina hara nun gu izkutatuta ere munduak aurrera egin behar duen.

Baita egingo ere. “A rey muerto, rey puesto” esan oi da. Ara! gurean ere horixe bera egin beharko dute.

Egun haietan baziren pentsaketak nere buruan.

Izan ere, astearte arratsaldean zelataria etorri ta berari jarraitzeko esan zidan. Ez nekien galdeketa berrirenbat egin beharko ote zidaten. Nahiko larri ninjoan ta gela batean bi gizon arkitu nituen: Komisarioa ta Bikario Jauna, Emeterio Isasti.

Emeterio ikusita, argitu zitzaidan aurpegia:

- Kaixo, Emeterio!
- Kaixo, Jexux! Qué tal estás?
- Bien; ya ves.
- Qué? no te has afeitado?
- No; no tengo con qué. Ya sabes que me detuvieron en la calle y vine con lo puesto.
- Sí; me enteré antes del funeral de Arrate; y después del funeral vine y no pude verte, porque estabas siendo interrogado.
- Sí, me di cuenta de ello; porque uno de los de la Brigada anduvo queriendo localizar al Vicario; por lo visto te habías marchado.
- Ya sabes que los dos obispos están en Roma.
- Sí, me lo suponía. ¿Tienes idea de hasta cuándo estoy yo aquí?
- Pues, no.

Eta Komisarioari galdetu zion:

- ¿Sabe Ud. hasta cuándo va a estar aquí?
- No, no lo sé. Quizás uno o dos días más; porque hay en este caso bastante causa. Por una parte se está llevando el trámite por el Ministerio de la Gobernación; pero además está el Ministerio de Justicia, y el asunto es bastante complicado.

Komisarioa oso lehor ta zeken zegoen.

Azkenik, Emeteriorekin alkar izketa bukatu nuen: bere otoitz laguntza eskaini zidan eta animo berriak eman nahi zizkidan.

Denen bearrak banituen eta bere hitzak on egin zidan.

Orduan, berriro gelan itxita, nere buruaren pentsaketak beroak ziren: “Zenbat denbora egon beharko ote dut: beste bi egun hemen? Eta epaileagana eramane beharko naute ba. Ai, lehenbait-lehen eramango banindute! Eta epaitzen banaute, sei urteko zigorra emango didate gutxienez. Ta urte horiek nun igaro beharko ditut: Zamora’n, Martutenen, Carabanchel’en, lekaide etxeren batean, Estibaliz’en? Ta zer egin behar dut nik urte horiek guztietan?”

Gero nere larria ilusita, nere burua salatzen hasten nintzan horren ustela ta ausardi gutxikoa nintzelako. Askotan gogoratzen nintzen Joantxok deportista batzuetatik esan oi duen hitzaz: “Tienen una moral de cristal”. Nerea ere halaxekoa zen ba: hausten errega. Ona negoen ni hainbat militanteek eramane dutena eramateko! Eta kristauak behar duen eramane eta kementa! Ta Berrionaren zorientasunak noizko nahi ditut!”

Jateko gogoak joan zitzaizkidan. Eguerdin janari goxoa, gabeane ere berdin. Poltsa eramane zidane bakoitzean nere etxeko maitasuna ta atsekabea burura zetorkidan: “Hauek lanak emane ari gaituk ba. Eguerdin, gabeane: lenengo gaba, bigarren eguna, irugarrena... Nola moldatu behar ote dute, Juantxok, Arantxak lan hauek guztiekin? Inork laguntzen ote die?”

Behin baino gehiagotan negar malkoak ere begietaraino zetozkidan. Eta nere bihotz barru-barrutik esker kementsua. Ez dut uste iñoiz egun haietan bezain indartsu nere ongilean alde esker ona nabaritu dudarik. Berdin gero, asko ta askoren ahaletin eta kezken berri jakin nuenean.

Bigarren egunean etzatokitik jeikitzeo agindu zigutenean, zelatariari manta bat uzteko eskatu nion, alegia egunaren buru ozkar egote nintzela-ta. Utzi zidan manta.

Illuntze batean, zelatari batek etxeko afari beroa eraman zidan. Ni jateko gogorik gabe negon. Ala esan zidan irriparez:

- Su familia le ha traído ya la cena. ¡Hala! Hay que comer aunque sea un poco! Hay que comer!
- ¡Gracias, gracias! Es que no tengo ganas!

Baiñan egia esan behar ba dut, hitz haiek mesede egin zidaten, eta animo pixka bat hartu nuen.

Han ibiltzen nintzen batzuetan korrika, saltoka, zangoak mugitzearren; txingoka ere bai, lurreko baldosak neurritzat arturik.

Otoitz egin, agurtza donea esan, zerbait abestu, lo kuluxka batzuek egin...

Ekainak 19, osteguna.- Arratsaldetik, leenengo egunean galdeketak egin zizkidan polizia bera joan zitzaidan kalabozora.

- Buenas tardes: veo que está Ud. aquí todavía.
- Pues, ya lo ve Ud.
- Y no le han sacado de aquí? desde el primer día está Ud. aquí?
- Aquí estoy sin moverme.
- Pues yo vengo a traerle una mala noticia. (Eskuartean orri bat zeraman). El ministerio de la Gobernación le ha puesto una sanción muy fuerte, muy dura: 500.000 ptas. Léalo Ud. mismo.

Irakurri nuen, ta gauza batzuen galdera egin ere bai.

- Oiga, esto de “un escrito difundido ampliamente” es falso. Le dije a Ud. q. 50 ó 60 copias, exactamente para cada sacerdote de la zona. ¿Eso es una difusión amplia?
- Oiga y de dónde se deduce mi conexión con el titulado “separatismo vasco”? y mi actuación pública contra el Régimen en la zona de Pasajes-Rentería?
- Pues eso se desprenderá del contexto de todo ello.
- Bueno y ahora qué tengo q. hacer.
- Tiene como caminos posibles: o pagar las 500.000 pts. Y si no lo puede o no lo quiere, puede hacer el recurso depositando una 3ª parte.
- No, no. No hay nada q. hacer. Veo q. tengo que ir a la cárcel a cumplir arresto.
- Hombre, pero una 3ª parte ya puede Ud. conseguir.
- ¿Yo? de dónde?
- No digo q. Ud. lo tenga; pero ya habrá personas q. le presten ese dinero.

- Y qué hago yo con q. me lo presten, si me voy a empufar para toda mi vida y no tendré nunca posibilidad de devolverles.
- Sí, sí, ya comprendo. Ya conozco a sacerdotes que manejan dinero y a otros que no tienen un real.

Caso de que Ud. no lo abone inmediatamente, lo debe firmar y entonces significa que acepta el arresto de los 90 días.

- ¿Podría hacer alguna consulta sobre ello?
- No.
- Pues bien: no tengo ninguna duda. Lo firmaré.

Eta halaxe izenpetu nuen. Nere barruan pozik gelditu nintzan: zigor haundigoaren bildur bai nintzen.

- ¿Oiga tiene idea de adónde me llevarán?
- A Carabanchel.

- ¿Puedo llamar a casa pidiéndoles ropa, etc.?
- Creo que sí. De todas formas tengo que preguntárselo al jefe. Si no vuelvo es señal de que no hay permiso; si hay permiso, volveré.

Handik une batera berriro etorri zen.

- He estado con el jefe y me dice que a ver por qué los sacerdotes no pagan la multa. Que da la impresión de que se quieren hacer los mártires ante el pueblo.
- Y de dónde quiere que nosotros paguemos?
- Bien; tiene Ud. autorización para llamar a casa. Pero no les diga Ud. cuándo va a salir, y que nadie venga a despedirle.

Gela zulotik aterata zelatarien lekura eramán ninduten. Han zegoen zorioneko urrutizkiña. Izan ere, nere zulotik hainbestetan entzuten nuen aren txirrin hotsa eta zelatariaren galdera: “Aquí calabozo; dígame”.

Telefonoa mahai-gaínean zegoen, eta mahai inguruan bost edo sei zelatari. Haiek aurrean nituela ta gainera sekreta, nere etxera deitu nuen berriro. Bereala Arantxa jarri zen oraingoan ere:

- Zein da?
- Arantxa, Jexux naiz...

Etziten bukatzeko betarik eman:

- Ara ¡Jexux! Nun zaude? zer moduz zaude?

Doinuan bertan antzematen nion egun haietako kezka, samina ta elkar maitasuna.

- Estoy en la Comisaría. Me llevan a Carabanchel.
- Noiz eramango zaituzte, oraintxe?
- No lo sé: es posible, aunq. no lo creo: igual mañana. Oye, prepárame un poco de ropa. Y también algo de dinero.
- Sí, enseguida te preparo. Qué ropa te pongo? Cuánto dinero te mando?

Onela jardun giñan unetxo batean.

- Oye, ponme también el Breviario. Los dos tomos correspondientes.
- Bien, te pondré los míos. ¿Quieres algo más?
- Oye, quizás la Biblia; pero la de Jerusalén es muy grande y torpe.

Polizi sekretak esan zidan:

- Allí ya tendrá Ud. la Biblia si la desea.
- Oye, Arantxa: me dicen que allí habrá Biblias: así es q. no me pongas.

Honela, berehala moztu genuen gure elkarriketa hain “izkutukoa”.

Berriro zulora. Orain alde batetik lasaitasuna ta poza: orain banekien zer eramán behar nuen, eta gainera laister aterako ninduten zulo hartatik ta eguneko argia ikusteko bidea izango nuen. Bestetik, hiru hilabete luzeak izango ziren, eta uda osoan giltzapean egon beharko nuen: gaiñera Carabanchel'en nortzuk arkituko nituen? Ta nik politikoen artean zer egin bear dut? Marxistak izango dira, ta nik marxismoa ez dut ezagutzen. Eta zein apaiz ote daude han? Patxi Altuna Zamoran egon zenean, hango apaiz giroak ez omen zion onik egin: ain giro txarra, ain giro gogorra sinismen aldetik! Ala entzunda nengon ni. Gero Carabanchelera aldatu zutela, eta hor giro hobea aurkitu omen zuen.

Berehala arropaz betetako poltsa eramán zidaten zulora: han nituen eskatutako guztiak txukun asko. Noiznahi irtetzeko prest nengoen.

Orkatilan atera zitzaidan ekzema ia sendatu zitzaidan, ahal nuen bezela zaindurik. Eztarriko ezin esana ere bukatu zen.

Lehenago, pasaeran Tolosar mutillak galdetu ziten:

- ¿Tienes algo para comer?

Buruarekin baiezko seña egin nion, ta zelatariari:

- Oiga ¿puede entregar esto al chico de Tolosa?

- Sí, ahora se lo llevo.

Ez nekian noiz irten beharko nuen. Afaririk beharko ez nuelakoan nengoen. Ez zitzaidan ajolik.

Baina nun berriro atea irikita, afaria sartzen didaten. Ni bai harritu: berriro etorri zaizkit? Hauek lanak ematen ari naiz!

Zelataria gabeen mantak hartzeko esatera etorritakoan, galdera bat egin nion:

- Oiga, a los q. les llevan a Carabanchel ¿a qué hora los conducen, de noche, de día, por la mañana?

- Yo no sé nada; yo creo que a la noche, o a primera hora, cuando la carretera está más libre.

Gabez lo egin nuen, nahiz eta esna-aldi batzuek izan. Orduak aurrera zijoazela ikusirik eta ez zidatela deitu, etsi nuen. Egun hura dena zulo hartan igaro beharko nuela.

Goizero bezela, sumatu genuen komunak eta garbitzera etortzen zan andrea han zebilela. Behin ala hasi zitzaigun oiuka kantari:

“Quinto, levanta! tira de la manta.

Quinto, levanta! tira del colchón”.

Goizeko baderatziak izango ziren. Ordurako “Goreskizunak” breviariorik errezatu nituen. Ta hara nun datorkidan zelataria:

- Recoja sus cosas, q. va a salir.

Nere gauzak hartuta, zelatari-mahairaino joan nintzen. Han lehenengo egunean kendu zizkidaten gauzak itzuli zizkidaten. Baita etxetik eraman zidaten dirua ere: 5.000 laurleko.

Etxekoei bihurtu behar zitzaizkien poltsa ta ontziak zein ziren erabakita aparte utzi genituen.

Lehenengo eguneko polizi-edadekoa ere jetxi zen kalabozora:

Se va Ud. ya, Padre. Ayer le dejamos hablar por teléfono a su casa y trajo complicaciones; porque estuvo el Vicario interesándose por Ud. y el Comisario se enfadó muchísimo, y me dio una gran bronca. En fin, una bronca más.

Tolosar mutilla ta beste bi harekin han zeuden barrote atzean. Agur egin nien besoa jasoz. Eta leku illun hartatik, egun argira irten nintzen. Irteeran sail luzean zegoen jendetzari (D.N.I. berritzeko) begiratu nion ea inor ezagunik zegoen. Inor ez.

Lau eguneko bizarrez nengoen. Turismo-berebilla prestatzen ari ziren. Joan behar zuten hiru polizia bildu ziren eta kotxean sartuta abiatu ginen.

MADRILLERA / Ekainak, 20 /

Goizeko 9`30k ziren. Autopistan sartu ta Oriotik barrena Durango`raioño joan ginen.

Iru polizi-sekreta horietako bat neri galderak egin zizkidana zen: hori zijoan taldearen buru bezela. Txoper zijoana serio samarra zen. Eta hirugarrena polizi gaztea: honekin hitzeginez eta parrez zijoazen. Katxondo samarra zirudien. Hala esaten zioten:

- Qué habrás andau esta noche? Donde siempre? Claro! después que no te puedes despertar a la mañana. Y tu mujer allá en Madrid ¿verdad?

- Pues sí: todo lo que más quiero está en Madrid: mis padres, mi mujer, mis

hijos...

Eta parre egiten zuen. Halako batean, kotxean txopertza egiten gazte hau jarri zen, eta ongi gainera. Ni isilik ninjoan, zer esanik ez bainuen. Batzuetan, ezaguna nuen poliziak galdera batzuek egiten zizkidan nere isiltasuna haustearren. Batez ere bidean zerbait hartzeko gelditu ginenean. Lehenengo Gazteiz'en gelditu ginen, ta gero Pancorbo'n: Ni ere zerbait hartzera konbidatzen ninduten. Lehenengo, gosari mokadua polizi gazteak ordaindu zuen. Bigarrenean refresco-erari batzuek hartu genituen: ta nik ordaindu nuen. Geroztik pentsatu dut behin baino gehiagotan ez nuela nik zertan ordaindurik; baina bat lotsatia izan, eta horrelakoak egiten ditugu.

Polizi nagusia komunetik atera zenean esan zidan:

Pero cómo: si esta consumición la había sacado yo y les había invitado!

Une batzuetan bakar samar hitzegin genuen eta esan zidan:

- D. Jesús: le veo a Ud. profundamente deprimido.
- Y qué quiere Ud., que vaya cantando?
- No, ya comprendo que no es un viaje agradable, pero...

Lehenago neronek galdetu nion berari:

- Oiga, qué es lo que Udes. pretenden con tenerle a uno encerrado de esa manera: destruir a la persona? Sin ningún libro, sin nada que escribir...
- Sí, ya lo comprendo. Yo no he probado los calabozos, pero comprendo que ha de ser duro.

Beste une batean:

- En Carabanchel se encontrará Ud. con un sacerdote a quien seguramente conocerá: D: Erasmo.

Ni une hartan ez nintzan oroitzen inor ezagunik han egon behar zuenik; eta hori entzutean, halako poza hartu nuen, bat batean, ta aurpegia argiturik, erantzun niola:

- Ah, pues tiene Ud. razón.
- Ahí tiene el caso de D. Erasmo. El no sé si tendrá o no dinero, pero tiene un hermano médico, y me imagino q. le podían pagar la multa. Y así se lo dije; y ¿sabe Ud. lo que me contestó? “No, no la quiero pagar; sino que voy a ganar en la cárcel un sueldo como no lo he ganado nunca”.
- Yo no sé cuál será el caso de D. Erasmo, pero como le dije ayer, la mayoría de los sacerdotes ni aunque quisiéramos podríamos pagar las multas.

Irurak ingururako Madrilera iritxi ginen, eta han D.G.S.'ra eramán ninduten. Nik uste nuen zuzenean Carabanchel'era eramango nindutela, baina ez zen hala izan.

Dirección General de Seguridad

Goiko gela batera igo nintzan bi poliziekin; ta han ofizina batzuetan, buru egiten zuenak orri bat bete zuen nere izen abizenekin, ta bazkaltzera joan ziren.

Agurtu nindun nere elkar izketako poliziak:

- Bueno, D. Jesús; que le resulte lo menos duro posible.
- Gracias.

Eta beste gazteak, bide guztian parrez ta “cachondeoz” etorri zenak, zorrotz-zorrotz or esaten dit:

- Bueno, que no tengamos que volver a vernos en otra!
- Eta moztuta, zer esan ez nekiela, utzi ninduen.

26. Gela hartako arduradunak, nundik netorren eta galderatxo batzuk egin zizkidan.

- ¿Ya há comido Ud.?
- No, señor.
- Ya voy a avisar q. le preparen algo.

Eta telefonotik deitu zuen, bazkari kontua adieraziz ta nere bila joateko eskatuz. Bi eskuak lotu zizkidaten giltzaz, ta hala nere poltsa-maleta itxura txarrean neronek eraman beharra izan nuen: horrela beheraino jaitsi ginen. Han gela batean izen-abizenak eman; beste gela batera eraman ninduten: Sala de Médicos edo horrelako zerbait jartzen zuen. Haien galdera:

- ¿Tiene Ud. algún golpe o herida?
- Golpes no; tengo ciertas dificultades de circulación de la sangre...

Bukatzen ere etzidaten utzi:

- Eso no; le preguntamos si a raíz de la detención tiene alguna herida.
- No, señor.
- Muy bien; se puede ir.

Berriz beste leku batera: han nere gauzak utzi ta “katxtoa” egin bear zidaten.

Eskuak askatuta: neroni atera arazi zizkidan polizi-jauntxo batek poltsatik banaka-banaka gauza guztiak; eta beste polizi grisek miatu. Batek orri batean jartzen zituen zer gauza zeuden.

Baita ere, horiez aparte, objetos de valor deitzen zienak zorro batean: ordularia, lepoko katea, boligrafoa, lokarriak, giltzak, gerrikoa...

Orduan, besoak eta zangoak zabaldu arazi ta katxeatu ninduten.

Orri bat eman zidaten izenpetzeko. Izenpetu aurretik zer jartzen zuen irakurri nahi ba, eta nun ikusten dudana: “Objetos de valor en AR. y la maleta...” Nik galdetu nion aldameneko poliziari:

- Oiga, qué es esto de AR., que no entiendo?

Esan banuen, esan nuen. Ekiten dit, suk hartuta buru egiten zuen poliziak, builaka:

- ¡Ya estamos con lo de siempre; con desconfianzas! Ya le ha dicho a Ud. lo que significa y no le interesa saber nada más. Estamos con lo de siempre!

Aldameneko poliziak, ixil xamar esan zitdan:

- Quiere decir “en ARMARIO”.

Ta izenpetu nuen.

Nere onetik atera ninduen polizi harek. Horrela kalabozora eraman ninduten: bidean zihoan poliziari esan nion:

- Oiga, ¿Ud. cree que había algún motivo para ponerse así?
- Bah! No tiene importancia!

Kalabozoko atera iritxi aurretik, aginduak entzun genituen:

- Deje ahí la maleta. Coja dos mantas. Sígame. Quítese los zapatos. Entre.

Gela au ez zen Donostikoa bezela erabat itxia: ateak nahiko zirrikuak bazituen, ta pasiloan nor zebilen ederki ikusten zen. Gela handi-samarra zen, ta bost “colchoneta” bazeuden.

Berealaxe gizon bat etorri zitzaidan esanaz:

- Oiga, Ud. no ha comido ¿verdad?
- No, no he comido.
- Es que no queda comida. Solo se le podrá preparar un vaso de leche caliente.
- Estupendo, ya me basta.

Neronek baneukan zorrotxo batean jateko zerbait, Donostitik eraman nuena, Baita “calmante vitaminado” horietako bi ere. Esne bero ta galleta batzuekin bi kalmante horiek hartu nituen buruko minez negoen-ta. Ondoren etzan nintzen eta lo kuluxka bat egin ere bai.

Berriro etorri ziren, atea iriki, eta:

- Salga. Póngase los zapatos. Sígame.

Berriro gela batean izen-abizenak eta dato guztiak eskatu zizkidaten.

- ¿Ha estado Ud. aquí alguna vez?

- No, señor.

- Tiene que plasmar las huellas digitales.

Behatzak hartzen zizkidaten: lehenen eskuiko behatz bakoitza ta gero bostak; gero ezkerrekoekin berdin.

Behatz bakoitza hartzen zidanean esaten zidan:

- Deje, deje; deje el dedo, deje!

Gero argazkia. Alako itxurakin ateratako argazkiak, nahi-ta-ez, gizailtzaile antzeko aurpegiak aterako dituzte: garbitu gabe, bizar luzea, ileak orraztu gabe, jantzi zikinak...

Berriro gelara.

Andik alditxo batera berriro atea iriki eta:

- Doble las mantas, coja las mantas, póngase los zapatos; sígame.

Beste pasilo baten barrena ibili eta beste gela batera eraman ninduten. Hura ere lehenengo gelaren antzekoa zen: handia, baino ni bakarrik negon han.

An nengola, afaria eraman zidaten: zopa beroa zegoen eta pozik hartu nuen; ondorengoa jateko gogo handirik ez neukan.

Ondoren, gaua han igaro beharko nuela pentsatu nuen; etzan ere egin nintzan.

Halako batean, berriro polizia etorri, atea iriki eta:

- Doble las mantas; coja las mantas; póngase los zapatos; sígame.

Berriro:

- Deje las mantas. Recoja las cosas que le corresponden, recoja su maleta.

Eskuak berriro lotu zizkidan, eta patiora irtenda “coche-celular” horietako batean sartu-arazi ninduten, eskuak askatu ondoren. Barruan itxita ni bakarrik, eta aurrean txoferra ta polizi bat. Honela iluntze berean, Madrilgo karriketan barrena Carabanchel-espexeko Gaxoetxera eraman ninduten.

HOSPITAL PENITENCIARIO **CARABANCHEL**

Ekanak, 20.-

Illuntzean, 9'15 izango ziren. Behe-beheko atletik sartzeko asmoz polizi grisak deitu zuen, baina inork ez zion erantzuten. Leioetan preso batzuek ikusten nituen, baina inor ez nuen ezagutzen. Orduan, gaixoetxearen ate nagusitik sartu ginen. Funtzionario batekin hitzegin zuen poliziak, orriren bat izenpetu ere bai eta hala joan zen.

Neri poltsa miatu zidaten: ez zidaten ezer debekaturik aurkitu. Galdetu zidaten bai:

- ¿Lleva algo de colonia o perfume en ese neccessaire?-

- Creo q. sí, aunq. no estoy seguro.
- Pues tenga Ud. cuidado de q. los toxis no lo noten.

Dirua ere kendu zidaten; le irán dando los vales q. necesite: 5.500 laurleko ziren. Karneta ere kendu zidaten, ta ezaugarri bezala orri bat eman. Atea giltzaz iriki zidaten, ta sartu ondoren berriro itxi zuten. Han barruan nere hiru hllabete igaro beharko nituen.

Ez daukat gogoan zein funtzionario zeuden egun hartan: izan ere egun batzuek beharko nituen haien izenak ikasteko, eta nundik nora nenbilen ohartzeko.

Nere gela sarreraren mailla berdinean zegoen: lehenengo bizitza-pisua, 20'gn. gela. Germán Baruso'k lagundu zidan gelara: bera bai zen lehenengo bizitzako arduradun "cabo".

Gela irikita Madrilgo apaiz bat zegoen an: Julio Pérez Pinillos. Lagun alaia, serbitzari ona. Madrilko JOC'en apaiz zuzendaria zen. Maiatzaren lehenengo eguneko propagandarekin harrapatu zuten. Bi hilabete espetxean egon beharra izango zuen, 300.000 laurleko zigorra eman ziotelako. Bere epea bukatzen ari zen; handik 8 egunera irtengo zan espetxetik.

Elkar agurtu genuen, eta Erasmoren galdera egin nuen.

- Claro! Erasmo no sabrá que vienes?
- Pienso que no; no tendrá ni idea.
- ¡Menuda sorpresa le vas a dar! Seguramente estará ahora en el comedor, viendo el telediario.

Jan-gelara jaitsi ginen: gela handia zen, ta jende mordoska handia zegoen telebistari begira. Atze atzeko mailan, zutik Erasmo ere han zegoen.

Isilka inguratu nintzaion, ta sorbaldeetik helduta esan nion abost isilez:

- Kaixo, Erasmo! zer moduz?

Neregana itzuli zen nor nintzenik oraindik konturatu gabe, ta berehala harriturik eta pozik:

- Kaixo, Jexux!, ta alkar besarkatu genuen.

Baino, zer egiten duk hik hemen? zer dela eta ekarri haute?

- Zuek ikusi gabe ezin nintzela-ba egon, eta horregatik etorri nauk.

Parre egin genuen. Ni pozik eta Erasmo ere pozik. Esan nion:

- "Estado de excepción" delata gure bailaran hitzaldi bat egin diagu. Poliziak batzuek deitu dikik: ni ere bai; hitzaldiaren kargu egin nauk arzipreste bezela, eta miloi erdiko zigorra eman zidatek, eta ordainetan hiru hilabete.

- Hiru hilabete? Beno, Jexux: hiri pena emango dik, baina neri poz eman didak hemen ikusita.

- Baita neretzat ere; poz ederra eman zidak poliziak hi hemen hagola esan didanean...

Bagenuen une hartan elkarren berri jakin nahia.

- Aizak, Erasmo: ta hi zergatik hago hemen?
- Samaritar onaren ekintza egin dudalako. Nere auzoko nexka bat 15-bat egunean nere etxean eduki nian: Etarra uken eta gero harrapatu egin ziten Gerona'tik bestaldera zijoala: ia igaro ziken mendi saila, baina, ikusten denez, bere lagunetatik bakarrik gelditu uken eta izutu eta atzera egin, eta orduan harrapatu ziten.

Nik epailariari nexka ori txikitatik ezagun nuela esan nitxeoken ta nerbiotatik gaizki zebilela ta nere etxera hain larri etorrita lagundu niola. Ez nekiela inundikan ere Eta'n sartuta zegoenik. Hala libratu ninduan epaileagandik,

baiñan hala ta guztiz ere 300.000 laurleko zigorra eman zidak Gobernazioak: bi hilabeteko natxeok.

Hitzegin behar digu patxaran.

Aizak, Jexux, ik orain dutxa on bat artu bear duk. Oso ura ona zegok otza ta beroa.

- Bai baiñan, ordu terdi edo orrela dituk apaldu dudala.

- Dutzatu adi, motell.

Baita egin ere. Egun asko ziren garbitu gabe nengoela, ta ala ur zoragarriak ase ta garbitu ninduen. Berriturik utzi ninduen.

Xirinacs ere agertu zen:

- Hombre, tú eres Xirimacs!

- Todos decis lo mismo. Sí, lo soy. Y tú de dónde vienes?

Berriro, hitzerdiekin, gertatu zitzaienta esan nion. Baina astirik ez genuen izan. 10'tan txirrin hots batek jendeari deitu zion eta denak gelara igo ziren. Egun hartako azken "recuento" egin zuten, eta atea kanpotik itxita, ta giltzez gainera, barruan gure 20'gn. gelako iru lagunak gelditu ginen.

Gau hartan bagenuen zer esana, zer kontatua batak besteari: nola harrapatu ginuen, zenbat egun Donostian igaro, Madrilko D.G.S.'en zenbat denbora...

Neri etxe berri hura ostatu bat, hotel bat zeritzaidan. Hiru hilabetez han egon beharra luze izango zan baina garbitasuna ba zen, elkar adiskidetasuna ere izango zan, ohea ona izara garbiekin...

Lo ona egin nuen. Gabeko amabietan oheratu ginen. Antón Munduate egon zan ohe berean etzango nintzen. Lehenagotik zer ohitura zituzten adierazi zidaten: Hamabietan gau otoitza (Completa) errezatu ta abesten zuten, eta ondoren ohea. Urrengo goizean 7'30-tan deituko ginduten, beti bezela, hiru txirrin hotsez; 7'45-an funtzionarioa lehenengo rekuentoa egitera etorriko zen. Ondoren toxiko gazteak gosariarekin etorriko ziren gela bakoitzara: ogia, kafesnea, ta batzuetan galletak edo "bimbo".

Toxikoak garbitu behar izaten zituzten pasilo ta guztien gelak: apaizen batek laguntzeko ohitura sartu zuten. Onela lehenen "lokutorioa" ta pasiloak erratzez garbitu, ta gero jaboï-uraz bustita baietakin zabaldu ta lehortu. Geuron oheak egin ondoren, eta bigarren rekuentoaren ondoren, ile moztailleagana joan nintzen bizarra kentzera.

Lehenengo egun hartan Erasmoren babes beharra ba nuen. Jan gelara jetxi ginen eta han toxi mutil gazte batzuekin harremanetan jardun genuen.

Toxikoak.-

Bazan Julito Pinillos'en "feligrés" deitzen genion mutil bat. Ni joan-da egun gutxira etxera bidali zuten. Honekin zerbaiten hartu-eman izan nuen.

Bere lagunekin zegoela, Direktorearen sinuak egiten hasi zan eta hala balitz bezela esaten zien:

- Esta juventud está podrida. ¡Hay que ver! Estáis hechos unos viciosos: intoxicados, drogadictos...!

Begien aurrean daukat estudiante gazte batek (4º de Derecho), beltz-samarra, luzea, medar-argala bera, itza ezin argitu zuela ta illun-illun erantzuten zion:

- ¡Y a mucha honra!

- Cuando salgáis de aquí debéis corregiros de vtras. costumbres anteriores.

Tenéis q. ser unos hombres serios, de provecho. ¡Hay que cambiar!

- ¡Sí! Ya! Pues yo pienso seguir igual!

Lehen esan dudan mutil horrekin, toxi horiek hartzen dituzten droga ta zikinkerietaz, hitzegin genuen.

Hartzen dituzten belar ta droga-zigarroak (hachís, LSD, marihuana) baita behin droga fuerte bat ere hartu izan omen zuela.

- “La probé y me quedé “grogui” durante tres días. Estaba yo en un piso con una “tía”: hicimos el amor y todo, y yo ni me daba cuenta. Hasta q. a los tres días se me pasó el efecto.”

Droga guztiak ez dutela kalte berdina egiten. Hori toxi guztiek esaten zuten.

Beste egun batean mutil horrekin berarekin bere etorkizunaz hitzegiten hasi ginen.

- Cuando me agarró la poli vio q. en el carnet figuraba como estudiante.
- ¿Estás cursando estudios?
- No ahora no; estudié hasta 6º de bachiller pero no lo terminé.
- Y ahora qué hacías? trabajabas?
- No. Soy músico: actúo en un conjunto.
- Tenéis trabajo suficiente?
- El verano sí. Nos llaman de muchas partes: y puedes ahorrar el verano unas 40.000 ptas.
- Y el invierno qué ocurre?
- Hay menos llamadas. En el invierno te dedicas a echar la propaganda comercial en los buzones... Para qué quieres trabajar? Con tal de tener lo justo para vivir no hace falta más.
- Oye, y cuando la poli os agarra porq. habéis fumau un porro, a los q. sois menores ¿no os pueden librar vtros. padres?
- A algunos los libran. Un amigo mío se libró así. Pero como yo no vivo con mis padres... Oye, le he preguntau antes a Julito y me dice q. él no entiende de estas cosas: Mira yo me quiero casar con esta chica con la q. vivo. Pero soy menor, tengo 19 años. Qué tengo que hacer?
- Tendrías que plantearlo en la parroquia. Y ver si tu padre te da el consentimiento.
- No nos lo dan: Ni a ella ni a mí.
- Entonces podrá el párroco llenar una solicitud indicando las causas q. os llevan al matrimonio: si hay alguna causa grave, el obispado puede dispensar de tal consentimiento paterno. Una causa grave es cuando ella está en estado.
- Ya te he dicho que no hay nada de eso. Nosotros queremos casarnos para conseguir la independencia de los padres. Es que tengo ganas de comenzar ya en serio una vez de salir de aquí.
- Hombre! ya me alegro de que pienses en tu porvenir con seriedad. Ojalá formes un hogar bueno, con responsabilidad.
- Ah! Yo no pienso formar hogar!
- ¿No? Pues qué plan tienes?
- De formar hogar, nada. Nosotros queremos vivir en una comuna de unas 40 ó 50 personas, donde todo es de todos, y los hijos no pertenecen a la pareja sino al grupo.
- Gauza asko aipatu genituen: gizonaren izatea, familiaren egitekoa, guraso izatea... Galdetu nion:
- Y tú crees que la familia no tiene ninguna misión?
- Ya no. Mira, todos los padres son unos egoístas y no dan nada a sus hijos. Mis

padres no me han dado a mí nada. Yo no les debo nada.

- ¿Tú crees que no les debes nada? Pues mira, mi experiencia es justamente la contraria. Yo creo que les debo fundamentalmente lo que soy. Yo no podría decir con verdad lo que tú dices.

- Pues mi experiencia es esa. Y te digo que el 90% de los padres han hecho igual que los míos.

- ¿No te parece que exageras mucho con ese 90%?

Azkenik, ain itxita zegoela ikusirik esan nion:

- En fin, me alegraría de que vosotros los “revolucionarios” cambiaseis de verdad esta sociedad y la transformaseis en mejor.

- No; si nosotros no vamos a transformar ninguna sociedad! Lo único que queremos es vivir!

Honela moztu genuen elkarrikteta luzea. Poliziaren eskuetatik libratzearen ezkondu nahi zuen. Ohartu nintzen zimendurik ez zegoela.

Gero Pinillos'i esan nion gertatua, ta mutil horren pentsaera. Baita ere hori Elizaz ezkontzea ez zitzaidala oso egokia iruditzen.

Toxikoen artean mutil jatorrak ba ziren:

Joaquín: Holandan Interpol'ek harrapatu zuen.

Berak zioenez, ezer ez zuen egin. Hemengo egoeraz oso haserre zegoen.

Kanpora joan nahi zuen: Ingelaterra'ra, Ameriketara... Mutil serioa zirudien.

Aita Españian zeukan; arrebak Suiza'n.

Pablo: libratuta D.G.S.'ra eramán omen zuten, ta zutik egoteko gauza ez zela utzi: horrela bidali omen zuten etxera.

Mateos: Jakinduriaren bila zebilen mutila. Oriental jakintza ta erlijioak gogoko zitzaizkion. Kristotzaz bere iritzia eskatu nion:

“Es un maestro como otros: Confucio, Buda y otros muchos. Pero murió, no está vivo”.

Hori zela eta zerbait hitzegin genuen serbitzuaz, txirotasunaz, jakinduriaz, anaia maitatzeaz...

“Para ser feliz, esaten zidan, no necesitas de cosas. Ha habido ocasión en que yo estaba sin nada que comer durante algunos días, en casa de un amigo: y sin embargo me he sentido cuando más feliz”.

Gurasoetatik aparte bizi da. Azken egunean, libratu zutenean lagun artean diru-biltzea egin zan berari emateko, ezergabe zegoela.

Fernando: Gazteiz'en jaioa ta Madrillen bizi dena.

Joaquín Sánchez: Ezkondua. José M^a Sánchez Silva, “Mercelino, Pan y Vino” egillearen semea.

Paco: ezkondua ta bi semeekin: Provinzialera bidali zuten.

Mariano: provincialera.

Eugenio: militarren semea. Ezkongai ta seme batekin.

Carlitos: Madriltarra. Bakarrik ibiltzen zen. Begirada nahastua zeukan gizajoak.

Urrundik ezagun zuen drogaturik edo zegoela. Banku batean lanean asi nai zuela esan zidan.

Xirinacs'ek toxikoekin harreman handia zuen. Yoga erakusten zien, eta arratsaldero patioan bere inguruan gazte taldea biltzen zitzaion. Ramos ere hara joaten hasi zen, eta bilera egokiak zirela esan ohi zuen. Behin Ramos'ek Xiranics'i esaten zion:

- Veo q. son muy pocos los que te preguntan. Están casi todos en silencio.
- Sí, es verdad, pero no hay que forzar las situaciones. Si no preguntan se sigue adelante. Después me suelen abordar diciéndome lo que han experimentado.
40. Toxiko jendea gugandik gertu zegoen. Politikoen antz aundigoa dute beste lapur ta preso horiena baino. Guk laguntzen genien gure erara. Elkartzera bultza ere bai. Baiñan ez zitzaien oso erreza.

Diretoreak behin esan zigunez, toxikoen egoera epaileak eta berak erabakitzen zuten, noiz arte egon, noiz irten. Ez daukate mutil horiek inungo legeren babesik. Zintzoak izan badira lehenago irtengo dira: bestela, protesta egin badute, han egon beharko dute ez dakit noiz arte.

Kexu bat bazeukaten denek: ez zietela inungo tratamenturik ematen: batzuei bitaminak eta besterik ez. Besteei han eduki-arazi besterik ez. “Tratamiento de templanza”. Bitartean lana egin arazten zieten: pasilo-dutxa eta horrelakoen garbiketa, goiz eta arratsalde.

Xirinacs’ek esan oi zien: “Lo que ocurre es que no estáis respaldados por ningún grupo y os veis solos ante la ley y la autoridad. El día que se forme una gran asociación de hippis y os unáis, estaréis mejor defendidos. Eso supondría una gran fuerza para vosotros”.

Nere iritziz, han ikusi genituen toxi gehienak mutil korrienteak ziren. Taldea bildurik bata besteari belar horietan zigarro (porro) bat edo beste emango zioten eta horrelakoren batean poliziak harrapatu. Nere ustez errudun nagusienak ez zeuden han barruan: han zeudenak gizarajo batzuek ziren noski.

Hantxe aurkitu nuen egun batez nere auzoko mutil gazte bat. Ni dutxan negoen (lau dutxa zeuden gela berean) ta han agertu zen dutxatzera mutil bat. Bere dutxatik begira jarrita esan ziten:

- ¡Hola! ¡Buenas tardes!
 - Buenas tardes!
 - ¿Qué, no me conoce?
- Begira-begira jarri nintzen eta laister-samar ohartu ere:
- ¡Oye! tú eres Facal ¿no?
 - Sí. Ya sabía que Ud. estaba aquí; me lo dijo mi madre.

Geroztik berarekin har-eman batzuek izan nituen. Probintzietatik eramane zuten Gaxoetxera ta beste toxikoekin batean jarri zuten. Ez nuen berarekin asko hitzegin: ohartu nintzen ez zuela neregana urreratu nahi, eta pake-pakean utzi nuen. Eskaini bai zerbait behar bazuen, edo jana edo dirua edo beste zerbait bildurgabe eskatzeko. Bazeukala esan zidan: bere ama ikustatzera joan ohi zitzaiola ta ez zeukala beharrik. Gauza bakarra eskatu zidan: toalla bat; ta bai pozik utzi ere.

Hori sarritan gertatzen zen. Bata besteari egiten genion elkar laguntza: politikoen artean, eta baita beste edozein preso jendeari ere: edo aldatzeko jantzirik jabe eramane zutela norbait, edo garbitzeko edo bizarra mozteko tresnarik gabe edo... Aiton xaar batek denen beharra bazuen: alkandora garbia, azpiko jantziak... Otxartzen asi zuenean, jertse bat edo eskatu zidan. Nik bi baneuzkan eta gaiñera txamarra; nola gordeko nituen-ba denak neretxat? elastiku urdin bat eman nion.

Toxikoekin ari nintzen. Egun gutxi ondoren, nere auzotar Klaudio hori berriro probintzialera eramane zuten. Agurtu nindunean esan zidan:

“Creo que podré salir pronto a la libertad bajo fianza. A ver si salgo hacia el 8

de agosto”.

Esan didatenez, baita gertatu ere.

Toxikoek, nik ez dakit nola, baina, nolabait moldatzen ziren belar hori han barruan ere erretzeko: norbaitek pasatzen zien belar hori. Begira behin, ni han nengoela gertatua.

Pardela norbaitek bidali dio toxi bati. Toxi horrek badaki pardel horren azpian (zorroen bat izango zan noski) ikusten ez dan mailla batean belar hori sartu diotela. Baina nola pasa zelataria ohartu gabe? Zelatariak pardela ongi miatzen baidu. Eguerdiko ordubata laurden gutxitan jo du txintxarria, denok gure gelara joan gaitezen. Bazkal aurretik pardel guztiak banatu behar dituzte ta gero hirugarren “rekuentoa” egin. Mutil hori ere deitu dute beste askoren artean pardela jasotzera, ta bere aurrean pardela ireki ta miatzen du zelatariak.

- Vamos a ver este paquete. ¿Has firmado en el libro?
- Sí, ya he firmado.
- Aquí te han mandado una tarta. A ver: vamos a meterle el cuchillo.

Zatitu du aiztoz zelatariak tarta, ta ikusi du barruan ez duela ezer gordetzen.

- Bueno! A ver, vamos a olerla... ¡Uy, uy, uy! Esto tiene alcohol. Es clarísimo: ¡alcohol!
Huélelo también tú; esaten dio bere laguntzailleari.
- Sí, es verdad, huele a alcohol.

Orduan toxikoa asten da:

- ¡Jo! vaya faena q. me va a hacer ahora! D. F....: ¿no me va a dar la tarta?
- No; ya sabes q. está prohibido todo alcohol. Huélelo tú mismo.

Usai egin ondoren:

- Sí, es verdad; pero es solo un poco de alcohol lo que tiene. Por ese poco, denos para comerlo, q. hoy es mi cumpleaños.
- ¡No y no! Ya podéis decirles en casa que no traigan estas cosas.
- ¿Y qué le va a hacer a la tarta?
- Retirla: cuando vengan tus familiares que se la lleven.

Orduan mutillak nahigabetuen aurpegia jartzen du; baiñan barrendik oso pozik dago.

- Recoge esas cosas y llévatelas.

Gaiñerako gauzak artu ditu ta batez ere an izkutuan daramakin droga – belarra.

APAIZ LAGUNAK

=====

Ni espetxera iritxi nintzenean hiru apaiz zeuden han: Julio P. Pinillos, Erasmo ta Xirinacs.

Lehenengoarekin <Pinillosekin>egun gutxi igaro nituen: illaren 28'an irten zan kalera. JOC'en arazoez buru-hauste handiak ematen zizkioten. Gau batean luzaro hitzegiten jardun ginen bere artzantza lanari buruz. JOC'ek zer egin behar du? politiku partidu bat bezela agertu behar du? horrela jokatu behar du? ala, sinismen eziketarako batzarra, elkarte, alkar laguntza da? Guk bigarren hau agertzen genion, ta bera ere hortan konforme zegoen. Gure elizbarrutian Gotzaiak “Sekularrak Elizan” deritzan idazkian esandako itzak oroitu genituen. Ikusi beharko dugu zenbatarainoko sinismena duten mutil horiek, edo sinismen bideetan sartu nai duten, edo...

Julito ori Xirinacs'en lagun haundia zan: haren Yoga ikasketa egin zuen. Arratsaldean siesta egitekoen berehala oheratzen zen libururen bat irakurriz. Bere lo alditxo egin ondoren, Yoga egitera jaikitzen zen. Manta bat lurrean

zabaldu ta han hasten zen lurrean etzan, begiak itxi, ta zangoak, besoak, gorputza biribiltzen zituela. Batzuetan “el pino” egiten hasten zen eta nahiko lanekin buruz behera jartzen zen; halako batean “equilibrioa” galtzen zuen, eta hor zijoak lurrera gure mutila. Orduan Xabier Zipitriak eta nik ekiten genion algarari, eta bera guri:

“¿Estabais esperando a que me pegase una leche?”

Jendearekin hartueman handia zuen. Bigarren bizitzan (solairuan) begietatik gaixo zegoen Goyo’gana izparringia (periodikua) irakurtzera joaten zitzaion.

Tanke ta Larrearekin ere hartueman handi zuen. Tanke’k hala esaten zion:

“Qué pasa, tú, “castellano-txiki”?”

Gure gelan giro ona jartzen zuen; bai bere gertakizunak esatean, parre eginerazi nahi zigunean.

Palentinoa zen eta hango seminario’ko gertakizunak esaten zizkigun.

- A ver, Sr. Pinillos, suba Ud. al estrado y exponga la tesis.

Julito igo ta onela hasten da:

- “Habemus hic tria puncta: Si quis dixerit...”

- Vamos a ver; dígallo Ud. en castellano.

- Si alguien dijere que hemos sido redimidos por la Sangre de ntro. Señor JXto, sea anatema.

- Repítalo, repítalo.

- Si alguien dijere que hemos sido redimidos por la Sangre de N. S. JXto, sea anatema.

- ¡Que me está negando un dogma! Que me está negando un dogma! Repita.

- Si alguien dijere q. hemos sido redimidos por...

- ¡Márchese!

Nahiko parra eginak izan behar zuten bere lagunak. Gertaera hori oso “famosoa” 46. izan behar zuen. Handik aurrera beste ikasle lagunak ikusten dutenean ala deitzen omen diote:

- Qué hay, tú, “tria puncta”!

Espetxetik irtetzeko eguna heldu zitzaionean, han zebilen Miguelito Jauna haruntz eta honuntz, Julitoren maleta, pardelak eta liburuak miatzen.

Esan zigun: “Hace muy buen tiempo en el patio: un sol espléndido.”

Gu, Julito agurtzeko zai geunden pasiloan. Ez zuen nahi gu han egoterik. Erasmo han zegoen eserita patxaran, zangoak pasillo erdiraiño luzaten zituela. Berrero Miguelito igaro zen eta esan zigun:

- Ya les he dicho q. se marchen de aquí.

- ¿Con gorro o sin gorro? Galdetu zion Erasmok.

Haserretu zen gure Miguelito ta esan zigun:

- ¡A ver si les meto a Uds. en celdas!

Ondoren patiora jaitsi ginen.

Gero jakin genuenez, galazita dagon liburutxo bat atera nai omen zuen ‘FRAP’i buruz. Ta funtzionarioak ez utzi, ta direttoreagana joan. Juliok protesta egiten omen zuen, berea zela esanaz. Azkenik, D. Evaristok esan zigunez, D. G. S’ra omen zuten liburuxka hori.

Irteerakoan bizarra mozteko nere makina eman nion, konpontzera biali zezan. Andik 15 egunera berrero eman zidaten, konpondua zegolakoan; baina lehenago bezela 220’ko korrientearekin ezin zan ibili.

Erasmus: Donostitik ezaguna eta adiskide nuen. Han oraindik hobeto ezagutu nuen nere laguna. Serbitzari jatorra: berak zeramakien elkartean diru gora-behera.

Madrilko eguzkia oso argia zela-ta, begietan min egiten zion. Horregatik iluntze arte patiora ez zen irteten.

Genioz ezta, talderako oso ona. Berarekin hartu-eman handia izan nuen. Bai bere parroko gora beherak agertuz, elizbarrutiko egoera ikusiz; “footing” elkarrekin eginez, musean madriltarrei jipoia ematen, etb. Jendearekin harreman handia du.

Madrilko bere lengusuak astelenero ikustatzera joaten zitzaizkion. Bere anaiari atake batek eman zion, eta honek nahiko kezka eman ohi zion.

Dagonillaren (abuztua) 5'an atera zan handik: asteartea zen. Aurreko igandez apaizok lehenengoz elkarteko Meza eman genuen eta agur eginaz Erasmo genuen buru.

Bera irten aurretik nahiko nahaste-borraste ibili genuen zorioneko telegrama zala ta; baina bera irten aurretik erabaki gogorrik ez genuen hartu.

Xirinacs Damians, Lluís M^a.

Iristen ziran apaiz guztiak bere galdera egiten zuten; eta bera ikustean, denak esan oi genduen:

- ¡Hombre!, tú eres Xirinacs.

Nik ere horixe bera egin nuen. Gero hau etorriko zitzaizun harkatza ta orritxo bat harturik, zer izen zenuen, nongoa zinen, zer kargu, zergatik zigortua zinen eta zenbateko zigorra galdetuz.

Horregatik, sartzen ziren apaiz berri guztieri esaten genien ilea hartuz:

- Ahora te toca pasar por el rito de Xiri: él te vendrá y te tomará la filiación... te hará la ficha.

Bera etorritakoan, esan bezala gertatu ere. Ta hala esan zigun:

- Sois unos exageraus! Sólo necesito unos poquitos datos para mi fichero particular.

Ni arzipretea nintzela jakin zuenean, bere umore bikainarekin hala esan oi zidan:

- Tú y yo nos llevaremos muy mal (catalán doñu handiz). Porque tú eres arcipreste, y eres la jerarquía más alta que ha pasado por aquí. Y yo soy muy poco jerárquico.

Bere abizenaren esanahia ere agertu zigun:

- Xirinacs, viene del nombre romano “Quirinacus”. Los nombres terminados en “acus” designaban a los esclavos que habían logrado la libertad. Libertado de Quirino.

Alkar izketan eta ikusten zenez jakintza zabaleko gizona da: bai zientzi aldetik, bai filosofi aldetik baita Teologi-eskritura aldetik.

Biologoa da, nahiz eta bioloji karrera ez bukatu izan. Sortaldeko jakintzak, filosofiak eta erlijioak ongi ezagutzen ditu. Yoga'ren irakasle trebea.

Azken urteetan, berak zioenez, Marxismoa ikasia; ta ongi ikasi ere. Eztabaidan hasten zirenean, han ikusten zen bai Hegel, Engels, Marx, eta gero Lenin eta Stalin'en irakatsiak ongi ezagutzen zituela, eta bata bestearekin alderatu ta kritikatzan ere bazekiela.

Berak zionez kultura berri batera iritxi gara: marxismoaren kulturara. Lehenago Aristotelismoa Elizak bataiatu beharra izan zuen, kristautu beharra; ta Aistotelesen jakintza-neurrian sinismena zabaldu ta irakatsi digu. Orain orrelako zerbait egin beharko du Elizak: bestela ez du patxararik hartuko.

“Mientra no acepte ni bautice la cultura marxista, la Iglesia no podrá sentirse cómoda.”

Nere iritziz, bera marxista da; ta sinismen handiko gizona. Sinismen hori ez errezoan, baizik bizikera, bizitzari damaion sentiduan, ekintzetan, agertzen du; baita otoitz eta Eukaristían.

Alkarteko Meza eman genuenetan, bitan edo berak irakurri zigun irakurgairen bat. Idatzi santuerako zatiak guk ez bezelako barne giro ta suz irakurtzen zituen.

Gu bakoitzaren iza era ta jokaera ongi analizatzan zuen: bai esukaldunen izakera, bai gaztelaniarrena. Zenbatetan Ramos’i esango zion: Vosotros tenéis que concientizaros de los problemas de Castilla, y dedicarle muchas energías a ello.

Manolo’rekin zer zati egin bear ziran eztabaidan ari ziren. Manolok esan oi zuen:

- Yo haría una raya divisoria: los que sí a un la do y los que no al otro lado.

Nik esaten nien:

- No hombre. Yo a los de sí los concentraría en el centro; a los demás los dejaría libres por sus provincias.

Esan oi zigun berak ez dituela liburu asko irakurri. “Ahora bien, lo que leo, lo trituro y me lo asimilo muy bien.”

50. Gizon au, ezaguna denez, bere gose grebengatik izan da ezagutua.

Lehenengo gose greba Bartzelonan egin omen zuen, bere etxean, ta bere herriaren aurka. Alegia, lo zegoela ta esnatu behar zuela bere nortasuna zaintzera. // Baita esnatu ere: ordu ezkeror sortu dira las “Asambleas de Cataluña”.

Beste behin, gose greba Montserraten egin omen zuten Joseph Dalmau ta berak; ez nago ziur lekaimeen batek ere haiekin egin ote zuen. Asmoak: Eliza Españían Estaduarekin elkartuta zegoelako protesta, eta askatasuna eskatuz. Aste hartan bertan Gotzai Elkartea bildurik zegoen (ez dakit edo Elkarrekin ala Comis. Permanente); ta bilera ondoren agerpen bat egin zuten Gotzaiek esanez Elizak eta Estaduak bakoitzak bere nortasuna dutela eta bata besteagandik libre direla, baina elkarri lagunduz, adiskidetasun jatorrean jarrai behar dutela. Orduan, gose grebaren bukaeran, Gotzai Elkartearen agerpen arlotea ikusita haserretu ziren eta irten aurretik Xirinacs’ek orri bat idatzirik utzi omen zuen, bere gelan; orritxoak au omen zion: “Puesto que la Iglesia se une al Estado, yo también me uno al Estado, pero por otro camino: “Xirinacs”. Ondoren, bakoitza bere bidetik joan omen ziren, eta gure Lluís hori Bartzelonako ofizina batzuetara joan omen zen. An “klíxe” bat eskuz idatzi omen zuen katalaneraz. Eta bereala paper mordoa atera.

Guk ala galdetzen genion:

- ¿Y qué ponías en aquel manifiesto?

- Poca cosa, poca cosa. Es que ¿sabes? yo todavía estaba sin metalizarme. Pedía la separación de Iglesia-Estado; el respeto de los derechos civiles del hombre; la autonomía de Cataluña, la libertad de los presos políticos... Y así más cosas.

Gero paper mordoa besapean zuela eta beste eskuan maletatxo, kalez kale abiatu omen zen: jendea orria eskura emanez.

- La reacción de la gente era de lo más bonito que he visto. Cuando les entregaba a los extranjeros, éstos me agradecían con muchas muestras de ¡merci, merci! Cuando les daba a gente catalana, en cuanto se ponían a leerlo,

asustados, soltaban el papel, y una vez en el suelo, lo leían inclinándose sobre el papel.

Ikusten zutenak ikaraturik zeuden, baita herri poliziak (ertzainak) ere. Rambla karrikak igaro zituen. Halako batean, paper mordoxka gora bota ta egan jaisten omen ziren lurreraíño. Ondoren Gobernu-etxeruntz joan zen eta an Etxearen jira-biran paper horiekin atarian kuadro bat egin omen zuen lurrean banaka-banaka jarriaz. Atzetik eta albotik inguratu ondoren, aurrekaldera joan, bidea libre utzi, ta aurrez-aurre paperak jarri ta jarri. Ordurarte poliziak ez omen zioten ezer esan.

Orduan bera aurreratu omen zitzaien. Eskuan paper mordoa zuela urreratu nai izan zuen, legearen zigorpean erori ahal izateko.

52. Polizía orduan galdezka hasi omen zitzaion ea zer ari zen.

- ¿Qué lleva en la mano? qué papeles son esos?
- Léalo Ud.
- Y qué dice el papel?
- Léalo.

Baiñan katalaneraz zegoen ta ez ulertzen.

Bereala Polizia Gobernura edo deika hasi omen zan:

- Le tenemos aquí a un señor que está repartiendo unos papeles.
- Y ¿qué dicen esos papeles?
- Es que no entendemos lo que dice; no está en español...
- Pues traigan rápidamente uno de ellos.

Handik alditxo batera, deadarka:

- ¡Traigan inmediatamente a ese individuo!

Komisarira eramán eta, han halako batean komisarioa azaldu omen zen, ta ikusi zuaneko:

- Pero, hombre, Xirinacs: otra vez tú?

- Sí! Y otra vez Ud.!

Hala, barruan alditxo batean euki omen zuten; baina, hurrengo eguna Juan Karlos Franco'ren ondorengo bezela adieraztea edo zelata, gau hartan bai Xiri bera ta Komisarian zeuden beste politikuak askatuta bialdu omen zituzten.

Guztiok genekien aspalditik, gose greba luzea egin zuela: 42 egunekoa. Egunero zertxo bat jeikitzen omen zan: komunera joateko, (gelan bertan zegoen), baztarrari helduta joan behar omen zuen. Horrenbeste egunean ezer jan gabe, muskuloak ere goseak jaten omen ditu. Txixa egiteko kemenik ere ez omen zeukan. Baina, berak zioenez, greba hori ongi eramán zuen, ta osasunak lagundu zion.

Greban zegoela, Gaixo-etxeko sendagilea etortzen omen zitzaion greba uzteko arren da arren eskatuz. Sendagileentzat erantzupen handia zela zerbait ari gertatzen bazitzaion.

Lekaima Teresa ere egunero joaten omen zitzaion jan eraztera, baina alperrik.

Beste sendagile batzuek ere ikusi nahi izaten omen zuten.

Baita Tarancón Kardenala ere joan omen zitzaion gose greba mozteko eskatzera. Moral aldetik ekin omen zion Kardenalak: alegia, biziaren aurka jokatzera ez zela zilegi. Ta berak erantzun:

- “Sabrá Ud., que acaba de responder la Sda. Congregación romana de... (ez naiz oroitzen zein): que el sacrificar la vida por un ideal superior, no ha de considerarse suicidio.”

Ta erabat haserre irten omen zan Kardenala. Baita ere bere lagunak bitartez utzi arazi nahi zioten. Honela, Mariano Gamo'gana joan da Xirinacs'i zerbait esan beharko ziola, lagun ona zenez: alegia, gose greba horrekin bizia arrisku gogorrean jartzen zuela-ta. Eta Gamo'k ala erantzun omen:

- Xirinacs es un buen chico, y sabrá aparcar a tiempo.

Urte honen haseran ekintza bat egin zuen: Franco'ri eskutitz gogor-gogor bat egin zion. Urte Santua delata, onezkoak egiteko eskutitza. Gaxo-etxeko funtzionarioei eraman zien, bear zan lekuraiño iritxi zedin. Berak zionez etzan iritxiko noski bear zan tokira. Baiñan Urte Santuarekin batera, protesta egiñez funtzionario guztiekin moztu zuen eta etzuen berehoriekin htzik ere egiten.

Hori zela ta, egun hartako "kefearen" gela-aurrera joan omen zen protesta eginez, eta handik ez zela kenduko, berak kentzen ez bazuten.

Orduan Miguelito jaunak txapel berezia jantzita esan omen zion:

- Acompañenos.

Eta gelan sartu ta itxita utzi omen zuen.

Berdin, beste bein: rekuento garaia zetorreanean izkutatzen hasi omen zen. Batean, komuneko gela ilun batean ari omen zen "papelera" bat garbitzen. Beste behin goi-goieneko solairuan, elizako atarian eserita omen zegoen, eta ikusten zaila.

Eroarena egiten ibili omen ziren gure preso berezi honen bila, arkitu zuten arte.

Gero ohartu omen zen, jokaera honek beste denei kalte egiten ziola: baita esan ere omen zioten. Izan ere, rekuentoa gauza sakratua da; eta diren guztiak zenbatuak ez badira, norbait falta den seinalea litzateke, eta bitartean denak geldi zain. Horregatik utzi omen zion jokabide horri.

Ni joan eta hurrengo eguna S. Luis eguna zen. Arratsalde erdian zerbait-zerbait bagenuen, edo goxoki batzuek edo... zertxobait jateko.

Etarren gelan geunden, eta han azaldu zitzaigun lekaiame bat. Hizketan zerbait hasi zitzaizkion, eta goxokiren bat eskaini zioten; zerbait hartuz galdetu zuen:

- ¿Qué ocurre? estamos de celebración?

- Sí, claro, que hoy es el día de S. Luis, y es la onomástica de Lluís.

- Ah! ji, ji, ji!

Eta onela Lluísengana hurreratu zen eskua luzatuz. Baina Xiri'k oso fin eta disimulo guztiz, eskuak hautsetan baleuzka bezela beatzak astintzen bezala hasi zen, baina eskurik ez zion eman,

Ni bai harritu. Baina geroago ohartuko nintzen zer gertatzen zen lekameekin: hauek ere funtzionarioak direla; eta hauekin ere harremanik gabe dagoela Xiri.

Egun batez, nere arreba Mariak, ikustaldi batean galdetu zidan ea Paris'ko irratia esan zuena egia al zen: alegia, Xirinacs'ek Aita Santuari eskutitz (ageria) biala ziola. Nik oraindik ezer ez nekien.

Gero Lluís'i galdetu nion:

- Oye, es verdad q. has escrito una carta al Papa? Me acaba de decir mi hermana, como dicho por Radio París.

56. - Pues sí, es verdad. No sabía si la habían publicado, porque hasta ahora ha estado en secreto; pero veo que la han dado a publicidad.

- ¿Tienes alguna copia de la misma?

- Sí la tengo; ¿te interesa leerla?

- Claro q. sí.

- Hay también una explicación o comentario a esa carta, que me la han pedido para la reflexión de las comunidades de base; y la he preparado. Si quieres te la dejaré también.

Utzi zizkigun bi idazkiak, bere eskuz idatziak. Aita Santuari eskutitza maitasunez egina zegoen baina eskakizun handikoa: “exigente y seria.” Bai behartsu izatea, indar gabea, askatasuna...

Beste batean Franco’ri egindako eskutitzaren kopia eskatu genion: eta berdin, eskuz egina utzi zigun. Oso gogorra iruditu zitzaigun eskutitza: Oso giro gozoan idazten dio: gudako ekintzak gogora arazten dizkio, isuritako odola, errua... Zer egin behar duen, onezkoak egin nahi baditu, aderazten dio.

- Es muy fuerte; mucho más que la otra.
- No tiene nada de particular: lo único que hace es decir en público lo que todo el mundo piensa y no se atreve a decir.

Zipitria Xabier.-

Uztaillak 23, gaueko amaikak edo izango ziren. Ni une hartan komunean nengoen; ta komunetik irtetea gure gelan nun ikusten dut, nor ikusiko ta:

- Xabier!!
- Jexux!! Kaixo, Jexux!

Ta besarkada handi bat eman genion elkarri.

- Baiñan, Xabier, zer egiten dek hemen? zer gertatu zaik?

Ura jakin beharra! Dena batera jakin nahi, galdetu ta galdetu aspertu gabe.

Xabier gizajoa, egin zuen homilia bategatik baitu zuten eta ehun milako zigorra eman zioten. Esan zuenez, ni baitu ninduten aste osoan han ibili zuten komisarira joateko deika eta presentatu beharra izan zuen egunero. Ama oso gaiso gertatu zitzaion, operazio sakon bat egin behar zioten ta horregatik aste hartan ez zuten eraman.

Komisarira joaten zenean nere galdera egiten omen zuen: ni han bai nengoen; eta ea ni ikusi ahal nazakean. Jakina, ezezkoa esaten zioten.

Madril’era eraman zutenean, D.G.S.’n ere nere galdera egin omen zuen, baina ez omen zioten tajuzko erantzunik eman.

Xabier illebetea bizi izan zen gurekin Carabanchel’en. Mutil serbitzari jatorra, anai ona, fina. Elkarriketan pozik egon ohi nintzen berarekin: gure bailaraz hitzeginaz, baita bere parroki ta konbentuaz.

Nik ala galdetu nion:

- Xabier, zer moduz gure bailarako Pastoral Astea: gogo onez hasi al dira? edo ezer ba al dakit?
- Ik ez duk ezer jakingo azken-berrietaz. Pastoral Asterik orain ez ospatzea erabaki ditek. Gerorako utzi ditek, udazkenerako.
- Pastoral Asterik ez dala egin behar? zer dela ta?
- I an ez egotekotan, hobe dela gerorako uztea; gainera hobeki prestatu behar direla gauzak, etabar.

Ni harriturik gelditu nintzen; ez nuen uste horrelakorik gertatu behar zuenik. Ni han nengoen pentsatzen: gaur horrelako gaiak ikusiko zituzten... Nola ari ote dira?... Benetan min hartu nuen hori jakindakoa. Nork gauzak martxan jarri udazkenean?

Gainera, ordurako, Gotzain Jaun Dn Jazintori eskutitz bat egin nion: eskuartean neramazkien gauza batzuren berri emanez; eta beste arzipreste bat aukeratzeko eta Arzipreste Batzordeko Idazkaritza beste norbaiti emateko arren da arren eskatuz: alegia, egin behar horiek neri begira ezin litezkela euki.

Hortan ere ez zidaten kasurik egin, eta Dn Jazintok erantzun zidan, askatzen nindutenean nere lan horiekin jarraitu behar nuela.

Xabierrek aste hartan gertatuen berriak eman zizkidan; Setien'en etorrera; igandeko hitzaldia; Setien Trintxerpera etortzea...

Bailareko apaizak nere jokaerarekin nahastuta zeuden, ta haserrexamar.

- Jexux, ik zer deklarazio egin duk polizietan.
- Ba nik nere gain hartu diat erantzupen osoa.
- Baiñan hori zergatik egin duk? Hik bakarrik egindako lana ez uhan hura! Guk denok erantzun behar genian, eta denok espetxuak izan behar genian.
- Bai, Xabier: baiñan, nik ihes egiterik ez neukean; eta zergatik beste batzuek han sarrarazi behar nizkian ba, libratu ahal izanda? Batez ere "Justitia et Pax"eko elkartekideen bila zebiltzean poliziak: eta horiek inondikan ere ez nizkian aipatu nahi.
- Bai, hortan arrazoi duk. Batez ere Joan Mari Artola al den bezela libratu beharrekoa ukek.

...

Eta horrela jardun ginen luzaro.

Jende askorekin harremana izan zuen. Oso alaia ta serbitzari jatorra.

Tankek ala deitzen zion: "Aizak i, Kapu. Dónde está el Capu?" Izan ere, kaputxinoa bait da.

Kirol-lari porrokatua. Basurkorekin futboleak ibilli bear izaten zuen. Oinetakoak berehala puskatu ere bai.

Oso gutxi jaten zuen. Askotan esan ohi zidan:

- Nik uste jan gehiegi bialtzen dutela espetxera. Hau gehiegia duk. Nik, nere gogoz, duguna preso lapur ta horiekin banatuko nitek. Bestela bazirudik guk "kasta" aparte egiten dugula; gu, kanpoko jendeak lagunduak gaituk, gu ez gaudek baztertuak... Hori ez duk pobre izatea.
- Bai, Xabier: arrazoi duk; baina zer nahi duk egitea. Nik etxekoei, Trintxerpekoei, esan ziet, arren eta arren, ezer ez ekartzeko, inor ez etortzeko... Baiñan ikusten duk zer lortu dudan: ezer ez. Etxekoak etorri, pakete ikaragarriak neretzat erosi, gastu handiak egin... Hemen erdi-hilik ba geunde bezala. Baina, jendeak ere nolabait agertu nahi dik, ikusten denez, guganako onginahia ta bestela ezin ta horrela agertzen dik.
Azkenik esan ziet Trintxerpekoei, ez dietela gehiago horrelakorik esango; egiten didaten on guztia esker onez ta xinpletasunez onartzea erabaki dudala.
- Bai, bai: konforme. Baiñan neri kezka hori ez zaidak joaten...
Xabierrek gure gelako gastuak eramaten zituen.

Madalena egunean libratu zuten. Egun hartan, azpitik eta gainetik, lehenengo egunean kendu zioten radioa guretzat utzi nahi zigun. Baita lortu ere. Funtzionarioa norabait joan beharrean gertatu omen zen eta toxiko bati eman omen zion esanaz:

-Llévales esto a los curas.

Ordu ezkeror irratia gurekin izan genuen, ta ni aterata ere han gelditu zitzaien.

Basurko Joan Manuel:

Uztaillak, 26, gauean afalondoren gure gelara igo ginenean, politikuen gelan ikusi nuen gure Joan Manuel, Tanke ta Larrearekin hitzegiten.

Nik ez nuen ezaguna; bear bada behin edo behin elkar ikusiko genuen Donostin, baina ez nuen ezaguna; bere bi anaiak bai oso ezagunak. Juan Manuel urte batzuetan Ameriketara mixiolari izana da, ta orain Segura'n bizi da.

Ikusi nuen euskeraz hitzegiten ari zela ta noizbait ohartu nintzen nor zen; horrela egin nion agurra ta ongietorria ez zen oso beroa izan. Baina pixkabana elkar ezagutzen joango ginen.

Gure Juan Manuel'ek lehenengo egunetan asko hitzegiten zuen: oso kontulari atsegina da, batez ere Ameriketako esperientzia adierazi nahi zigunean.

Oraingoan, Iruña, Bilbo, Gasteiz eta Donostiako zenbait apaizen artean prestatutako homilia bat irakurri zuen bere parrokiari: homilia hori "estado de excepción" deritzan egoeraz zen. Ta ehun milako zigorra eman zioten. Goiz hartan lanean ari zen tailerrera joan zitzaizkion poliziak, eta baitu egin zuten eta, multa ordaindu ezean, Madrillera eramane zuten. Lehen DGS'ra, eta handik berehala Carabanchel'era.

Gau hartan ez zuen ohera joateko presarik. Ameriketako berri eman nahi zigun, baita ere Martxelino'ren karrozeriko bere lanaren berri... Beste egun batzuetan oso ixilik egon ohi zen. Ta berak aurretik esan zigun: "Neri isilik egoteak heltzen badit, ixilik egoten bazekiat." Baina nik han ikusi dudanetan, ia beti, adiskidetasunerako gogotsu, kirolari (futbolari) ta elkarriketarako trebe aurkitu dut.

Gau batean oheraturik geunden, berrikeria ari ginen. Bost bizi ginen gure gelan; ordurako Manuel Ramos gurekin genuen. Gure elkarriketa Lasa Jon'i gertatutakoaz izan zen. Eta erderaz ari ginen.

Basurko: - Y ¿quién es ese Lasa?

Guk: - Es un capuchino. Donostiko konbentuan zegoen. Ha pasado recientemente por un Consejo de Guerra en Burgos. Le han condenado a 12 años.

Basurko: - ¿A doce años? ¡No jodas! ¿Doce años? ¿Y de qué le acusan?

Zipitria: - Le acusan de haber guardado explosivos que por lo visto tenía un chico de su club y asustado le pidió que se lo guardase...

Ahal zuen detaile gehienez agertu zigun gertatua. Ta denok errikuturik geunden Jon'i ondoren etorri zaizkion gaitzekin: adiskide fina denez eta maitagarri zaigu. Baina batez ere Basurko zegon erabat lur jota horrelako zigorra eman ziotelako.

- ¡Pobre hombre! ¡Doce años! Y qué sabes de él ahora?

Zipitria: - Está en S. Lucar de Barrameda. Lo llevaron allí.

Basurko: - ¿Y qué tal está él?

Zipitria: - Pues parece q. está bien. Badakik, oso jatorra duk eta... Se lleva bien con la gente...

Basurko: - Y qué hace? le dejan hacer algo o estudiar o alguna cosa?

Zipitria: - Sí, claro que le dejan hacer! No creo que estudie. Él es músico, toca la guitarra...

Basurko: - ¿Tiene guitarra y todo? Pues hace falta optimismo y humor para ello! ¿Y no estudia?

Zipitria: - Pues no creo. Es que tiene mucho trabajo: ha formado un coro, se relaciona con mucha gente...

Basurko: - Y ¿le dejan formar un coro? ¿Ya dejan esas cosas en la cárcel?

- Zipitria: - Ez, motell, kartzelan ez zegok. Está en un convento de capuchinos de S. Lucar de Barrameda, y como es parroquia, atiende a la gente de la parroquia...
- Basurko: - ¡Ah! O sea que no está en la cárcel? Está en un convento?

Ta hor jeikitzen zaigu gure gizona suak hartuta, horrenbeste denboran beharrik ez zeukan gizon bat errukitzen jardun zelako.

- Haberlo dicho! ¡Vaya pendengada! Si yo creía que estaba en la cárcel...
¡Bueno, bueno! Así que, si está en el convento es un privilegio!

Etzan gure mutila berealakoan bere onera etorri; baina guk algara ederrik egin genuen, Joan Manuel-en jeupada ikusita. Ohea gutxitxo zuen eta jeiki beharra izan zuen.

Etarrekin harreman handia zuen, eta ordu luzeak igaro ohi zituen haien gelan.

Liburu asko bidali zizkieten, ta guztiontzat mesede ederra izan zen.

Ameriketako literatura ta abestiak oso gogoko zituen. Oraindik ikusten nago bi bersoak zabalik dearkada gauean:

“Y volver, volver, volver
a tus brazos otra vez;
quiero volver, volver, volver!”

Lehenen bera eraman zuten behin Juzgadura, “a las “Salesas” esaten zuten madriltarrek, eta funtzionarioek: “Prepárese para diligencias.”

Goiz hartan ez zegoen oso lasai Basurko. Baina uste baino goizago berriro bihurtu zen Carabanchelera. Eguerdia hartan Setien Joxe Mari jauna joan zitzaigun ikustaldi bat egitera. Ordubete edo egin genuen Sub-diretorearen gelan. Guk bukatu baino lehenago han azaldu zen Basurko.

Arratsalde batean nahiko iskanbila izan zen Teresa lekaimearekin. Monja hori nunbait norbaiten bila zebilen eta norbaitek laguntzea nahi dei hori egiteko, ta gure Basurko parean egokitu.

- Oiga, cómo se llama Ud.? galdetu omen zion aginpidez ta arrokeriz.
- Dígame por quién quiere llamar y ya le llamo yo.
- Le he preguntado q. cómo se llama Ud.
- No tengo por q. responderle a Ud. cómo me llamo.

Honela eztabaidan jardun omen ziren. Bitartean ingurutik Sales, Cruz Ibérica’ko lapur presoak igaro omen zen, eta ari monjak laguntza eskatu.

Sales’ek ere aleginak egin omen zituen monjaren alde:

- Y ¡por qué no le va a decir su nombre? Eso es ser un estúpido!

Honela apartatu omen ziren batzuek eta besteak haserre. Basurko bere gelara joan, ta berriro monja hori etorri omen zitzaion esanaz:

- Venga Ud. conmigo.
- Yo no tengo por qué ir a ningún sitio.
- Le he dicho q. venga conmigo.

- Yo estoy en mi casa. No tengo porqué irme a ninguna parte.

Hala, geroztik, nunbait iskanbila entzunda edo Sales’ek deituta edo, funtzionarioa azaldu omen zen ta zer gertatu zen galdetu.

- No ha pasado nada. Mire Ud., esa monja no es quién para mandarme a mí nada. Ud. sí: Ud. me llama a mí y yo voy, sé que tengo que ir. Y conste que a mí nadie me llama estúpido, como me ha llamado el Sales ese...

- Bueno, bueno! No pasa nada.
Guk bai gero Basurkori ilea hartu:
- Aizak Joan Manuel: baina nolatan esan diok “que yo estoy en mi casa”? Hori gogorra egin dek horratik!
Eta berak ere parre egiten zuen.

Xabier Zipitria atera behar zuen egunean komeri pixka bat ere ibili genuen.
Goiz hartan bertan erantzun zion Direktoreak Basurkori esanaz illaren 25'an
“quedará Ud. retenido en prisión preventiva.”

Xavier funtzionarioagana joana zan katxtoa egitera. Halako batean deitu zion:

- Aizak, Xavier: nere anaiari deitu ezaiok Santiago egunean ez etortzeko esanez. Que quedo retenido. Llámale a mi hermano Javier...

67. Bitartean funtzionario gaztea Zipitriari deika:

- A ver, Zipitria, pronto ya.
Basurkok: - Oye, espera un poco, q. esto es serio.
Funtz.: - Sí pero que le están esperando.
Basurkok: - Oye, oye, que esto no es un cachondeo.
Funtzion.: - Oye, que no me estoy cachondeando.

Azkenik, Santio eguna iritxi zen. Goiz goizetik leiotik begiratu ta Basurko'ren lagunak ikusi genituen: Zubelzu, Aldanondo, ta bi emakume, bat Basurkoren arreba.

Ikusi orduko, nerbiooso jarri ginen.

- “Baina, nolatan etorri dira? Zipitriak ez ote die esan ez etortzeko?
- Bai, motell, esango zieten. Ea propio etorri diren, zer gertatzen den jakitearren.

Joan Manuel, beti bezela bi eskuak patrikan sartuta balantzaka bi aldeetara han zebilen, zer egin ez zekiela, ta gu ere bere antzera zer egin jakin gabe.

Halako batean esan genion:

- Aizak, Basurko: joan adi jefearengana ta galdeiok ateratzeko eskubiderik badeken, edo Gotzaiak i juzgatzeko baimena ukatu duen ala zertan dagon ire auzia...

Joan zan jefearengana, ta handik aldi batera D. Evaristo, kapellaua, hor etorri zen gure gelara Basurkoren bila ta esanaz:

- Si tú no tienes por qué quedar retenido! Yo no he visto nada q. indique tal cosa.
- Pero, mira, Evaristo: es q. a mí me respondieron esto por escrito.
- Ya voy a mirar de nuevo, pero me parece q. contigo se han equivocado. Tráeme esa instancia.

Hala joan zen gure Evaristo hori, ta itxaropen pixka bat sortu zitzaigun. Ea arrazoi zuen Evaristok!

Andik pixka batera, funtzionarioa etorri zen esanez: - Prepare Ud. sus cosas, q. se marcha en libertad.

Etzan orduntxe haserre gure gizona. Berehalaxe prestatu zituen liburu ta arropa, ta hala irten zen Santio egunean, hutsune handia uzten zigula.

Manuel Ramos Sánchez.-

Ekainak 30, arratsalde erdian, jan gelan nengoen beste presoekin batera, ta gizon gazte bat, luzea, medarra, bigote beltz eta ile luzea, betaurreko ta guzti.

- Aquí tiene a un colega suyo; esan zidan funtzionari batek.
- ¿Tú eres cura?
- Sí lo soy.

69. Madrillen, Vallecas herrian bizi zen. Bera Guadalajara'n jaioa zen, baina gaztetandik, apaizgai zela Madril'ko Apaizgaitegira joana.

Apaiztu ondoren Segovia'n Palenzuela Gotzaiaren idazkari eta laguntzaile izan zen. D. Antoniok berarekin eraman zuen ta oso lagun onak izan omen ziren. Manolo'k oso ongi hitzegiten zuen D. Antoniotzaz: haren liburutegia guztiz interesgarria, gizon argia, burutsua. Segovia'ko apaizen giroa txarra zela, oso atzerakoiak: aurrerakoiena Gotzaia bera zela, ta bere asmoak bertako apaizen artean oihartzunik ez zutela.

Manolo, esan oi zuenez, gauza askotan sartzen omen zen Segoviako arazoetan: apaizekin harreman handia zuela eta askok ongi nahi ziotela: "Asamblea conjunta" rako apaizen ordezkari aukeratua izan omen zen.

Azkenik, erabat aspertuta, ta ikasteko gogoz Madrillera joan zen. Unibertsitatean 'Filosofía y Letras' ikasten ari zen, Historia gaia. Era berean parroki batean apaiz laguntzaile zen. Urte gogorra eraman omen zuen: bi karrera batera zeramatzan, eta ongi gainera, ta parroki lana bestetik, erabat nekaturik zegoen. Udan opor luze-samarrak egiteko asmoak omen zituen; eta hara nun, uste ez zituen bi hilabeteko oporrak eman zizkieten: 300.milla laurleko (pta.)

Bi egun DGS'n egin omen zituen, goiko gelan, aulki batean eserita, oerik gabe.

FRAP'eko mutil batek bere izena eman omen zuen. "El Cura Manolo" zelakoak billerak egiteko baimena eman omen ziela, eta pistolak ere parrokiko gelan gorde zituela.

-Desde luego, a ese chaval, al tal Mauricio, cuando lo coja por la calle, le voy a dar dos ostias que se acordará toda su vida, ¡No te jode!

Horiek izan ziren lehenengoetako hitzak, Manolo-ren ahotik entzun nituenak. Ni bai harritu apaiz bati horrelako hitzak entzuteaz. Geroago, pixkabana, nere belarriak ere ohitzen joango ziren.

Geroztik, ilea hartuz askotan esan diot Manolo'ri:

- No quisiera sino verte desde un agujerito en el momento en que le arreas las dos ostias al Mauricio. Tú no eres capaz de ello. Ta berak parre egiten zuen. Gure gelan bizi izan zen. Bere parrokiko lagun maiteak (Caroli ta beste batzuek) izara berri batzuek bidali zizkieten. Baita eten gabe paketeak.

Ikusten zenez, bere parrokiko jendeak maite zuen, eta mutiko horrek egin zion kalteak jendeari min eman zion. Gaiñera gauza argia izan behar zuen Manolo'k tald horrekin zer ikusirik ez zuela.

Baina Juzgadu'tik eman zioten orrian hala jartzen zuen: "colaboración a asociación".

Egun hartan oso haserre etorri zitzaigun Juzgadutik, eta ez zen gutxiotako,

Juezak Tarankon'i epai-auziari hasera emateko baimena eskatu, ta Gotzaitegitik baimena eman ziotela, baiñan Tarancon'en firmarik gabe. Ta jueza ere haserre omen zegoen:

- Aunque yo sea un humilde juez, creo que me merezco una respuesta del Cardenal; pero como es un orgulloso, no se ha dignado escribirme. Además añaden, en la carta de concesión de permiso, que padece Ud. alguna enfermedad mental, y pide que se tenga esto en cuenta como atenuante.

- ¿Que padezco una enfermedad mental? Eso no lo admito. Sr. Juez, estoy cursando estudios universitarios con sobresalientes; puede Ud. comprobarlo. No lo admito como atenuante, sino que lo considero como un insulto...

Arratsalde hartan ez zeukan bazkari beharrik; zigarroa erre ta erre eta hitzegin gelditu gabe. Baimena nolatan eman ote zuten? Patino'ren lana ote zen, edo Estepa'rena...?

Garai hartan Iniesta kanpoan zebilen oporretan, ta bere laguntzarik ez zuen izan abuztu arte. Horren pena handia izan zuen.

Arratsalde hartan Xirinacs'ek, politikuen gelan denok bildurik, Manolo paketzen nahiko lanak izan zituen. Tarancon'en aurka ezer egin baino lehen, errudun nor zen jakitea on zela, esaten zion.

Geroago berriro Juzgadura eraman zuten. Mauricio mutiko harekin aurrez aurre hitzegin ahal izateko. Celular-coche berdinean joan omen ziren biak eta alkarrekin hitzegiteko nahiko modua izan omen zuten.

Hamasei urteko mutil horrek, halako zigorra hartzen ari zela, nolabait libratzearren Manoloren izena eman omen zuen.

Santiago Del Pino.-

Madrilgo Moratalaz auzoan lanean ari den apaiza. Uztaila'k 26 gure espetxera eraman zuten.

Alkar ikusi genuenean bereala aurpegiz ezagutu genuen batak bestea.

- Uy! ¿Qué haces tú por aquí?
- Y tú?

Aurreko udaran Katekesi ikastaldia Madrilgo Aravaca'n egin genuenean, Santi ta ni taldetako zuzentzaille (monitore) beste batzuekin izan ginen.

Bata bestearen berri berehala eman genion.

Mutil hau Santiago egunez Mariano Gamoren parrokira joan zen, haren ordeiz Meza ematera. Ta hango hitzaldian Españiko Katolikotasun kaxkarra azaldu zuen, nunbait, eta Garmendia ta Otaegi erailko ote zituzten zegon bildurra, ta erailtzearen burugabekeria.

Bi hllabeteko espetxea eman zioten -300 milla pta.-. Elkarrekin ia bi hilabete horiek egin genituen; bera ni baino geroxeago aterako zen espetxetik. Elkarriketa onak izan genituen: benetan eta fin jokatzten ari zen mutila zirudien.

Parrokian zegoen, baina era berean goizetik fruta-merkatu batean lan egiten zuen.

Mariano Gamoren jokabidearekin oso pozik zegoen; Zamorako espetxetik irten zenean oso jota gelditu omen zen. Baina kristau heziketa aldetik bide sakona eta serioa aurkitu zuela, eta parrokian oso gogoz ari zela jokatzten.

Berari Gamoren izakera ta jokabidea Xirinacs'ena baiño gehiago gustatzen zitzaion. Xirinacs etzuela ezagutzen aitortzen zuen, baina bere galdera hori izan ohi zen:

- “¿Qué pretende Xiri con esta postura de sus huelgas de hambre? No me parece un hombre enraizado en el pueblo; no creo que el pueblo pueda entender su gesto. Me parece una bandera casi vacía para el pueblo.

No sé, no entiendo bien lo que Xiri quiere. En cambio, creo q. la postura de Mariano y su persona es más cercana al pueblo y de más contenido.”

Gero ta gehiago ohartu nintzen geroxeago sartu ziren apaiztaldearekin adiskide handia zela, baina bestelakoa zela: beste sakontasun bat ikusten nion. Inungo

esparik gabe, parrez-parrez, batzuekin eta besteekin hitzeginez, eta asko irakurriz eta ikusiz.

-“Tengo que aprovechar bien el tiempo ahora para leer y estudiar algunas cosas sobre teología, cristianos por el socialismo, etc. Que después no me queda tiempo para nada.”

Bera izatez Leon’goa zen, eta La Bañeza’ko Seminarioan irakasle izana zen; baina handik irten beharra izan zuen, ta azken urte hauetan Madrillen ari zen. Apaiz gaztea, baina bere gaztesunean esperientzi ugaria zeramana.

Madrilgo apaiz taldea.-

Uztailaren azkenaldera apaiz taldetxo bat espetxetua izan zen: ez denak batera baizik banaka. Orain bi urte, Zamora’ko espetxeko apaizen egoera zelata, Madrilgo Seminarioan batzarra egin zuten apaiztalde handiak. Batzuei, ordea, zigorra eman zien: 25 milla laurleko: 15 eguneko espetxea.

- Iturgaitz Xavier: Asunziotarra, naparra izatez. Vallecas herriko “Dulce Nombre”ko parrokia. Alberto Iniesta bere parrokian ta bere etxean bizi da.

75. - José Manuel Calzada.- Jesulaguna. Palentziako semea, baiñan Madrillen Kristau Elkarte batean bizi da. Kazetaria.

- Juan Carmelo Garcia.- Domingotarren nagusia (prior) izana. Bere lana atzeratutako herrietaz arduratzea zen. “Desarrollo y Evangelización” (?).

- Camacho,. (El abuelo). Ikusten denez beste horiek baiño urte geixeago zituen. Bere izakera edo esakeragatik edo... aitona deitzen zioten. Hau ere lanean ari zen.

- Julio Lois.- Irakaslea. Madrilgo Pastoral Ikastetxean irakasle zen. Oso fina zirudien. Eta besteak ziotenez, berak ematen zituen ikasgaiak oso gogotsu onartuak omen ziren.

Talde honetatik, lehenengo biak, Iturgaitz eta Calzada gure gelan gelditu ziren: Ramos, Erasmo ta nerekin.

Baina gela bat etzan naikoa apaizentzat, eta beste bat horretarako jarri beharra izan zuten: 22’gna. An sartu ziren: Del Pino, García, Camacho ta Lois.

Izenak ere gure gelei jarri genizkien: gureari Medellín; 22’gnari Vaticano II, eta 21’gna Eta’rena.

Apaiz talde hau, esan dudanez, Madrilen ari zen, baina denak beste probintzietakoak ziren: han jaiotakorik ez zen espetxean azaldu ni egon nintzen aldian. Baina hauek denak bazuten halako giro berezi bat. Berehala hasi ziren zerbait egin behar zela adierazten. Guk ez genien uste handiarekin begiratu: izan ere hamabost eguneko bakarrik joan ziren espetxera, ta haientzat hango egoera jolasa bezela zeritzaigun. Neronek ere behin baino gehiagotan esan nien bromaz: “¡Estos aprendices de cárcel!” Berehala konturatzen ginen han zeuden etarrak gu guztiokatik horixe bera esango zutela.

Apaiz talde berri hori hasi zen bada Mezaren galdera egiten.

- Ya que estamos un grupo de 10 sacerdotes, ¿por qué no celebramos la Eucaristía?

Nik neronek, espetxeratuta berehala, Erasmoni horrelako zerbait galdetu nion. Orduan heuren artean zerabilkiten ohitura eta asmoa agertu zidaten: alegia, Eukaristía ospatzekotan gelan, geure artean egokia izango zela:

- A, jakina! Hementxe gure artean!
- Bai, baina, ardoa nun daukak?
- Ha, egia!

Ta burua makurtu beharra zegoen. Gaixoetxea zenez, ardo ta alkohol guztia debekatua zegoenez, ardoa eskatu beharra geneukan: eta baimena eskatzen bagenuen, bagenekien erantzuna: Eliza hortarako zegola, ta funtzionariak lagunduko zigula.

Hori horrela izatekotan, espetxeko ekintza ofiziala bezala Eukaristía ospatzekotan,, nahiago zuten ez ospatu. Eta igandez beste kristauak bezelaxe elizara joaten ziren apaizak eta Dn Ebaristok, kapeilauak, emandako Meza entzuten zuten.

Pentsakera hori nik ere onartu nuen, eta horrela igandez, 10'tan, Meza'ra joaten ginen: goi-goieneko mailan zegon elizatzora.

	+	IIII	
		<i>Funtzionarioak</i>	
----	I	----	
----	I	----	
----	I	----	
----	I	----	
ANDREAK	I	GIZONAK	
		sakristia	

Eliza bitan zatitua: andreak eta gizonak alkar ez ikusteko eran. Direktorea eta funtzionario batzuek sartzen zirenean, presoak zutik jartzen ziren: gu apaizok ez.

Orduan Dn Evaristo sakristitik irten ta Meza hasten zuen.

Sales'ek irakurgaien bat beti egin behar izaten zuen. Batzuetan beste batek ere laguntzen zion.

Behin Ebaristoren ordeztu beste apaiz bat joan zen Meza ematera. Irakurgai garaia etorri zenean, apaiza eseri zen, eta iñor ez zijoan irakurgaiak egitera. Halako batean, Sales hori jaiki ta badijoa; baina gero ohartu ginenez, baita ere emakume edo lekaima bat ere mugitu zen. Orduan, askotan gertatu oi denez, biak atzera egin zuten: zalantzako unea. Baina zalantzatik sub-direktoreak atera zuen gozoki esanaz:

- Sube, Francisco, y lee. Sales hori preso bat zen. Leenago zerbait esan dut.

Homilia egitekoan On Ebaristo gizon abila zen: hitz asko esan, zerbait garrantzizkoa esateko giroa sortzen bazekien: Liburu Santuetan jakintsua zen. Baina han aurrean zeukan taldeari zerbait benetakoa esaterakoan, saihetsetik zijoan beharrezko hitzik esan gabe. Besteei ere horrelako zerbait gertatzen zaigu askotan.

Mezara aitonak joaten ziren ta batzuek Jaunartu ere bai; sasoiko preso batzuek baita gazte batzuek ere joaten ziren.

Erasmo eta Xabier eta ni askotan gai hortaz jarduten ginen:

- Hauek zergatik etortzen ote dira Mezara?
- Batzuek, gure ustez, emakumeen ahotsa entzutearren: emakumerik ezin genuen ikusi, baina abestean entzuten genien: ta hori, han preso artean egon ohi den emakume gosearekin, ez litzateke harritzekoa ori.
- Batzuek, behar bada kapeilau eta funtzionarien aurrean ongi gelditzearren ere, joaten zirenak izango ziren.
- Baita ere, nik uste, kontzientziak aginduta edo eskatuta ere batzuek,noski, bai.

Igandetan, Julito, Erasmo, Xabier ta ni joaten ginen Mezara. Ramos igande batean joan zen baina gehiago ez.

Mezari buruz gauzak horrela egonik, apaiz talde berri honek galdera hori egin zuen, ta gure jokaera agertu genien.

Orduan haiek kementsu ekin zioten, Meza emateko eskubidea lortu behar genuela, alegia. Horretarako orri bat bete zuten “instancia” deritzaion eskabidea eginez, bat denen izenean.

-Lo tienen que hacer individual.

Izan ere elkarturik egiten den edozer “motin” edo iraultza bezela jo lezakete.

Bakoitzak orri bat bete genuen: denok berdin: batek esan ta denok kopiatu:

“Siento necesidad de vivir y expresar mi fe. Pido poder celebrar la Eucaristía con mis compañeros, y todo lo necesario para ello.” Horrelako zerbait.

Erantzuna ere etorri zitzaigun bakoitzari:

“Podrá Ud. celebrar la Eucaristía todas las tardes, en la capilla del Hospital, acompañado por el funcionario correspondiente. De esta manera podrá Ud. satisfacer sus necesidades espirituales.”

Uste dut denoi berdintsu erantzun zigula.

Hori larunbatez gertatu zen: zelataria gurekin eliz barruan baldin bazegoen gu zaintzen, bialdu beharra eukiko genuen: guk bakarrik ospatuko genuen gure Eukaristía. Zelataria han egoteak espetxeko ekintza ofizial kutsua emango zion; ta hori inondik ere ez genuen nahi.

Nik pentsatzen nuen, baita batzuei esan ere: “Ez nindukek harrituko igande honetan Meza gabe gelditzeaz”. Arratsaldeko seirak edo izango ziren. Zelatari buruari esan genion gure Meza emateko gogoia, ta zelatariak lagundu zигun elizatzora.

Zelatari hori edade puska batekoa zen: gizon ona zirudien. “Cursillos de Cristiandad” deritzan taldeetakoa zen. Manolo Ramos’i horrengatik esaten genion: “Ahí está tu feligrés.” Izan ere Manolorekin harremana bazuen, bera ere Vallecás’tarra zenez.

Gizon horri gurekin etortzea tokatu zitzaiola ikustean, Xirinacs’ek hala zion: “Ya me fastidia que le haya tocado a éste el primero: porque es un buen hombre y se va a llevar un disgusto.”

Elizatzora sartzearekin, zelataria ere gurekin sartu zen ta bereala Santiago eta Manolok mesedez kanpora ateratzeko esan zioten:

- “Ud. comprenderá que no es por su persona, sino por lo que Ud, representa: nos interesa que sea un acto religioso y nuestro; y no un acto oficial de la cárcel.”

- Sí, ya comprendo: no quiero molestarles. Pero hoy no he oído Misa; y les parecerá mal que esté fuera de la capilla con la puerta abierta oyéndola desde allí?

- Bien, de acuerdo.

Espetxeko lekaimeak ere azaldu ziren baina, haiek ere uxatu genituen.

Egun hartako Meza Erasmo’k eman zuen: hamar apaizok Eukaristi hartara joan ginen. Elkarteko Meza hartan Erasmo buru, izan ere laister espetxetik atera behar zuen, ta bere azken agurra bezela egin genuen.

Geroztik, aste egun batzuetan ere elkarteko Meza ospatu genuen. Gauza hauek gogoan dauzkatz:

- Irakurgai ondoren elkarrizketa egin ohi genuen, denok aldare inguruan. Madrildar apaiz horiek oso beroak ziren, eta beti bere iraultza, politika, langileak, Elizaren aldatu beharra, etb. zituzten gai. Meza horietan nik neronek konplejo pixka bat baneukan.
- Xirinacs'ek ez zigun inoiz Eukaristi batzarburu egin. Baina bere hitza ona izan ohi zen. Bitan berak irakurri zuen Berri Oneko irakurgaia. Baiñan Xiri'k irakurtzeko era, besteetatik ezberdina zen: gizon harek benetan sinisten zuen. Idazteuna liburu berezia dela eta han Jauna hitzegiten ari zaigula. Hari entzuteak neri on handia egiten zidan.
- Egun batean, asteguna, norbaiten agurra genuen: eta taldeak Eukaristia ospatu nahi zuen. Nik, ordea, ez neukan halako gogorik, eta Manolo ta biok arratsaldekoa (merienda) gertutzen gelditu ginen. Arratsalde hartan elizatzora lagundu zien zelataria Don Manuel izan zen. Zelatari-buru horrek, nahiz eta gizon argia eta patxarakoa izan, esan zutenez, elizara, taldearen Meza horretara, ez sartzeko edo irtetzeko esan ziotenean, oso bizi-ero ta mindurik hala erantzun omen zuen: “¿Apesta los funcionarios o qué es lo que pasa?”

Eta betiko erantzuna. Baiñan taldeari horrelako ateraldiak etzion onik egin. Hala ta guztiz ere egun horretan eta beste zenbait egunetan Meza ospatu genuen.

Baina geroago, taldea gutxitzen hasi zela ta berri batzuek azaldu, zelatari batzuekin honela gogo txarretik jardun beharra geneukeala-ta, honela Meza emateko behar bezelako patxadarik ez genuelako, elkarteko Meza nik utzi egin nuen. Santiagori esan nion zer gertatzen zitzaidan eta igandetan beste presoekin batean Mezara joango nintzela. Berak ere horixe bera gertatzen zitzaiola esan zuen eta nahiago zuela elkarteko Meza utzi. Eta hala egin genuen. Nere azkeneko bi asteak ziren.

TELEGRAMA AUZIA.-

Iniesta Alberto, gotzain Laguntzailea, Madriltar-Vallecas'ko apaizak ikustatzera astean behin joaten zitzaien. Pozik zeuden berarekin. Baina bera ere oporretara joana zen aldi baterako.

Bitartean Manolo Ramos'en auzia okertzen ari zen. Epaitzeko baimena Tarancón'ek eman egin zuen. Baina baimena ez zegoela Gotzaiak izenpetua baizik bere idazkari Patiño'k.

Horrek denoi su eman zigun eta Tarancón'i deitu behar zitzaiola lehenbait lehen azaltzeko, espetxeko apaizok berarekin hitzegin nahi genuela-ta. Orduan Tarancón'i telegrama bat bidaltzea erabaki genuen. Telegrama horrek berekin korapilo batzuk ekarri zituen.

Idatzi genuen gure telegrama, eta berehala zelatariak, zuzendariaren izenean, ezin zitekeela bidali esan zigun: beste modu batera egiteko. Beste erara idatzi genuen, eta berriro ezezkoa.

Orduan zuzendariari berak idazteko behar zen bezela esan genion; guk Tarancon etortzea nahi genuela, alegia. Erantzuna: telegramarik ez bidaltzeko: nahi bagenuen eskutitza bidaltzeko.

Horrek erabat nahigabetu gintuen: izan ere, preso dagona eskubiderik gabe dago, baina legeak ematen dizkion eskubide apurrak ezin ba bazterrera utzi. Eta telegrama idazteko eskubidea legeak ematen zigun.

Berehala gu apaizok berriro bildu ginen –bolara hura bilera ugarizko bolara izan genuen- eta oso haserre geunden zuzendariaren aurka. Ta zer protesta egin asmatzen jardun genuen.

Azkenik, gure erabakia hau izan zen: “Ez gera jan gelara jaitxiko eta bazkaria geuron gelara igo dezaigutela eskatzen dugu.” Horretarako lehenagotik toxiko gazteekin hitzegin genuen, eta janaria pozik igoko zigutela hori egiten bagenun eta uzte bazieten.

Baina ez zieten utzi, eta eguerdi hartan bazkaltzera ez ginen jaitxi eta bazkari gabe gelditu ginen.

Zuzendaria guregana etorri ta apaiz denok gela batean, 22’gnea., bildu gintuen. Hitzegin zigun pake bideak egin nahirik. Ezagutzen zuen behar bada berak ere oker jokatu izatea baleikela, baina hori guztia ahaztu, eta ezer gertatu ez balitz bezela hasi behar genuela. Eta proposamen hau egin zigun: “Desde luego, la vía del telegrama la vamos a dejar a un lado: pueden escribirle al Cardenal una carta y yo entiendo entonces que no ha pasado nada. Piénsenlo Uds. y ya me comunicarán lo que decidan”.

Bakarrik gelditu ginen eta gure artean hitzegin genuen: ez ginen oso pozik gelditu zuzendariaren proposamenarekin. Orduan zenbait iritzi artean hau ere izan zen:

“Vamos a proponerle una negociación, llegando a medio camino ambos: el Director tiene que salvar el principio de autoridad; pero nosotros no podemos dejarnos pisar en nuestro derecho. Entonces, nosotros haremos el plante y Ud. nos encerrará en celdas. Pero nosotros nos comprometemos a dejar el plante a los dos días si Ud. se compromete a no encerrarnos por más tiempo.”

Proposamen au onartu genuen, eta erantzun hori eman zitzaion Zuzendariari.

Bitartean gu zain ta zain geunden, ea zuzendariak zer erantzuten zuen. Baina bazkaldu gabe. Xiri’k esan zigun: - Voy a pedirles a los funcionarios que nos suban la comida.

Irten da handik alditxo batera berriro etorri zen ta gertatua esan zigun:

- “Me he puesto en el pasillo, delante de la puerta del Jefe de servicios. Me ha preguntado que a ver qué quería. Y yo por toda respuesta le he hecho con la mano la seña de querer comer.

Se ha puesto todo nervioso y me ha dicho que “haber bajado al comedor, allí ya tenían Uds. comida!”

Me he dado la media vuelta y me he venido.”

Denok parrez jarri gintuen, bere sinu hori zelatariaren aurrean nolakoa ote zen pentsatuaz.

Halako batean zelatari bat etorri zen eta bakoitza gure gelara joan behar genuela esan zigun.

Siesta garaian geuden oraindik eta gure geletan atea itxita utzi gintuen. Orduan pentsatu genuen:

“Ahora nos dejarán encerrados. Pero si no nos meten en celdas individuales, vaya bien! Vamos a jugar al mus”.

Zerbait jan genuen orduan gure gelan.

Xirinacs oso haserre joan zen bere gelara, bakarrik. Aurretik esan zigun:

- Si no nos traen la comida, y nos la empalman con la cena, cuando me la traigan a la celda soy capaz de tirar al suelo con plato y todo.

- Xiri, Xiri: no hagas eso. No armes más líos.

Erantzun genion guk.

Siesta bukatu zenean, zelataria etorri ta bakoitza bakarkako geletan sartu bear genduela esan zigun. Bakoitzak gure gauzak jasotzeko.

Gure gelan Manolo gelditu zen; gainerakoak pasiloaren beste muturreko gelatara eraman gintuen, eta han itxita gelditu ginen.

Berehala Donostiko Komisariako egunak gogoratu zitzaizkidan. Baina alde ederra bai. Nere gela berri hontan leio ederra banuen, ta leiotik arboldegia ta bide nagusia ere ikusten nuen. Liburuak ere baneuzkan.

Irakurri, ikasi, otoitz egin, lo, jan, garbitu... Jana toxikoak eramaten ziguten: nahikoa. Batzuetan oso gustagarria ez. Beti ematen ziguten bezelakoa.

Orduan, zelatariarekin joaten ziren mutil haiek eta hitzegiteko astirik ez genuen izaten. Bakarrik irriparez agurra egiten ziguten ta begiarekin kiñu ere bai.

Sartu gintuzten eguna osteguna zen. Denok erabaki bat hartu genuen: larunbat arratsaldean denok zelatariaari esan behar genion: “Yo termino mi plante, y deseo que se lo comuniqué así al Sr. Director.”

Larunbat eguerdin zelataria etorri zitzaidan esanez: “El Sr. Cardenal les va a recibir y prepárense.”

Atera ginen gure gelatik eta bata besteari besarkada eman genion. Baina Gotzainagana ginjoazela, Madrildarrak bakarrik hartuko zituela, ez besteak. Onela Xirinacs eta ni gelditu ginen joan gabe: gu ez omen ginen elizbarruti hartako apaizak-eta...

Horrekin ni ez nintzen asko haserretu: ez neukan berarekin egoteko gogo gehiegi.

Beste horiek Tarancon'ekin zeuden bitartean neri atea irikita utzi zidaten. Orduan dutxatzeko baimena eskatu nion zelatariari, baita eman ere. Gero etorri ziren gure apaiz horiek, eta oso pozik; nik Calzadarekin bakarrik hitzegi nuen.

- Qué tal la entrevista, José Manuel?
- Muy buena! Nos hemos quedado muy contentos.
- ¿De veras?
- Sí, sí: nos ha escuchado bien, ha reconocido su fallo que tratará de corregirlo; le hemos hablado de la Vicaría de Vallecas, de los sacerdotes obreros... Nos ha prometido una nueva reunión cuando salgamos de aquí...

Berriro gure gelatan itxi gintuzten.

Hantxen irakurri nuen hainbat on egin zidan J. Girardi'ren liburua “Cristianismo y liberación humana”.

Igandean ere gelan jarraitu genuen, nahiz eta larunbatean gure protesta bukatu genuela adierazi izan.

Igandea zela ta batzuek elkarteko-Meza ospatzeko baimena eskatu zuten. Orduan nigana ere zelataria etorri zen ea Meza eman nahi nuen gladetzera.

- ¿La podemos celebrar conjuntamente?
- No, no: sólo individualmente.
- Ah, perdona, pero en esas condiciones no celebro.

Honela zigortuta gaudenean “Junta de Régimen interno” deritzaionak bildu behar izaten du: alegia zer gertatu den, zergatik eta ondorenak erabakitzeko. Baina aurretik, zigortutako bakoitzarekin egon behar izaten dute.

Astelenean, goizetik, edo kapeilaua edo norbait etorriko zitzaigula ziur geunden, eta tajuz jantzita nengoen.

Gosaldu ta berehalaxe izango zen: zelatariak atea zabaldu ta non zelatariak esaten dit kapeilaua etorriko zaidala galdera horiek egitera,:

- Prepárese para ir a diligencias.

Horrekin banekien epaileagana joan behar nuela; lehenago Basurko-ta izan ziren, orain ni.

Bereala, gertu nengoela ohartu nintzen eta zenbait eta gauza gutxiago eramaten nituen hobe.

Hala, etxe azpitik atera ninduten eta kotxe-celular horietako batean sartu.

T. O. P. Epailearengana.

“Coche celular” hartan sartu nindutenean, han mutil gazte bat zegoela ohartu nintzen berehala: eta bion eskuak lotu zizkiguten, nere eskubia eta haren ezkerra.

- Hola! qué hay?

- Hola!

- Qué, eres preso político?

- No, soy de comunes.

- ¿Y tú, eres político?

- Yo soy un cura.

- Un cura? Y por qué te han metido, por alguna homilía?

- Pues, sí.

Hala hasi ginen hizketan eta Salesas-Epailekura heldu ginen. Gela batean zelatariaren aurrean, eskuak askatu eta lehenen mutil orren izena entzun genuen eta hartu eta norabaitera eramane zuten. Gero neri berdín: izenak eman ondoren, beste gela batean, zelatari'ta beste gizon gazteak agíndu zidaten:

- Quiere quitarse el calzado? también los calcetines.

Ahora quítese el pantalón: si, si, quíteselo del todo.

Prakak artu ta ongi miatu zituzten poltxikuak eta dena-

- Ahora bájese el slip. Haga ahora flexión...

Muy bien; vístase.

Banekien ur horretatik igaro behar nuela eta ez nintzen gehiegi harritu. Horren ondoren, kalabozoan sartu ninduten, baina ez bakarrik, baizik lehen esan dudane mutil gazte horrekin. Elkar aurkitzearekin poztu ginen biok, eta han geunden zain, ea epailearengana noiz eramango gintuzten.

Hitz asko esan genizkion elkarri bai epailearengana joan aurretik eta bai ondoren:

Espetxeko berri. Berak lau bat urte bazeramazkien barruan: ez ziten garbi esan zergatik. Orain Orden Público'ra zeramaten baimenik gabe armakin harrapatu zutelako. Bere familiarekin ez zebillen oso ongi. Espetxean lan egiten zuen aroztegian, arotzari lagunduz. Espetxeko narrazkeria agertu zidan. Bera Carabanchel'ko espetxean zegoen. Batez ere Reformatorio'ko saltsa ta nazka.

- ¿Y tú cómo conoces aquello, o cómo lo has visto?

- Pues, por razón de mi trabajo me toca ir por todas las galerías y también al Reformatorio.

- Y es tal desastre aquello?

- Sí, terrible.

- ¿En qué sentido?

- Pues mira te explicaré. Hay un mariconeo que no te puedes hacer idea. Por ejemplo: Entre varios presos mayores, porque hay mayores, le agarran a un chaval, jovencito, lo acorralan y le dicen: “Oye, qué culito más bonito tienes;

ven, ven, que tú nos gustas.” Lo cogen, lo meten en el departamento de los wáteres, le hacen desnudarse y a ponerse para que le den por culo. A veces aparecen chavales con una rajas de navaja en el cuello, etc.

- Y eso ¿por qué lo hacen?
- Pues mira, le amenazan para que no se mueva. Si se mueve y protesta le meten la navaja. Eso es terrible, y lo saben los funcionarios y el capellán y todos. Pero allí nadie se mete. Cuadros de esos me ha tocado ver varias veces.

Gero bizitzari buruz eta gizakiaren izateari buruz zer pentsatzen zuen ere hitzegin genuen. On egin izateak ez zuela balio esaten zuen. Bera beste lagunak ez salatzearren harrapatu zutela, zion; baina bere lagunak erabat ahaztu dute eta bakarrik utzi. Nik hori ez nuen egin behar; horiei on egiteagatik nere etxeokak ondatu ditut. Ongi danaturik nago.

Politikaz ere zerbait ulertzen zuen. FRAP’eko jendeekin ez zegoen konforme: horiena baino ETArek jokaera nahiago zuen.

- Eso de matar a un poli cualquiera, sin más, no me convence. La ETA mata a polis determinados y por razones concretas, no indiscriminadamente.

Gero polizi askoren alde zegoen. Batzuek alegia ezin bizirik zeudela beren herrietan, eta egokiera hori eman zaienean, horretan sartu dira. Behar bada horren errua ez da horiena, baizik gizartearena.

Nerbioso zegoen, eta sartuta berehala gosaria eskatzen hasi zen.

- Quieres desayunar también tú?
- No, no, yo ya he desayunado. Además no tengo dinero. ¿A ti te han dejado traer dinero?
- Tengo algunas monedas.

Han bazebilen halako zerbitzari edo mutil bat, eta harek saltzen zituen horrelako gauzak.

Hamarrak aldera edo, kalabozotik atera ta goiko bizitzara eramán gintuzten. Ni begira nengoen zer epailegana ote ginjoazen baina ongi jakin gabe gelditu beharra izan nuen. Geroago ohartu nintzen nere epailea T. O. P. nº 2 zela.

Lehen neri dei egin zidaten, eta mutilla kanpoan utzita epailearen gelan sartu, bera agurtu, eseri ta orri bat eman zidan.

- ¿Quiere hacer el favor de leer esto y firmarlo?
- ¿Puedo leerlo?
- Sí, sí, claro!

Berehala ohartu nintzen Donostiko Komisarian egin nuen deklarazioa zela.

- Hombre, ya conocerá Ud. esa declaración, no?

Beste aldea ikusi nuen eta an zegoen neronek izenpetua. Orduan berehala esan nion.

- Sí, sí, tiene razón, está firmada por mí mismo.
- Bueno, ¿se ratifica en ello o tiene algo que rectificar o añadir?
- No, nada: estoy totalmente de acuerdo.
- Pues entonces fírmelo.

Gero berak ere izenpetu zuen, eta ateratzeko agindu zidan. Ondoren beste mutil hori deitu zuten. Atea zabalik gelditu zenez, dena kanpotik entzuten nuen.

Hasi zen epailea mutil harekin, eta mutila, neri lehenago esan zidan bezala, epaileari ezezkoan hasi zitzaion.

- Es que cuando me cogió la poli yo dije eso, pero es que me forzaron.
- Que no te estoy hablando de eso.
- Es que la poli, cuando me...

- Que no se trata de eso: esta declaración que te digo me la hiciste a mí y la tienes firmada... Pues bien, yo quería decirte que en este asunto no vas a tener proceso; que de esto quedas libre.
Y quiero que quede claro esto: porque después en Carabanchel armáis unos líos de miedo, que si el Juez ha dicho esto o aquello...

Pues bien, quiero que quede claro que en este asunto no tienes nada pendiente, como tampoco el sacerdote que ha pasado antes.”

Nik hori entzun nuenean, erne jarri nintzen, eta mutil hori kanpora irtetean, epaitegiko andereñoari ateetan galdetu nion:

- Dígame, señorita; por favor, qué ha dicho el Juez acerca del sacerdote que ha...?
- Ah, no, no, no! Esto es totalmente secreto.

Honela gelditu nintzen ezer asko jakin gabe.

Baina gero aldameneko gelaren aurrera eramán ginduzten eta mutil horri dei egin zioten: sartu ta alditxo bat ondoren orri batekin irten zen. Oso pozik zegoen erantzunarekin.

Gero ni deitu ninduten.

- Ud. es Zubillaga, verdad?
- Sí, señor.
- Ud. está detenido por propaganda ilegal, verdad?
- No, señor: por una homilía que pronuncié.
- Bueno, sí, por propaganda ilegal.
- ¡...!

Paper bat eskuan hartu ta zerbait idaztera dijoala gelditurik, ofizínako lagunei die:

- Pero, si no hay causa qué papel le vamos a dar?
- Ah, pues tienes razón.
- Entonces no necesita que le demos nada.
- Pero como viene del Hospital Penitenciario, al director le interesará saber qué resolución se ha tomado. Entonces conviene escribirle al Director.
- Bien, ya puede marcharse.

93. Onela, nere ustez epaileak libre utzi ninduela oso pozik nengoen; baina neroni idatzita ezer eman ez zidatenez, ez nengoen oso ziur.

Berriro kalabozora jetxi gintuzten ta han jarraitu genuen biok gure elkarriketa.

Han gaudela, ateko burni-zirietatik kanpoko jendea ikusten genuen. Halako batean gizon sail bat hor ekarri dute, eta gure kalabozoko atea ireki ta han sartu ziguten talde hori.

Bakoitzak gure berri eman genuen edo jakin erazi genuen. Hauek denak zergatik harrapatu zituzten ez zekiten berak ziotenez.

- Pues, yo no sé por qué me han detenido; si no he hecho nada.

Neri lehenengo egunak gogoratu zitzaizkidan.

Umöre ona zuten batzuek. Bazan portugaldar bat, mutil gaztea, ezkondua. Berak zioenez jai egun batzuek igarotzera etorri bere emaztearekin eta festa-lekuren batean harrapatu poliziak. Gero emaztea hotel batean zeukala, hotel hartara joan ziren, emaztea ere harrapatu goizeko ordu txikietan eta biak D.G.S.’ra eramán.

Emaztea goiz hartan libratu omen zuten, baina gizona Carabanchel’era eramango zuten. Gizona goibel zegoen, pasatuta: pena ematen zidan.

Han zebilen mutilari –kafesneak saltzen zituen hura, alegia- deitu zion ta bere emaztearentzat sekulako enkarguak eman zizkion. Ez dakit mutil harekin fidatu leiken. Gero esan zidatenez, salatzailea ote den susmurra zebilen.

Hantxen bazkaldu genuen berandu: hirurak jota gero. Garbantzuz gogorrak benetan. Batek eskuakin hartu ta bote eginarazi zien mahaitik goiko sapaiera. Gero haragia: andik zerbait jan zitekeen: ogia behintzat bagenuen eta ez zen gutxi.

Haian artean bazen 40 urtez gorako gizon bat. Bere taldeko batek, lehenago ari zuten hizketaldiari jarraituz, galderen batzuek egiten zizkion. Orduan denok galdetu genion:

- Oye, oye, qué te ha pasado?
- Pues, nada, hombre! Que iba por tal calle de Madrid y me quedé a mirar un escaparate. Entonces me viene un señor de una cierta edad y me empieza a provocar que a ver si quería estar con él, que íbamos a entrar a un portal. Pues, nada, hombre, que era un maricón. Entonces fui al portal y me enfrenté a él, enseñándole una chapa de policía y se asustó. Le dije:
- Tiene que venir conmigo a la D.G.S.
- Perdona Ud., no me lleve allí. ¿Podríamos llegar a un acuerdo?
- Bueno, Ud. dirá. Si quiere librarse de la D.G.S. tendrá que entregarme 100.000 ptas.
- Oiga, que yo no puedo 100.000 cien mil. Eso es imposible para mí...
- Entonces, 50 mil.
- Que es mucho, que yo no puedo todo eso...
- Pues bien, 25 mil y no rebajo más.
- Bueno, de acuerdo. Aquí tiene mi carnet de identidad y mañana delante de tal cafetería nos veremos y le entregaré el dinero.
- De acuerdo.

Así llegó el día siguiente, y le estaba esperando a ese tío, y en vez de venir solo vino con un chico joven que resultó ser su hijo. Y cuando yo estaba esperando que me diera el dinero, mira por dónde, el hijo saca una navaja y me la mete en la pierna.

Eta hala erakusten zigun praka ebakia ta merkrominaz sendatutako zauria: ez oso txikia gaiñera.

- ¿Y entonces qué pasó?
- Se armó tal revuelo, que vino la poli, y nos detienen al hijo y a mí...
- ¿Y al viejo?
- A ese pájaro lo dejan suelto.

Naiko parre egin genuen gizon haren ateraldiekin. Orduan nere lagun joan zen gazte harek galdetu zion:

- Y ahora te han acusado de FUL?
- No, no! De eso nada.

Han geunden talde hartan gehiena ezagutzen nuena goizeko mutil gazte hura zen eta ari galdetu nion:

- Oye, ¿qué es eso de FUL?
- Ah! eso es cuando uno se hace pasar por poli. Y está muy castigado.

Horrela noizbait berriro etorri zen zelataria, atea ireki zigun eta Carabanchelera joateko sailean jarri gintuzten. Batzuei binaka eskuak lotu zizkieten.

- Quién es el q. va al Hospital Penitenciario?
- Servidor.

Orduan ni atzean utzi ninduten, eta azkeneko biei etzizkiguten eskuak lotu. “Coche celular”en sartu gintuzten hamaseiren-bat eta Carabanchelera. Han lehen espetxera joan ginen, eta ni ez beste guztiak irten ziren berebilletik. Gero aldi luzean han barruan euki ninduten: bero zegoen. Noizbaitean Hospitalera, etxe azpiko sarrerara, eraman ninduten eta han aldaketako paperak izenpetu zituzten.

Han zelatariak berehala esan zidan:

- Bueno, le tengo que comunicar que la Junta de Régimen ya les ha levantado la incomunicación.
- Bien, me alegro de ello.

Eta berehala gora igo ta han elkartu nintzen apaiz-taldearekin. Kezkaturik zeuden zer gertatu ote zitzaidan, edo, epaitegian gauzak nola joan ote zitzaizkidan.

Gure gelan berriro bildurik, han hasi nintzen nere egun hartako ibileraren berri ematen, eta, nere ustez, itxaropen ona eman zidatela.

Epaileak esan zidanean “Ya se dará Ud. cuenta de que es suyo ¿no?” eta nik dena bukatu baino lehen baiezkoa esan niola, bereala Xirik esango zidan:

- Pues, muy mal hecho, debías haber leído todo, porque esos señores suelen tener mucha prisa para hacerlo firmar.

Arratsalde hartan elkarteko Meza ospatu genuen, eta pozik gainera.

Gero nahiko zer-esana bagenuen gure bakardadeko zigorraren berri elkarri emanez.

Xirinacs’i galdetu genion:

- Oye, Xiri, ¿qué hiciste la primera tarde que te trajeron la cena?

Han agertu zenez, gehienak horrekin kezkaturik geunden.

- Ah! pues no pasó nada. Me trajeron la cena, y por disciplina de grupo, me callé y cené.

Gero agertu zigun Direktorearenganako haserrea:

- Lo qu más me jode es esto: él mete la pata, y en vez de pedirnos perdón, nos castiga.
- ¿Te vino alguien de la Junta de Régimen?
- Claro, una monja. Al principio pensé no decirle nada, pero ella me ha tirado de la lengua y le he soltado todo, hasta demasiado.

Jakindu genuen baita egunkarietan egun haietan gure auzia zelata iblli zen saltsa: denen berri “Ya” egunkariak eman zuen, eta baita urrutia gokoak ere.

Hurrengo egunean, eguerdia etorrita, paketea jasotzeko deia izan nuen: joan nintzen beti bezela Salaberria sendiak bidalia izango zelakoan; eta nun ikusten dutan gure Joantxoren (Aldasoro) letra poltsaren barruan zegoen orritxo batean.

Nere baitan ala nion: Nola leike? hau Joantxoren letra duk ba! Zer gertatu da?

Gero blokan izenpetzekoan han ikusi nuen Joantxok berberak utzi zizkidala bi pardelak. Benetan larritu nintzen: Handik onera zer delata etorri ote da? egunkariak egun hauetan esan dituztenengatik?

Hori hurrengo egunean zerbait argituko zen. Eguerdian patioan nenbilen eguzkia hartzen, eta lagunak deitzen didate:

- Zubillaga, que subas!
Zer ote dugu ba, oraingo honetan: edo Direktorearen deibat ote dugu?
- Qué hay? Qué pasa?
- Siéntate tranquilo.
Apaizen beste gelan zeuden.
- Muchos saludos de Alberto Iniesta.
- Hala! hala! Ganas de tomar el pelo! Que a mí Iniesta no me conoce para nada.
- En serio: muchos saludos. Que estuvieron ayer con él dos sacerdotes guipuzcoanos, preocupados con nuestro plante y encierro y han venido a enterarse qué ocurre; porque las noticias del periódico y de Radio París eran confusas. Que él ha tratado de explicarles y tranquilizarles.

Poztu nintzen hori guztia jakiteaz. Geroago jakin nuenez, Joantxo ta Joxe Mari Muñoa izan ziren bi apaiz horiek. Baita aurrez aurre, “Psiquiátrico Dr. Ezquerdo! zelako gaixo etxetik gure patiora begira egon omen ziren, baita ni ikusi ere patioan harunt-honuntz, eguzkia hartzen, gerriz goitik bilutsik. Eztul batzuek ere jo omen zituzten, baina neretzat alperrik.

Hango lagun batzuetaz zerbait bereiziki esan beharra badut.

- **José Manuel Calzada.**- Josu laguna. Kazetaria.

Hauxen zen, bildur eta konplejorik gabeko gizona. Gaztea. Aizeak goitik eta beetik lasai asko botako zituen. Alaia. Geldik egongo ez zen horietakoa. Edo kantari, edo kontu zaharrak kontatzen edo txiste edo parregarriak egiten... Oso lagunartekoa.

Bazituen bere Palentzi herriko esaera batzuek:

- ¡Celipe! q’haz hecho a laz ovejaz? que vienen todaz riyéndoze?
- Pues, ná! que m’aburría, y laz he partido a todaz el labio d’arriba!

Hori nahi-ta-ez guk denok buruz ikasi behar genuen eta bere doinuarekin.

Erasmori nahiko ahaleginak egin zizkion:

- A ver, Erasmo, a ver cómo lo dices.
- Felipe!
- Que no, hombre, que no: tienes que decir “¡Celipe!”

Bere herri batean abesten zuten abesti bat ere bazuten: Tantum ergo esan beharrean.

Tanto negro, tanto negro,
veneremos a San Luis.
Los antiguos documentos no podemos destruir.
Préstame ese suplemento
sin ningún defectui.

Kantu horri bigarren letra egiten jardun ginen Manolo eta ni, itxita eduki gintuzten egunetan.

Beste abesti bat bazuen “Caballería rusticana” edo horrelakoaren doinuarekin abesten zuena:

Se metió en el mar,
Se metió en el mar,
con el dedo metido en el culo,
pobre Señor, pobre Señor!

no se lo pudo sacar.

Hori hurrengo egunetan pozik bilbotar Agirre'tar Perikok abesten zigun: bere 125 kilo soñean berekin zeramazkiela.

Calzada hori Madrilen elkarte batekin bizi zen: mutil eta neska, senar-emazte, amona bat ere bai. Ezkondu gazteak bazituzten ta haurtxoekin.

Guk esaten genion: ¡Pobres críos, si caen en tus manos! tú los rompes!

Manolo ohean zegoela, oinetan kilima egiterik etzuen nahi izaten: estuasun handia pasatzen zuen. Baina gure José Manuel hori joango zitzaion:

- Manolo! Corazón! Qué uñitas más preciosas tienes! Esas uñitas!

Parrez lehertzen egoten ginen berarekin.

Zamorako apaiz presoek agiritxo bat bidali zigutenean guk ere erantzun nahi ta José Manuel enkargatu genuen: - Escribe tú una carta humorística. Nik gero zerbait euskeraz idatzi nien.

101. Espetxetik irtetzekoan esan zigun: Os escribiré una carta firmada por ¡Celipe!. Baina bidali zigun eskutitza onela izenpetua zegoen: Felipe.

- **Juan Carmelo García.-**

Honek egun batean gure Setién Jaunaren galdera egin zidan . Han agertzen zutenez, apaiz haiek ez zioten halako nahitasun handirik gure Joxe Mari Jaunari.

“Es que se cierra a la hora de plantear el marxismo, y no quiere saber nada con “Cristianos por el Socialismo”. Hala zioten Manolo Ramos eta Carmelo’k eta beste batzuek.

Bein patioan luzaro Carmelo’rekin hitzegin nuen. Nola ikusten nuen Setién’en lana, gure elizbarrutiarentzat zer nolako argitasun eta itxaropena zen; bere entzuteko kemena, elkarrizketarako nekea.

- Mira, Setién no se niega nunca al diálogo. Lo que ocurre es que es un interlocutor difícil: porque te hace afinar las afirmaciones y mostrar el fundamento de ellas...

Azkenean pozik gelditu zen.

- Me alegro mucho de todo lo que me dices. Fuimos muy amigos: y después tontamente nos hemos distanciado. Me gustaría encontrarme con él.

- **Iturgaitz eta Periko Agirre** oso lagunak ziren: elkarrekin parroki berean egon ziren. Iniasta bere etxean izan oi zuten, elkarrekin bizi zirelako.

Oso fina Iturgaitz. Etzeuden oso konforme beste madrileño horien jokabideekin: ikusten denez horiek, reboluzionario jendetza hartu eta horien elizara eraman, hauei ezeren berririk eman gabe eta... Aspertu samarrak zeuden hauekin.

Periko horrek ikusgarritzko zurrunkak ateratzen zituen lotan. Lehenengo gauak ez ziren oso motxak izan. Zaldiari egiten zaion halako hotsa egiten genion ahoz, une batean isiltzen zen baina berehala zurrunka handiagoz hasten zen. Hurrengo egunean, letxua baino freskuago hala galdetuko zigun:

- ¿He roncado mucho?

Bera agurtu genueneko meriendak ez zidan onik. egin eta ohean egon beharra izan nuen.

Etxekoekin harremana.-

Carabanchelera eraman nindutenean, ahalik lehen Tolosora nere senditarrei idazteko kezka neukan. Pentsatzen nuen espetxean semea, anaia eukitzea esperientzi gogorsamarra izango zela-ta, halaxe nere lehenengo eskutitza idatzi nien. Ez zen noski gutun hori oso berehala heldu. Hori iritxi baino lehenago, behin hor deitzen naute:

- ¡Zubillaga, a comunicar!

Horrek esan nahi zuen norbaiten ikustaldia nuela.

Harritu nintzen. Ni ikustera nork etorri behar du hona? Ni lasai nengoen behintzat: etxetik urruti bidali nindutenez inor nere atzetik ibiltzerik ez nuela edukiko eta honela denak pake pakean utziko nituela inor molestatu gabe.

Joan naiz gela hartara, nor ote dagoen kezkatu, eta nun han ikusten ditudan Eulali eta Xanti, nere arreba eta koinatua:

- Baina, nolatan etorri zerate?
- Etorriko ez ginen ba? Ze moduz zaude?
- Ongi nago.
- Ongi, benetan? Jo al zaituzte?
- Ez naute ikutu. Ongi nago, lasai.

Ez genuen asko hitzegiteko astirik izan, berehala bukatu arazi ziguten elkarrizketa. Etxekoen berri, aita-amari esan edo ez esan... Denetatik zerbait saltsatu genuen; baina noski nerbioso samar egongo ginen denok eta patxara gehigirik gabe. Gainera Joantxo eta Ramon Aramburu haiekin joan zirela eta ni ikustera ez ziela sartzen utzi: horrek ere bihozkada ematen dizu.

Horrelakoa izan zen gure lehenengo ikustaldia.

Handik laster beste egun batean beste ikustaldia: Felix eta Joakina eta Maria. Nolabait pixkabana.pixkabana konturatzen ninjoan nola izan ziren familian eta Trintxerpeko herrian lehenengo egunak eta asteak nere baiketari ondoren.

Batez ere Mariak zenbait berri zuzen zuzenean ematen zizkidan.

Orduan izango zen lehenengoz elkarrizketako edo ikustaldietako gela hartan, zelatariak, euskeraz ari ginela, oihu bat egin zidala:

- Zubillaga, en castellano!

Beste behin Xanti bera azaldu zitzaidan bakarrik. Esan zidanez kamioi zaleen batekin Madrilera inguratu eta hala bisitan etorri zitzaidan. Bai Felix, Joakina ta Maria alde batetik, baita Xanti ta Eulali bestetik beste behin izango zitzaizkidan: hauek S. Inazio egunez.

Berriz ere joatekoak ziren Abuztuaren azken-aldera, baina azkenean ezezko albisteak bidali beharra izan nien.

Eskutitzak oso samurrak ziren: bai etxetik, Trintxerpeko parrokitik, etxetik zijoazkidanak. Horrez gainera egia da lehengusu ta iloba berri asko egin nituela: honela neronek ere idazteko edo erantzuteko bidea banuen: idazten zidaten guztiek jartzen zuten lehenengo edo bigarren abizena Zubillaga

Eskutitzak idaztea neretzat pozgarri zen benetan: hantxe agertzen nuen barruan sentitzen nuena. Gauza gehigo ere pozik esango nituen baina isilik gorde behar eskutitza handik irtengo bazen.

Etxera idaztekoan nahi nuen guztia esaterik ere ez neukan: aita ta amari ezin ba nun nengoen argi esan:ez baitzekiten espetxean nengoela. Horregatik hor ibili ginen, Madrilgo ez dakit zer lan-klase nere gain nituela esanez. Batzuetan gezurra asmatzea ez da lan erraza.

Espetxeko beste zenbaitekin harremana.-

Politikoak.-

Ni Carabanchelera sartzean, gure aurreko gelan bi bakarrik zeuden: Larrea ta “Tanke”. Biak ohean zeuden: etarrak ziren eta zaurituta.

- **Larrea:** Gazteiz’ko etxe-bizitzan, gauez etxera zijoala, etxeko atea iriki, barreneraino bultza ta sartu; sartzearekin batean, barruan zai zeuzkan poliziek tiroz lurreratu omen zuten: baita berak lurretik tiroa bota ta haietako bat zauritu ere.

Istarrean (eskubian) ikaragarritzko arrastoa zeukan goitik behera, Hospitalean egin zioten ebakuntzaaren arrastoa. Ezkerreko istarrean berriz ixten ez zitzaion zauri zabal bat zeukan. Egun haietan zebilen sendagilea txertoren bat egin beharko ote zion; baina aurretik berriro beste saiakera bat egin nahi zion: ea trapu guztiak kenduta zer gertatzen ote zitzaion. Eta halaxe sendatu zitzaion.

Pixkabana hasi zen: lehen kurpilezko aulki batean, makuluekin eta gero bere oinez. Bilbotarra - basauriarra – gaztea (an bete zituen 21 urte) azkarra, buru onekoa, asko irakurria. Xirinacs’ekin diskutitzea oso gogoko zitzaion: galdetu ere asko galdetzen zion.

Oso isila zen. Jale ona. Maleziz betetako irriparra zuen (irónico). Ebanjelioko hitzak bazekizkien ta bere erara zuzentzen.

Etarrek norbait hil zutela eta hala zion: “Zuek ez duzue ba esaten hil eta gero zerua? guk zerura bidaltzen ditugu.”

Euskera ikasten ari zen, eta Basurkoren laguntzarekin liburutxo bat itzultzen asi zen.

Zerbait ona bazegoen: edo jakirenbat edo, hala esaten zuen: - “Esto está de putas madres!”

Nik ez nekien zer esan nahi zuen; edo ona, ala txarra... Galdetu nion berari eta esan zidan:

- Ona, ona. De putas madres!

Oso polita kapeilau jaun On Norbertorekin gertatu zitzaion.

Gure gelara askotan etortzen zen kapeilau gizarajo hori. Guri animo pixkabat eman beharrean, guk animatu behar izaten genuen bera. Ez zen inori mesede bat egiteko gertutzen; eildurrez jota zegoen eta kapeilautza galdu nahi ez.

Koldo Telleria’k esaten zigun:

- Ya viene otra vez el pelma ése de Norberto. Viene donde vosotros y luego nos visita a todos. ¿Por qué no le decís que se vaya y que no venga?

- Eso díselo tú.

Baina ez zen esatera ausartzen.

Behin joan omen zaio gure Txema’ri (Larreari) kapeilaua eta behar bada hizketan zerbait hasita, Txemak bere nahigabea adieraziko zion, ez bait zuten kapelaurik ikusi nahi ere. Ta Norbertok ala dio Larreari.

-“Oye, oye: pero yo creo que tú, como español, serás católico, no?”

Uste dut Txema hitzik gabe gelditu zela. Geroago hori zelata zenbat ileartze egiten genion Txemari.

- **“Tanke”:** Ordiziarra. Mutilpuska aundia. Arruabarrena Joxemari. Hau “Tupa” Garmendiarekin batean, Donostiako Pakea klinika ondoko tiro-saioa izan

ondoren, Antiguorako sarreran harrapatu zuten, eta hanka bateko ezurra txirtxildu zioten. Operazio ondoren, gerora, iheltsoarekin jarri zioten, eta makulukin ibiltzen zen; baina harek lan luzea zeukan bere hanka harekin.

Etarrei ez genien sekula keja edo espa bat entzun bere minagatik edo nekeagatik. Moral handia zuten; Euskadi askatzeagatik edozer egiteko gertu zeuden mutilak.

Sinismen kontua edo zerbait ikuitzen bazen, haiek Jainkogabeak ziren: hala azaltzen ziren. Baina ateoak al ziren? Begira gure Tanke honen ateismoa nolakoa zen; nik behintzat bi izpi hauek hartu nizkion:

a) Hango presoen hizkera ez zen oso garbi-garbi horietakoa; hango ostiak, Dios, la Virgen... bazen naiko hotsa ta zarata eta esan-beharra. Hala ari zen behin gure “Tanke” ere. Elkarrekin konfiantza pixka bat bagenuen ordurako, eta hala esan nion:

- Aizak, Joxe Mari: ikusten natxeok sinismen handinetako gizona i hagola hemen: Jakulatoriak esan eta esan Ari haiz.

- Zer da jakulatoria?

- Otoitza, eskari laburrak.

- Bai baina, nik hitz horiek ez ditut esaten gaiztoz; neri konturatu gabe ateratzen zaizkit,

Nere baitan pentsatu nuen: “Ara, gure sinisgabea! Ataungo edozein gaztek ere horrelaxe erantzungo zidaken.”

b) Beste behin, apaizetaz hitzegiten ari ginen. Behar bada kapeilaua gelan izan zelako edo... Gauza asko esango genituen noski ta ez hain politak.

Halako batean “Tanke’ri” esan nion:

- Tanke, hik egin behar huen apaiz.

- Ni apaiz? Bai! apaiz ona izango nintzen ni!

Berriro nere baitan pentsatu nuen: Jaingoikogabea den batek ez du horrela pentsatzen; oso bestelako erantzuna emango zidan.

Jokaera aldetik pentsaeraeta jokabide lasaia izango zutela pentsatzen dut: horren adibide bezala izpi bat besterik ez daukat. Andregaia noiz behinka joaten omen zitzaion: eta gaixo gelan zegoenez gelara joan beharra zeukan andregaiak.

Hori gogoratuaz etarrak, batez ere Koldok naHiko jolasa ibiltzen zuten.

Koldo Tellería hori, bilbotarra, gaixo zegoen: hemofilia eta hezurretako gaitza zeukan. Agina ateratzeko ere klinikara eraman behar izaten zuten odol jarioaren

109. bildurrez: “La Paz” gaixotegian zagoen ni Carabanchelara eraman nindutenean.

Itsusia benetan, illegorri, dibujante ta margolari ona, bilbotar, bilbotarra! Beti neska kontuak zituen gogan. Esaten zuen:

- “Yo necesito una aldeana, a todo terreno.” “Me ha escrito mi puta.”

Ba, Tankeren andregaia etortzekoa zenean, hala esaten omen zuen:

“Yo ese día me siento enfermo y me meto en la cama, que no me pierdo yo la visita de la neska de Tanke.”

Erasmok naiko ile-hartze egin ohi zion Koldori. Behin gauza hauetaz hitzegiten ari ginela, Tankek hala zion:

- Si el que me pide acostarse con mi novia es un amigo, a mí no me importa: yo le dejo. Es un favor que me pide un amigo.

- Le dejarías, le prestarías tu novia?

- A mi amigo sí.

Tankek Euskadiganako sentimentu handia bizi zuen.

- Sendatzen haizenean eta espetxetik aterata zer egin bear duk, Tanke?

- Berriro, lehenagoko lanari jarraitu.

Amets hori etarrak, han zeuden denak, zuten.

Igande gau batzuetan gertatu zitzaigun, 21'an etarrak, 20'an gu, 22'an beste apaiz taldea.

<i>leioa</i>	21	22
	+□	+□
	20	19
+□	□ ₁₈	+□
	+□	

Gaueko hamarretan geuren gelatan isten gintuzten. Azkeneko “recuento” hori egin aurretik Tanke ta ni pasiloko leihotik begira. Zerua urdin-urdin zegoen, gau-giro

bikaina kanpoan. Aluche'ko Metroa juxtu-juxtun azaltzen eta izkutatzen ikusten genuela.

- Aizu, Jexux (neri beti zuka itzegiten zidan): Euskadin bageundeke, e? Han Donostiko Parte zaharrearan bueltaka!

- Bai motel! alde ederra genikek!

Abeslaria zen gure "Tanke": euskal abesti asko zekizkien. / Patioan eguzki ederrik hartua ere ba zen. Ateraldi batzuek ere bazituen. Behin hala kaso egin zion Xirinacs'ei:

- Eh, tú, catalán berri!

- Qué es eso de catalán berri?

- Uno que ha aprendido el catalán siendo mayor.

- Ah! pues es verdad, es verdad!

- **Yarza Txema.**- Lasartearra, bizi-bizia, mehea. Lehenagotik Hospital hartan egon zen, baina Burgosen "Consejo de Guerra" bat izan zuen egun haietan eta haruntz eramana zuten: hor ere beste 28 urte edo erantsi zizkioten. Denetara 156 urteko zigorra zeukan bere gain.

Huarte baitu zutenean han zen hau ere tartean: hura eduki zuten zuloan Huarte'rekin ajedrez jokuan biak jokatzen omen zuten. Baita Ernaniko dinamita harapatzean ere, han izango zen.

Basurkorekin harreman handia izan zuen. Patioan fubolean Zipitria, Basurko, Yarza ta beste zenbait gazte han ibili ohi ziren.

Oso isila zen. Batzuetan esaten genion:

- Aizak, Txema, goazik musean jokatzeraz.

Beti ezezkoan zegoen. Behin esan nion:

- Zer, ez al dakik musean jokatzen?

- Bai, badakit baina, oso letxe txarra dut eta galtzen banago kartak hartuta harrika botatzen ditut; eta ez dut nahi.

- Motel, motel: ez dek orrenbestearino izango!

- Bai, bai: badakit zer gertatzen zaidan, eta nahiago dut ez hasi.

Behin agertu zidan zergatik zegoen Hospitalean. Besoan noizbait –ez dakit edo Segoviako espetxean edo nun egina izango zuen- ebakiren bat egina izan behar zuen eta hartatik operatu beharra izan zuen. Baina bi behatz mutur mugitu ezinik zeuzkan; nunbait zainak ez zeuzkan ongi: horregatik berriro hara eraman zuten ea oraingoan hobeto jartzen zioten.

Egun batean jan-gelan Xiri'k esan oi zigun gauza bat gertatu zitzaion. Xirik esan ohi zuen:

- "Es muy malo que la cárcel te entre dentro. Mientras no te entre comes bien y vives feliz; si te entra, no admites ni la comida. Es lo que le pasó a Nikola Tellería: la comida de la cárcel le hacía daño. Su estado síquico hacía que su estómago rechazara lo que había comido."

Honela, afaltzera jetxi ginen jan-gelara eta, askotan bezela, aza puska handiekin patata ia osoak. Hotza egon ohi zen, eta gosea edukiz gero jateko modukoa zegoen: baiñan ez zen gustagarria.

Gure Txema honek hartu zuen eskuakin patata haietako bat eta mahaiaren aurka bota zuen. Zelatariak ez zuen ikusi.

Orduan Xirik guri esan zigun: "Eso quiere decir que a Yarza le ha entrado la cárcel."

Urte pare bat zemazkian barruan.

- **Goikoetxeta Joxe Erramun.-** Andoaindarra. Au Soriako espetxetik Hospitalera eraman zuten: giltzurdinetatik edo nekea sentitzen zuela-ta. Astebete egon zen Hospitalean. Etarra zen, baina beste horien gogokoa ez-zen. Hau ETA VI'koa zen eta besteak ETA V'koak.

Behn, siesta ondoren gure gelara etorri zen norbaitek eskatu balio bezela, gure arratsaldeko neskafek hotza hartu ondoren, han hasi zitzaigun langillediaren kondaira ta marxismoaren egitekoa agertzen, Herriaren izateak batere balio ez balu bezela.

Erasmus berehala jeiki eta patiora joan zen: footing egitera. Koldo jeiki ta: - "Me voy, me voy!" Han gelditu ginen batzuk: zerbait diskutitu genuen. Xiri ere etorri zen: luzaro isilik egon zen entzuten, gero hasi zen bere iritzia ematen: Herriaren balioa, eta herriaren kontzientzia, eta historian dituen une ez-berdiñak agertzen. Geroago Erasmori galdetu nion:

- Zer, nora joan haiz, Erasmus?

- Footing egitera joan nauk. Trosko hauek zer esaten duten bazekiat ia buruz, hainbestetan entzunda. Ez neukaken berriro entzuteko gogorik; lezioa ikasten ditek eta hura azpitik eta gainetik sartu arazi behar.

Gehiago ez ginen inor gelditu gure "maixu" haren ikasgairik entzuten.

Egia'tar Felix harrapatu zuten egunak.-

Abuztu'ko lehenengo egunak ziren. Wilson harrapatu zutela telediararioak berri eman zuen: Bartzelonan harrapatu ere. Berehala Egia'tar Felix Madrilan baitu zuten: ekintzaren bat egin zuten etarrek eta txakurrak atzetik zituzten. Ziotenez, Madrilgo berri ongi ez jakin, eta autobusa hartu omen zuen bere etxe alderako baina han zeuzkan zai poliziak eta tiroka hartu zuten: okalondoa txirtxildu zioten eta hartuta bigarren egunean edo, gure Ospital horretara eraman zuten. Berehala itxian eduki zuten, baina bigarren egunean hor etorri zitzaaien Don Manuel zelataria etarrei beren gelara, nahi bazuten Egia ikustera joan zitezkeela. Berehala pozik asko joan ziren eta alditxo batean berarekin egon.

Hurrengo egunean berriro itxita eduki zuten: epaileak itxita edukitzeko agindu zuela-ta. Ezin genuen ulertu nolatan bigarren egunean berarekin hitzegiteko baimena eman zieten eta gerora kendu.

Horrela inkomunikazio horietako batean etarrak zerbait esan nahi Egia'ri eta orritxo bat jan-tartean sartuta bidali zioten. Baina zelatariak harrapatu egin zion orri hori.

Galdetu genien:

- Aizue, eta horrekin oker haundia al duzue, edo garrantzi haundiko gauza al da?
- Ez, ez. Ez dio ajola haundirik.

Baina handik egun batzuetara aldaketak etorri ziren. Txema Larrea gertu egoteko, handik eraman behar zutela-ta.

Kezkatu ginen bera hain kezkatsu ta larri ilusita.

- Zer, Txema: nora eraman behar haute?
- Ez dakit, Esan dute "a la Prisión Provincial."

Xirik ala esan zion:

- Larrea, no firmes nada antes de asegurarte a dónde sales: que esos son capaces de llevarle a uno a la D.G.S.

Larrea zuri-zuri eginik zegoen erabat pasatuta.

- El miedo que tengo es que me lleven a la D.G.S.
- Pero tienes algún motivo para pensar que te pueden llevar allí?
- Sí, de algo que ha dicho Egía en el interrogatorio.

Azkenean ziur etorri zen esanez espetxera zijoala eta ez poliziengana.

- Y eso te fastidia mucho? el tener que marcharte de aquí?
- Qué va! en absoluto. Voy encantado a la provincial, con tal de no pasar por la D.G.S.

Oraindik geroago ere nahiko kezka bagenuen baina ez zuten D.G.S.'ra eramanez.

Handik egun batzuetara Txema Yarza'ri deitu zioten: gertu egoteko handik atera behar zuela-ta. Gu apaizok ere pixka bat larritu ginen eta Tanke ta Koldori galdetu ere bai:

- Oye, no se meterán con vosotros por los follones que nosotros estamos organizando y porque nos ven con vosotros?
- No, no: estad tranquilos. Esto es por aquel asunto nuestro, seguramente.

Yarzak ere bere gauzak gertu zituen denok lagundu genion gertutzen, eta besarkada batekin agur egin genion elkarri.

Serio samar ote zijoan iruditurik, batek hala galdetu zion:

- Yarza, te jode mucho el que te manden de aquí?
- No, hombre; voy encantado a la provincial.

Izan ere, han espetxean hospitalean baino lagun gehiago zeuzkaten.

Agurtzekoan hala esan nion:

- Berriz besoko operazio hori egiteko hona ekarri behar baldin ba haute, eta hori noski irailan, oraindik bear bada hementxe ikusiko diagu elkar.
- Ah! bear bada bai.

Handik egun batzuetara jeikitzen asi zen **Egia-tar Felix**.- Bizkaitarra, Arrankuduaga'ko semea. Bare-barea, ezta, oso lagun ona zirudien. Han Ospitaleko jende guztiekin hitzegiten zuen: jendearen harremanetarako dohain berezia bazuen. Hotsik atera gabe, isilean han ibiliko zen.

- Zer moduz, Felix?
- Hementxe. Gaur ere etorri dira txakurrak.
- Bai? nundik?
- Bilbotik.
- Ta? gogor?
- Al den bezela.

Aurretik Madrilgoak joan zitzaizkion, geroztik Gazteizkoak, geroztik Donostikoak... Naiko kezka bazebilkien gizarajoak berekin.

Lehenengo egunetan galdetu zidan:

- Zu nungoa zera?
- Hernaniarra naiz baina Pasaiko auzo batean nago apaiz: Trintxerpe izena du.
- Trintxerpen zaude zu?
- Bai. Ezagutzen al duzu?
- Bai, zerbait. Zuk ezagutzen al duzu Trintxerpeko neska bat, Itziar, Bilbon dagona?
- Itziar? zein Amorebieta?
- Bai, horixe.

- Ezagutuko ez dut ba? Jakina aspaldi samar herritik irten zen eta geroztik haren berri asko ez dakit.

Beste egun batean esan zidan:

- Kezketan nengoen, baina, Itziar bestaldera pasatu da.
- A, bai? Orduan orain lasai?
- Bai.

Bagenekien Felix'ek berak esanda honi bi edo hiru hilketa epaileak ezarriko zizkiola. Izan ere bi edo iru eraildakoak honi erasten zizkioten.

Bere ibileraz hitzegiten zuenean hala zion:

- Yo también hubiera andado bien tranquilo por las salas de fiesta como otros muchos chicos; pero es que no podía. Yo en conciencia necesitaba hacer algo por nuestro pueblo. Después he visto con mucha alegría que el ejemplo cunde en otros más jóvenes.

Bazen han gizon famoso bat, José Luis, “comunes” horietakoa, senar-emazte batzuek il zituen; geroztik bere buruaz beste egin nahi ta ezin lortu: ez dakit nundik bere burua botatzeko zorian egon, gero ikaragarritzko alanbre ta ezten eta orratz eta zikinkeri pila tragatu omen zituen. Ikuste denez urdailla ondatua euki behar zuen, eta Hospitalera horregatik eraman zuten.

Denei esan behar izaten zien bera kezka, bere errua, bere herioa. Noski espero zuen epaileak heriotza emango ziola. Nik ez dakit burutik oso sano ote zegoen.

Bein Felix'ek esan zigun:

- Oye, ese José Luis es un sádico.
- Pues? qué ha pasado?
- Cuando se ha enteredao que el fiscal está pidiendo pena de muerte para Garmendia y Otaegui, cómo él está obsesionado con la pena de muerte, parece como que disfruta con ello. Hoy me grita en el pario, de parte a parte:
 - Félix! sabes que dos (eta beatzarekin lepoa mozteko sinua egiten omen zion).

Beste behin hasi omen ziren hizketan, eta okalondoa zer moduz zeukan eta esan omen zion:

- Según me han dicho, pronto me van a operar.
- Operarte? para qué? Si pronto te van a... (eta berririo beatzarekin lepoa mozteko sinua).

Esan ere egin genion:

- Pues vaya ánimos que te está dando. Está loco ése.

Beste batean han ari omen zitzaion:

- Es que no sé cómo conseguir quitarme la vida. He intentado varias veces, y... nada!
- Sí? te interesa de verdad quitarte la vida? Mira: empieza a subirte por ese alambrado. Ya verás qué pronto te quitan la vida!
- Esos cabrones, serían capaces de no apuntarme.

Hura beti bere leloarekin.

Horietaz gainera beste bi politiku egon ziren gure garaian: Antonio Durán, Correo kaleko gertakizuna bere gain botatzen zioten: P.C.'koa; begietatik gaixo egon zen, eta luzaro ohean; baina nere azken egunetan jeikitzen hasi zen.

Baita beste gazte bat Lérica'ko espetxetik belarriko minez edo Ospitalera eraman zuten: hau ere PC'koa. Honek ere une guztietan bere komunismo'ko leloa denei esan behar izaten zien; gogoko bazitzaion eta ez bazitzaion.

“Comunes” presoak.-

Beste preso asko zeuden han gurekin batera: edo lapurreta edo kalteren bat egin edo norbait hil zutenak. Elkarrekin ez ziren gehiegi fidatzen, eta ez ziren ezertarako elkartzen. Batak besteari kalte egin bai.

Gu hala alkarturik ikusten gintuztenean, batzuk esaten ziguten:

- Vosotros sí que os unís y os ayudáis.
 - Y por qué no os unís vosotros?
 - Y con quién quieres que me una? Si no hay más que envidia entre nosotros.
- Haien artean denak berdinak ez zirela gauza argia zen:

- **Iñaki, margolaria.-** 18 urterekin baitu zuten: 6 urteko zigorra eman zioten. Baina barruan zegoela, espetxeko zuzengabekeria ikusita oso bihurritu zela agintarien kontra; gero ihes egiten hasi eta harrapatu; horrela urteak gehitzen joan zitzaizkion. Denetara, hogeitaz urteko zigorra: barruan 18 urte zeramatzan. Ikaragarriak ziren harek esaten zituenak.

Berak aitortzen zuen erabat ondatu zutela. Mundua nolakoa zen ez zekiela. Urte terdi falta zituen handik irtetzeko eta esaten zuen:

“Me interesaría que me mandaran a un Campo de trabajo. Allí estás en situación de bastante libertad, trabajas y a la noche tienes que volver a la prisión. Así podría conocer lo que es una mujer, acostarme con ella; para que cuando salga en libertad no haga el ridículo por ahí”.

Iñaki hau margolaria zen: afizio handia, inork irakatsi gabea, berez zekarren horrelako gogoia ta sena: batez ere koloreak oso dotore erabiltzen zituen. Hortan ere ez zioten inungo erreztasunik eman, oztopoak jarri baizik. Xiri'k asko lagundu zion sentidu guztietan. Xiri'ren amak Barzelona-ra honen margoak eraman hango margolari bati ta asko saltzen zizkion: gehienak hiru mila pezetetan ta batzuk bost milan.

Azken aldera, behin galdetu nion:

- Oye, Iñaki: aquí también ahora eres mal visto por la dirección?
- Claro que sí.
- Pero, mira: es posible que tú nos observes también a nosotros; yo te he observado también algo, y no veo qué te pueden acusar?
- Pues, mira: una cosa que me acusan es que hablo con vosotros.
- ¿Porque hablas con nosotros? Oye, entonces te voy a dejar.
- No seas tonto. Me llamó un día el Director y me dijo que me veía hablando mucho con los curas. Y le dije: “Con quién quiere Ud. que hable: con los toxis y drogadictos? con los ladrones y asesinos, para que me envíen? A mí me interesa hablar con personas que tienen alguna cultura y me pueden enseñar algo.”

Mutil hau, ezbairik gabe “comunes” horietakoa baino gehigo politikua zen.

Salamanca'ko beste mutil gazte bat bazen: oso alaia; jatorra zirudín. Ocañan egon zen aldi luzean. Osasuna galdu ta azkenean Hospitalera eraman zuten. Beti “de Ud.” itzegiten zidan.

- Pero, por qué me hablas de Ud.?

- Mire, mire, déjeme a mí, que yo estoy acostumbrado así, y yo ya me entiendo.

Mutil horrek sei urte bazeramatzan eta oraindik noski urte saila gelditzen zitzaion barruan.

Horrelako mutilak gogoraturik burura hau etorri zait: mutil hauek giro on bat izan balute, espetxean zigorraren ordeztu laguntza aurkitu bazuten, jatorrak izango ziren. Baina orain, honek eta beste batzuk askotan esaten ziguten:

- ¿Qué podemos hacer nosotros? En cuanto salgamos de aquí, en cualquier sitio que queramos trabajar lo primero que nos preguntan: “- De dónde viene Ud.? cuál es su certificado de conducta?” En cuanto se enteran que hemos salido de la cárcel, nos cierran las puertas. ¿Qué hacemos entonces? Tenemos que robar para vivir.

Por otra parte, aunque no hayas hecho nada, si la poli te ve que no tienes trabajo, te meten al trullo. Mientras esto no cambie, nosotros no tenemos nada que hacer.”

Ez zuten arrazoi faltik.

- **Jesús Mari Vidaurre.**- Naparra, ezkondua. Honek ere urte saila zematzen barruan; eta oraindik eraman beharra. Azken egunetan euskera erakusten jardun nintzaion

- **Aitona**, aragoikoa: sukaldean ari zen. Uste gabeen bere erraina hil zuen.

Kamioiekin zuten etxeko negozioa. Baina kontuak oso garbi ez, eta semea eskutik hogeitamaika egiten hasi omen zitzaion. Orduan bera ere larritu omen zen eta izkutuka berak ere dirua hartu eta kamioi baten tranpa batean sartu omen zuen eta andreari esan. Andreak semei esan omen zien eta ikaragarritzko iskanbila sortu omen zen. Denek inguratu omen zuten, eta erraina ere zerbait esaten hasi omen zen aurka. Aitak, honek, harakinek duten horietako aitzo aundia omen zeukan eskuan –bera arakina ere izan behar zuen- ta ustegabeen une artan golpe txarbat eman omen zion eta hilda han utzi omen zuen. Gero, zer egiten zuen ere ohartu gabe, kaleetan barrena poliziagana joan omen zen bere burua entregatzera.

Edadeko gizona zen: Republika garaiko kontuak eta esaten zizkigun: baita gerrakoak eta gotzaiak garai hartan eduki zuten jokabide kaxkarra. Asko ibiltzen zen gurekin.

- **Rufino**: bazirudin aitona zela, baina berak zioenez oraindik gaztea zen: zahartua zegoen. Itsusia benetan: Umore ona zuen eta jostalaria zen. Han ibiltzen zan kafeteri inguruan ontziak biltzen, ea kafe-zaleak kafesnetxoren bat edo ematen zion.

- Beste ijito talde bat bazen: mutil gazteak, sailean ibiltzen ziren.

- Barakaldoko gazte bat: Psikiatrikora joateko bideak egiten jardun zen. Euskara ikasteko gogoa zuen eta hantxen jardun nintzen berarekin. Sei urte bazeramatzian barruan eta oraindik bazituen beste sail bat. Baina oraindik epaiketa baten zai zegoen.

Ez dakit Jaengo espetxean edo nun, zerbait egitea pentsatu omen zuten. Horretarako egun askoko pixa bateratu zuten: bidai handi bat ba omen zuten. Horrekin “reostato” baten bitartez fosforo edo fosfato edo horrelako zerbait lortu omen zuten.

Horrek arrisku handikoa izan behar du, eta hauek jasota omen zeukaten; baina, katxeo bat bitartean gertatu. Funtzionaria joan da; hartu omen du zeukaten ontzia eta lurrera erori omen zitzaion bere oinetara. Berehala su hartu omen zuen eta zelataria oina erreta gelditu omen zen.

Hori zela-ta epaileak 16 urteko zigorra eskatzen omen zuen mutil horrentzat.

- Beste preso bat: emakumeen alderdira begira orduak igarotzen zituen; errena. Han urrutian zeukan, berak esaten zuenez, bere maiteñoa eta seinakin urrutira hitzegiten omne zuten.
- **Alcalde:** Sendagilearen languntzailea. Berak zioenez medizina ikasten ari zena eta oraintxen karrera bukatzen. Denek ziotenez gizon txarra: maricón, chivato eta kalte handia egiteto kemena zuena. Direktorearen begikoa.

Ile moztaillea: 20 urteko zigorrarekin. 18 urte bazematzan barruan. Bere familiarekin haserre zegoen. Amak, hiltzear zegoela seme honi utzi omen zion etxea; baina alabak bereganatu du, ta mutil horrek jakin du. Aspaldin azaldu ez zaion arreba joan zaio ikustera, eta etxea saltzera dijoala esan dio eta firma emateko.

- “Le dije que no le firmaba, y que cuidadito con tocarme aquella casa. Que si le hacían algo cuando yo salga de aquí, la mato. Y ella sabe que soy capaz de hacerlo.”

Eta abar, eta abar, eta abar.

Gabeko Telebista.-

Ni joan nintzenez horrela zegoen: ostegunean pelikula, larunbat arratsaldean eta gauean Kojak bukatu arte, igandean arratsaldetik. Beste egunetan, afal ondoren piztutzen zuten eta hamarrak jo aurretik deitzen ziguten. Orduan Picaso joango zen eta telebista itzali.

Gure poza “Tour de France” nola ote zijoan jakitea izaten zen: behintzat telediariorik esaten duen berri laburra: baina hori ez zen iristen.

Behin Xirik esan zigun:

- No sabéis qué cosa más bonita ocurrió anoche.
 - Contigo?
 - Sí, claro. Os marchasteis todos después de tocar el timbre, y yo me quedé solo-solo ante el televisor apagado. Comenzaron por lo visto el recuento de la noche y al no encontrarme me buscaron y me encontraron en el comedor mirando al televisor apagado. El funcionario no se atrevió a decirme nada; pero Picaso me dijo:
 - D. Víctor ha dicho que hoy no hay película.
- (Izan ere aurreko asteartean D. Manuelek pelikula utzi zigun: eta egun hori ere arteartea zen).
- Sí, pero D. Víctor ha dicho que se puede ver todo el telediario.
 - Enciéndele, enciéndele! dice el funcionario. Me lo puso y estuve allí hasta que se terminó. Al ruido vino alguno de los destinos y nos fuimos. Al pasar por delante del despacho del Jefe de servicios, me di cuenta de que estaban discutiendo entre ellos. Pero a mí no me dijeron nada.

Nahiko parre egin genuen. Manolok hala zion:

- Oye, Xiri: me hubiera gustado verte todo serio mirando a la tele apagada. Eres genial!
 - Ah! pues, a ver si otro día os decidís a hacer lo mismo.
- Esan eta izan.

Don Miguelito buru zegoen gau bat zen. Horrelaxe behar baino lehenago deitu zuten, et jan gelan han gelditu ginen Ramos, Xiri, Santi, Koldo eta ni.

Handik alditxo batera zelataria etorri zen zenbatzera: recuento garaia baitzen.

Xirik esan zigun:

- Yo no pienso decir nada:
- Nosotros le delegamos a Manolo para que hable.

Azaldu zen Miguelito ori.

- Qué pasa? qué le pasa al clero?
- Pues mire Ud., D. Miguel, que no hay manera de que veamos el telediario completo: siempre nos lo interrumpen.

-Miren, si Uds. desean que les pongan otra tele pídánla por instancia; y si se la conceden, yo encantado. Y si quieren tenerla más tiempo, también.

Yo no quiero topar con la Iglesia. Ahora vayan por favor a las habitaciones.

Hala gertatu zen, baina handik aurrera preso denentzat telediario osoa uzten ziguten.

Argi asko han ikusten zen, lortzen zen piska indar eginez lortzen zela.

Geroztik beste bi apaiz ere azaldu zitzaizkigun:

- **Francisco Herrero:** Josulaguna. Salamanca'ko semea. "Promoción agraria" lanean ari zena eta profesional eskola batean klaseak eman behar zituen. Bere bigote eta guzti polizia zirudin, eta berari esan genion behin baino gehiagotan.

Isila, jatorra, serioa zen.

- **Argimiro:** Hau Oblato de María Inmaculada zen. Hernanin egon ohi ziren haietakoak. Espetxeko epea bukatuta berehala Chile'ra zijoan beste lagun batekin.

Esaten genion: -"Oye, Argimiro: pues de verdad que hace falta moral para irse ahora a Chile, tal como está aquello.

Umore ona zuen. Ez nuen gehiegi ezagutu.

GOSE GREBA.-

Sarrera.- Ni Carabanchelera joan deta biharamunean lehenengoz entzuen nuen gose greba batetzaz zerbait: Xiri izan zen gainera berritu ziguna:

- Tenéis que saber que los políticos tomamos la decisión de hacer huelga de hambre desde que salga la noticia del juicio de Garmendia y Otaegui.
- Cómo has dicho: huelga de hambre?
- Bai, bai, Jexux: gose greba egin beharra zego; zion Erasmok.

Ez nekien edo benetan ala txan txaz ari ziren; baina pentsatzen nuen hori gauza latzegia zela bromaz jarduteko.

Nik nere baitan pentsatzen nuen: "Utz nazazue pake-pakean, ni ez natxeok gose greba egiteko giroan-eta."

Geroago ere Garmendia ta Otaegi laister epaituko zituzten susmurra ibili zen. Nik Erasmori esaten nion: -"Zuek gose greba egin, nik ura ekarriko dizutet nahikoa edateko." Ta parre egiten zuen.

Gose greba izan zen neretzat, espetxean egon nintzen garai luzean kezka handi bat, eta sufri-arazi zidan kezka. Izan ere, sekulan nik ez nuen gose grebarik egin: hori gauza latza dela dirudi, eta bildur ematen zidan. Orduan konturatzen zera ez dela naikoa espetxean egotea: baizik eta besteen giroan sartu behar duzula, eta horrek berekin poz handia dakar, eta batzuetan nahigabe batzuek ere bai.

Kezka hori bizi-bizi eduki nuen espetxean bakardadean sartuta euki ginduzten bost egun haietan.

Han irakurtzen ari nintzenak pentsatzean, hau zetrkidan burura: gure senideen alde zerbait egin behar dugula jakin, eta zer egin ez jakin, edo egin leikena egiteko kemenik edo ausardirik ez.

Ezbairik gabe denbora horrek denak nere pentsaera eta erabakia zerbait heltzen lagundu zidan.

Prestaera.-

Uztailaren erdialdetik edo hasita, Abuztua halako berotasun handirik gabe igaro zen. Udazken aldera edo epaituko zituztenaren berria zabaldu zen. Behin pentsatu nuen: “Nahiago nikek hemendik irtenda gero gertatuko balitz: honela gose grebari ihes egingo niokek.” Hori zen nik neukan gogoia!

Abuztua erditik aurrera zijoan eta berriro hasi ziren zurrumurrak, baina orain larriagoak ziren. Garmendia ta Otaegi laister epaituko dituzte.

Geroxeago beste berria: ez etarrak baizik FRAP’ekoak epaitu bear dituzte. FRAP’ekoak oso gogor jarriak zeuden eta polizien artean zenbait hilketa eta gogorkeria egin zuten, eta baituak ere mordo bat baziren: esaten zuten ez hiltzaileak baitu zituzten.

Orduan berriak ongi jakin nahi genituen, ea gauza zertan zegon, beste espetxeetan ze asmo zituzten, etabar. Horretarako abokatuekin hitzegin nahi. Manolo, Santi ta Carmelo beren abokatuei deitzekotan gelditu ziren.

Santi’re (Del Pino-ren) abokatua etorri zen eta berri hau ekarri zion:

- En la Provincial de Carabanchel van a hacer huelga Eta V y VI, ORT, etc. Pero no van a hacer huelga los del FRAP y acaso el PC.
- Que los mismos del FRAP no van a hacer huelga? Pues si ellos no la hacen quién la va a hacer? Nos quitan la razón y la fuerza para la huelga. Esos están deseando de tener algunos mártires en sus filas.

Honela, gauzak oso garbiak ez ziren. Ahal bazen, notizi gehiago jakin behar genuen.

Handik egun batzuetara, berriro, ez FRAPekoak baizik ETArrak epaitu bear zituztela: eta azkeneko berri honek bazirudien gero eta indar gehiago zuela.

Egun batean Xiri ta ni jangelara ginjoazela, afaltzera alegia, Xiri han ari zitzaidan esaten:

- Ya están llegando los días, y hay q. hacer la huelga, tal como lo prometimos.
- Mira vosotros hacéis la huelga y yo os sirvo el agua.
- Es que tú no piensas hacer la huelga por Garmendia y Otaegui?
- No.
- Pues, si un guiputxi no va a hacer la huelga por Garmendia y Otaegui, yo tampoco la voy a hacer.

Honela alditxo batean biok mutututa gelditu ginen, eta denok afaldu genuen.

Afal ondoren berriro Xiri’ri esan nion:

- Oye, Lluís: me concedes audiencia? me gustaría charlar un rato contigo.
- Cuando quieras. Si te parece subo ahora el periódico y bajo enseguida.
- Bien, te espero.

Bereala jetxi zen eta elkarriketa hasi genuen_

- Mira, Xiri: se trata de lo de la huelga de hambre. Yo sé que te he dado una respuesta que no se debe dar. Pero es que yo me encuentro en un pequeño

conflicto familiar. Mi madre tiene 85 años y está en cama, mala; mis padres saben que estoy en Madrid pero no saben que estoy en la cárcel.

- Ay, chico! perdona, perdona lo que te he dicho! ¿Ves cómo muchas veces juzgamos a las personas sin saber en qué situación se encuentran?
- No, Lluís, no tengo nada que perdonarte, porque tú de esto no sabías nada ni tenías por qué saber. Yo quería, al mismo tiempo que darte esa pequeña explicación de mi conflicto familiar, consultarte sobre las consecuencias que una huelga de hambre suele tener en la cárcel. Es que lo único que mis padres saben es que el día 13 de septiembre yo voy a casa: y francamente me disgustaría que esto no ocurriese.
- Pues, mira: yo te puedo decir cómo han actuado hasta ahora en las huelgas de hambre. Si estás en huelga y te llegan los días de libertad, te cogen y te sacan fuera. Si estás incomunicado como castigo después de la huelga y te llegan los días de libertad, igualmente te sacan fuera. Ahora, lo que no te puedo asegurar es qué va a ocurrir en esta huelga.
- No, ya me vale con saber lo que hacen anteriormente.
- De todas formas, Jesús, todos somos mayorcitos y cada uno tiene la libertad suficiente para actuar como crea mejor, Si te parece mejor no hagas huelga, y no pasa nada.
- No, Lluís, te agradezco. Yo mismo tengo ganas de hacer algo por Garmendia y Otaegui, y no me perdonaría a mí mismo el que, teniendo la oportunidad que da la cárcel para ello, no hiciese nada por ellos.

Oye, imagínate que yo me abstengo de comer pero bajo al comedor y hago vida normal: pero no como. ¿Qué pasaría?

- Acaso, los funcionarios harían la vista gorda y no pasaría nada. Pero acaso te preguntarían que a ver por qué no comes. Entonces qué les responderías?
- Que estoy en huelga de hambre.
- Ah! pues, entonces ya has caído en la indisciplina.
- ¿Porque he dicho que estoy en huelga de hambre?
- Claro! ¿No ves que declararse en huelga de hambre ya es un acto de rebelión?
- Ah! ya, ya! Ahora ya sé lo que tengo q. hacer.

Neretzat Xiri'rekin izan nuen elkarizketa hura oso ona ta mesedegarria izan zen. Banekian Xiri gizon handia zela, baian hartan nere begiz ikusi nuen benetan bihtz handikoa eta lagun jatorra zela.

Ordutik, zetorrena zetorrela greba hori egiteko pres nengoen. Agirre Perikoren bitartez Trintxerpera bidali nien berria; Eulali ta Xanti abuztuaren azken aldera neregana ez joateko; baita Tolosa'ra ere idatzi nien esanaz egun horietan ez joateko; nahikoa zutela ni irteten nintzenerako joatea.

Egun haietan, ordea, lege aldetik gauzak bihurritu egin ziren: denak ainbeste aitatzen zuten indultoaren orde, ley especial de antiterrorismo aprobatu zuen gobernuak.

Lege hori irakurri genuen eta Xirik esan zigun_

- ¿Ya os habéis dado cuenta del alcance de esta ley incluso para nuestro caso? El declararse en huelga a favor de los condenados supone un delito que lleva consigo una pena de 6 meses a 6 años.
- ¿De verdad?

Buruak makurtu genituen. Berehala berak esan zigun:

- Yo creo que podíamos emplear la fórmula que decía antes uno de vosotros. La acción importante no es la nuestra en este caso, sino la de los presos

políticos de las prisiones y penales; nosotros nos unimos simbólicamente a ellos. Entonces podríamos, si os parece, hacer la huelga pero no decir nada.

133. - Y si nos preguntan los funcionarios qué decimos?

- Ah, pues conviene que nos pongamos todos de acuerdo en la respuesta.
- Decimos que no tenemos apetito.
- Bien, de acuerdo.

Etarrak gurekin konforme zeuden Tanke ta Egia. Koldo etzegon oso konforme: harek gose greba behar den bezala agertzea nahi zuen; baina gerora besteen erara jarri zen. Egun haiek oso politak izan ziren guretzat: oso alai geunden eta elkartuak.

Behin baino gehiagotan Xiri'ri esan genion:

- Oye, Xiri, nos tendrás que preparar para hacer esa acción, ¿no?
- Sí, hombre: pero basta una hora para ello.

Hala arratsalde batean gure gelan bildu ginen: Ramos, Santi, Paco Herrero, Xiri, ni eta etarrak Tanke, Egia ta Koldo. Oso batzar alaia ta gogoangarria.

Asi zen Xiri:

- Ante todo os tengo que decir que no tengáis ningún miedo al ayuno que vamos a hacer. Una buena dieta le viene muy bien al cuerpo y no le hace ningún daño. Alguna vez le tenemos que dar descanso a todo nuestro sistema digestivo, que muchos no le dan descanso nunca, Además una huelga corta no tiene ninguna complicación: y seguramente nosotros haremos una huelga corta.

- Oye, Xiri: a qué llamas tú huelga corta?

- Pues a la que dura una semana.

- ¿Una semana de huelga? Yo no pienso aguantar tanto”, esaten asi ginen batzuk.

- Oye, Xiri: esos días hay que mear normalmente, o hay que retener la orina, como calorías? Galdetu zion Manolok.

Denok parra puska bat egin genuen.

- No, no: la orina no es ninguna caloría, sino desechos, y hay que eliminar todo eso.

- Oye, Xiri – galdetu zion Koldok bere bilbotar doinu arekin- cuántas pajas se pueden echar en huelga de hambre?

- Denok parrez ta zarataka hasi ginen:

- Ya está bien tú, Koldo: qué cerdo eres!

- Ah! no, no! Ya te voy a responder. Cuantas menos pajas, mejor: porque todo eso sí es pérdida de energía; cuantas menos, mejor. Ahora, si no se puede aguantar se hace lo que se puede, y no pasa nada.

- Sigue, sigue con tus orientaciones.

- El primer día no se suele sentir nada especial. El organismo va consumiendo lo que tiene en el estómago e intestinos hasta que elimina todo residuo de comida. Es importante no andar ahí a medias: que si no como, que si pico algo. Cuando el organismo no recibe nada de fuera, ya sabe lo que tiene que tiene que hacer: abre un nuevo grifo para alimentarse: se deja en paz al aparato digestivo para que la naturaleza comience su labor de reparación de averías.

Entonces comienza a gastar las glucosas, los azúcares que tiene almacenados el organismo, y dura unas 24 horas. En ese período el organismo lo pasa muy bien: porque la glucosa pasa directamente a la sangre sin transformación.

Después que ha gastado las glucosas, el organismo empieza a consumir las grasas: eso que llamamos los michelines, y ese es un período largo; puede durar unos 22 días. En ese tiempo el organismo lo pasa peor: porque tiene que quemar las grasas y transformarlas en glucosas: y en ese tiempo se siente olor y sabor a acetona.

Entonces conviene beber agua: bastante agua siempre: varios vasos al día. Cada 3 ó 4 horas conviene beber algo: incluso a la noche: si se bebe mejor: porque si no a la mañana notas que se ha almacenado acetona en el estómago y produce malestar; pero con beber más agua se arregla todo.

Después de esos 22 días el organismo empieza a comerse los músculos; y eso es más grave: la recuperación de los músculos es más difícil. Pero ese no va a ser nuestro caso ahora.

- Y después ¿la recuperación?
- Después de pocos días, es fácil la recuperación. Veis que los políticos que vienen a Carabanchel a recuperarse, lo hacen comiendo normal.

Lo primero de todo, tomar glucosas: miel diluída en agua, o leche condensada diluída. Eso alimenta la sangre sin ningún esfuerzo. Cuando yo estuve los 42 días de huelga, las 6 primeras horas tomé así glucosa natural, no jugos de latas: y a las 6 horas era capaz de tomarme un buen plato de caldo.

Sí indicaros que conviene no fumar, porque eso mareaa. Y que tampoco hagáis demasiado ejercicio.

Y el acuerdo de no mencionar para nada la huelga de hambre, sino el ayuno voluntario, porque no tenemos apetito.

Honela oso alai bukatu genuen bilera polit hura. Erabaki genuen noiz hasi: ostegunean hasiko zen epaiketa eta guk ere ostegunean hasiko genuen gure baraua: ostegun iluntzean.

Baraua.-

Ostegun arratsaldean denok zerbait jan genuen: ez elkarrekin, inpresio txarra ez egitearren, baizik bakoitzak gure gelan, zerbait, meriendatxo.

Afalordua etorri zen eta jan gelara joan ginen: beti bezela afariarekin etorri ziren. Argimiro eta beste politiko gazte bat egun hartan sartu ziren espetxean. Ez da gauza ederra horrelako erabakia hartzen ari diren egunean lagun artean espetxean sartzea. Ez zuten noski egun ederra igaro Argimirok batez ere. Horiek ez zuten baraurik egin.

Afaltzekoan bada geurok galdezka asi ginen:

- Quién va a cenar?
- Yo no; yo no... Yo sí. Yo también... Dos.

Biei serbitu zien. Gero bigarren jakia ekarri zutenean berdin: biei bakarrik.

Hori ez zen harritzekoa: askotan gertatu ohi zen, edo meriendatu zutela ta ez zutela afaldu nahi.

Hurrengo goizean, gosariarekin toxi bat etorri zenean esan genion

- Oye, no, no nos sirvas café ni leche.
- ¿No queréis nada?
- No, no.

Berdin ogia ekartzen zuenari.

Bazkal ordua etorri zen eta jan-gelan, serbitzaria etorri zenean, galdera berdina egin genduen:

- Quién va a comer? quién?

Hori bai harritzekoa zela: denok bazkaltzen bai genuen. Serbitzaria harritu zen bi lagunek bakarrik bazkaltzeaz: eta noski ohartu ere ohartu zen gure artean zerbait

bagenuela. Baiñan inor ez zen ausartzen gu zer genbiltzen galdetzera.

Gaua etorri zenean berdin: afaltzekoan.

Patata pure oso usai onekoa jarri zuten. Xirik ala zion:

- A ver, vamos a hacer ejercicios visuales y de olfato de esta comida.

Vamos a ver si somos capaces de distinguir cuántas clases de alimentos tiene mezclados este puré: se ve muy bien la patata, también la zanahoria... A ver ahora el olfato: a ver qué olores distinguimos. Huele mucho a patata. A ver si ahora soy capaz de distinguir otro olor.

¿No queréis vosotros hacer la prueba?

- Quita de ahí el plato! Cuidau que eres cabrito, eh?

Zelataria ongi konturaturik zegoen zer gertatzen zitzaigun. Baina D. Octavio zen eta nahiko azkarra zen, eta ez zigun ezer esan.

Larunbatean, ordea, D. Miguel izan behar zuen zelatari buru, ta bagenekien harekin zerbait pasa behar zitzaigula.

Bazkal orduan, Ramos'i esan zion Direktorearen erantzuna zeukala ta bere gelatik igarotzeko.

Hara joan zenean, gero Manolok berak esan zigunez, enkargu hori eman eta hasi omen zen:

- Qué? no comen Uds.? o qué les ocurre?

- Pues, mire, D. Miguel: que el estar aquí encerrado le quita a uno el apetito.

138. - Pero no le apetece nada? podíamos compartir los dos mi comida.

- No, gracias: es que no tengo apetito.

- Bueno, bueno, hasta luego.

Oraintxe lasaitua izango duk gure gizon hori, pentsatu genuen; baina ez zen lasaitu.

Afal ondoren ni gelara ninjoan eta D. Victorrek esaten dit:

- Ah mire, le iba a llamar ahora, para que vaya al Jefe de Servicios. Voy a llamarles también a sus compañeros.

Ni joan nintzen nagusiarengana:

- ¿Me llamaba D. Miguel?

- Sí, sí, pase y siéntese. Si Ud. gusta de esta cena frugal que estoy haciendo...

- No, gracias, D. Miguel, que le aproveche.

- Cuándo le toca a Ud. marcharse: ya pronto será, no?

- El día 13 de setiembre.

Orduan sartu ziren bestek ere: Santi ta Paco Herrero. Xiri'ri ez zion deitu, bada ezpada ere.

Miguelito telefonotik ari zen une hartan. Neri galdetu zidaten:

- ¿Qué pasa?

- Ah! sentaos; enseguida veremos.

Berehala hasi zen:

- Bueno, qué les pasa a Uds. que no comen?

- No, nada. Un ayuno es bueno para la salud. No tenemos apetito.

- Si no está buena la comida, díganmelo, y yo les pongo a Uds. otra comida.

139.- No, Dn. Miguel, no nos hace falta.

- Pero hay que ser más valientes: díganlo Uds. claramente.

- No, Ud. no se preocupe. Esto es un asunto nuestro, y Ud. no tiene por qué ocuparse de ello.

Une horretan berriro urrutizkiñetik deitu zioten:

- Sí, dígame... Ah, sí; a sus órdenes.

Lo siento, esan zigun, pero tengo que dejarles que me llama el Sr. Director.

- Muy bien. Hasta luego.
Pozik alde egin genuen handik.

Igandea etorri zen. Amarretan Elizara joan nintzen nahiko lanekin goieneko pisuraino mailak igo ezinik.

Meza ondoren ohean etzanda nengoen, beste nere lagunak bezala.

Halako batean, ustekabea D. Manuel etorri zitzaigun gelara. Bat-batean ohetik jeiki nintzen, eta bazterrari heldu beharra izan nion. Berehala ohartu nintzen

Xirik zer esan zigun:

“No hagáis movimientos bruscos; porque la sangre no os llega rápidamente a la cabeza cuando estás tumbado y te incorporas. Te puedes caer al suelo mareado, inconsciente. Es una lipotimia”.

D. Manuelek esan zigun:

De parte del Director que si Uds. tienen ese ayuno voluntario o lo q. se hayan propuesto, y si no piensan comer, pueden quedarse sin bajar al comedor.

Gu begira jarri gintzaizkion, baina asko sinistu gabe. Guk galdetu genion:

- O sea que nos podemos quedar?
- Si Uds. lo quieren, sí.
- Y si nos quedamos ¿qué va a pasar?
- No va a pasar nada.
- Entonces nos acogemos a su palabra, Gracias D. Manuel.

Hala, igande eguerdian ni ez nintzen jan gelara jetxi.

Nere buruari hiru egun osoko apustua bezela egin nion eta halaxe izan zen.

Xirik greba aurretik ahalegin batzuk egin zituen ni barau hortatik libratzeko:

“Yo creo que Zubi no debería ayunar porque estás muy delgado de la paliza que te dio tu indisposición. Ya hiciste tú allí la huelga de hambre.

También vosotros los políticos que estáis en el Hospital, tened cuidado:

Tú Koldo, si tienes que ir la semana próxima a la Clínica, ya puedes tener cuidado.

Y tú, Eguía, si te van a operar el martes debes ir en condiciones a la operación.

Y tu Tanke ten cuidado con la descalcificación de esa pierna.

Sobre todo Félix y Zubi, si vais a sumaros a la huelga que sea para poco tiempo.

Vosotros Manolo y Santi estáis fuertes y Paco también”.

Lehenengo eguna ongi igaro nuen: batere goserik gabe. Nik uste nuen gosea ta gosea izango nuela eta batere ez. Patioan gehitxo edo ibilli nintzen batera ta batera.

Ostiral arratsalderako halako gusto zatarra edo usai fuertea nabaritzen hasi nintzen. Bereala ohartu nintzen hori azetona nuela. Batez ere txis egitekoan, ixuriak ikaragarritzko usaia zuen.

Ura edateko gogo gutxi: beharrean edaten nuen.

Larunbata egun txarra izan nuen: gorputz aldarte txarra. Ez jateko gogorik; baizik eta janik ere ezin ikusi. Larunbata gehiena ohean igaro nuen.

Xiric esaten ziden:

“Es que ayer anduviste demasiado, ¿sabes? Y el mover estos dos remos (bi iztarrak) gasta muchas energías”.

Larunbat gauean telebista ikustera ez nintzen joan, baizik ohean.

Igandea egun argigoa nuen: gorputz aldarte hobea. Batere jateko gogorik ez. Baina ahula, argala aurkitzen nuen neure burua.

Arratsalde erdian edo ezti pixka bat uretan urturik hartzen hasi nintzen; eta gogoz hartzen nuen. Bazirudien gorputzak esker onez hartzen zuela. Horrela ezti urtua eta esne-gozoa uretan nahastua hartuz astelen eguerdirarte egon nintzen.

Eta orduan derrigorrean zerbait jaten hasi nintzen. Baina ongi. Ez zen hortan inongo arazorik izan.

Manolo'k igande goizean ekin zion ezti ta gainerakoei.

Xiri'k harritu gintuen: bera ere ahul-samarra ikusten genuen. Harek ere astelenean utzi zion. Hala zion berak:

“Esta vez me ha cogido el cuerpo flojo y no hubiera resistido de aquella manera”.

Pako Herrero'k ere igande arratsaldean utzi zion grebari. Hurrengo egunean libre irten behar zuen, eta guk geurok behartu genuen uztera.

Santi izan zen gogorren eutsi ziona: astelen arratsaldean ere oraindik pizkor zegoen benetan, indarrez eta alai. Orduan harek ere grebari utzi zion taldeak utzi zionez.

Horixe izan zen gure gose grebaren ekintzatxoa. Egitekoan lehenago euki nituen kezka haiek ez nituen izan: alaiki baizik eta paketsu.

Aste hartan entzuten genuen beste espetxeetan gose grebari jarraitzen ziotela. Camacho Marcelino bera ere greban zegoela...

Dena dela, ostegun hartan Xirik esan zigun:

“No me gusta lo que voy a hacer, porque lo voy a hacer sin contar con el grupo. Pero vosotros sabéis que yo tengo una significación, por ahí, por mis huelgas de hambre. Si ahora no la hago con los demás presos, con razón podrían decir: Xirinacs cuando protagoniza él una huelga de hambre es capaz de estarse 42 días, pero cuando la protagonizan otros, no se suma a ellos. Y no me gustaría que pudieran con razón decir eso de mí. Por eso, hoy comienzo yo una huelga indefinida.

Eta hala hasi zuen, irailak 4, bere baraua: zelatari ta horiei ezer esan gabe.

Berehala konturatu ziren Xiri ez zijoala jan-gelara eta kezkatu ere bai. Hiru egun zeramazkieneko sendagille bat –médico de guardia- gelara joan omen zitzaion.

- Sabéis quién ha estado a visitarme? El jefe de servicios y el médico de guardia.
- Y qué ha pasado? Le has dicho algo al médico?
- Pues sí. Es que como es nuevo, no me traía cuenta explicarle toda mi historia. Y he preferido responder algo a sus preguntas. Le he dicho que me encuentro muy bien y que no se preocupe: que no necesito nada.

Hurrengo egunean Ospitaleko sendagile nagusia joan zitzaion. Hau aspalditik ezaguna zuen, eta atean sartzekoan sendagileak galdetu omen zion:

- ¿Me deja Ud. tomarle el pulso?.
- No.
- Pero hombre, ya sabe Ud. que tengo una responsabilidad sobre los enfermos de este Hospital.

Xirinacs isilik. Sendagillea bitartean bere kezka ta erantzupena adieraziz.

- Al final me ocurrió lo de siempre. Tanto hablarme de su responsabilidad, me ha aburrido y le he tenido que decir: “Si Ud. ha estudiado un poco de deontología médica, tiene que saber que no tiene más responsabilidad que la que el enfermo le quiera dar. Así es q. puede marcharse”.

- Y te has atrevido a decirle eso?

- Ah, claro! Es que los médicos se creen los propietarios de los enfermos.

Nere agurra espetxeari.-

Larunbata bazetorren eta gertuketak ere asi behar nituen.

Ostiralean, hilak 12, lagunarteko agurra egin behar genuen, merienda koxkor batekin.

Ramos'entzat ez zen oso egun alaia: ongi izatekotan, ostiral hartan irten behar zuen harek. Baina han gelditu behar izan zuen.

Argimiro bi egunez aurretik edo, irten zen.

Apaiz gutxi gelditxen ginen: Ramos, Santi, Xiri ohean eta ni. Etarrei ere deitu genien: Tanke, Koldo, Egia eta beste donostiar bat: Gerardo Suárez. Hau probintzialean zegoen eta gaixo bere burua aurkitu eta Ospitalera eraman zuten. Mutil gaztea, LAIA'ko mutila. Salegi gaztearen hiletatik Santa Maria'ko elizetik irtetzean harrapatu omen zuten.

“Salía yo de Sta. María y me echan el guante los polis, pero me escurrí de sus manos. Bajé las escaleras, y les digo a la gente que estaba allí: “Por favor abridme paso y cubridme.” Me abrieron paso y me dijeron: “¿Con que abridme paso y cubridme, eh? Ven, pájaro, ven!” Y me agarraron allí. Todos eran secretas”.

Arratsalde hartan zain eta zain bagaude, ta Egia ez datorkigula: harekin beste norbait etortzekoa zen. Baina gure solairura jaistekoan ez zien zelatariek utzi:

- Oiga, que mañana se va Jesús, y teníamos una pequeña despedida.
- No se puede. Antes ya ha ido otro. A no ser que le pida permiso al jefe de servicios.
- Y dónde está el jefe de servicios?
- No, en este momento no está.

Azkenean beintzat Egia gabe meriendatu genduen, eta pena nuen.

Xirinacs'ei esan genion:

- Te invitamos a merendar.
- Ah! gracias, gracias! Hacedos cuenta de que ya estoy merendando con vosotros. Iluntze hartan nere dirua ere eman zidaten. Eta poltsetan nere arropa ta trasteak sartzen ari nintzen.

Aurretik Felix'ek esan zidan:

- Aizu, Jexux: nere karta bat bestaldera eramango duzu?
- Bai, Felix: hik preparatu. Nik neronek pasaportetik ez daukat, baina nik, hori bestaldera eramateko bideak egingo ditut.

Gero, egun hartan bertan abokatua etorri zitzaizela eta lan hori zuzendu zutela esan zidan.

Larunbat goiza etorri zen. 8k.hamar gutxitan edo leihotik begiratu nuen eta inor ez zen agiri nere zain. Lasai gelditu nintzen.

Geroxeago, zortzietan edo berriro begiratu nuen eta une hartantxe berebil bat gelditzen. Begira banago, eta nun ikusten ditudan bi gizon jeisten: begiratu ongi eta ohartzen naiz: Uy! ori Joantxo duk, eta beste hori Periko!”

- Oye, Manolo, que ya ha comenzado a venir mi gente.
- Quién te ha venido?
- Dos compañeros curas.

Jeiki zen bera ere.

Geroago gure Xantiren antzeko berebil berdea: gelditu zuen eta Eulali ta besteren batzuk.

Orduan bai lasaitu ta poztu nintzen.

Monjatzoren bat ere ikusten nuen: “Asunción” kolejioko lekaimea.
 Yo solo esperaba a mi hermana, mi cuñado y a un compañero, Ramón (Aramburu), nuestro taxista. Pero lo que no creía era que me viniese a esperar toda una tropa.
 Besarkada handi batekin lagun bakoitza agurtu nuen. Eta nere bihotzaren puska bat han barruan gelditzen zitzaitelarik, hiru hilabete han barruan egon ondoren, libre nintzen. Larunbata, iraillak 13.
 Oraindik beste bi kontrol igaro beharra neuzkan:

Bat funtzionarioena: kanpoko etxekoa bat.

Hango zelatariak esan zidan:

- Ud. es Zubillaga?
- Sí señor, Zubillaga.
- Tiene Ud. algún primo o familiar de la ETA?
- Que yo sepa no.
- Es que acaba de decir la radio que han detenido a un Zubillaga de la ETA.

Halaxen gertatu zen: gure lengusu Tomasen seme Joxe egun horietan harrapatu zuten.

Geroxeago beste kontrola: polizia irteeran.

- Ya trae Ud. el papel de...?

Ez dakit ze paper eskatzen zidan. Baina zelatariak barrendik deitu zion:

- Eh! Sí, sí: ya está todo en regla.
- Entonces, adelante.

Orduan, han zain zegoen taldea inguratu zitzaidan eta denei besarkada handi ta musu alaia eman nien. Negar malkoak batzuek begietan zeuzkaten. Ni lasai ta alai nengoen.

Joantxok esan zidan: - Aizak, orko klinika hortara joan ta Arantxari telefonotik dei iezaio; zain egongo duk eta. – Bai pozik.

Talde bikaina: Eulali ta Xantirekin: Ramón, Joantxo ta Periko; Manzi, Roberto, Xavier Etxeberria, Arturo ta Ezama, Patxi Salaberria ta bere emaztea; bi lekaime: M^a Jesús ta beste bat. Eta nere espetxeko lagunak izanak: Camacho ta

148. Javier Iturgaitz. Nere ustez, horiek denak.

Klinika horretara bagoaz, eta Xantik eta beste batzuek deitzen didate:

- Jexux, or barrutik batzuek kasu egin nahi ditek.

Begiratu nuen eta Xiri'ren gelako leioan han zeuden hirurak: Santi, Manolo ta Xiri eskuarekin agurka.

Hala gaudela, polizi bat deadarka hasi zitzaigun metralleta eskuetan duela:

- ¿Quieren marcharse de ahí?

Ilusi eta entzun nionerako ahaztu zitzaizkidan neri hango agurrak. Isil-isilik “Clínica Psiquiátrica Dr. Esquerdo” horretara joan, handik Arantxari poz pozik deitu, ta atzekaldetik berriro atera.

Gero Xantik eta Manzik ziotenez, polizia oso goxoa ez zitzaiera joan, zioten. Baina nolabait harengandik ere libratu ziren eta Carabanchel herrira joan ginen zerbait gosaltzera. Gure lagun Madrildarrak han agurtu eta etxeruntz umore ederrez.

Oroitzen nintzen Manolok eta beste Madrildarrak nola esaten zidaten:

- Oye, Zubi, ¿por qué no te quedas unos días por Vallecas, por Madrid?
- No me quedo yo en Madrid ni loco. Ya he estado bastante tiempo aquí.

Eta parre egiten zidaten.

Orain beharretan esango zuten horixe bera.

Burgosen bazkaldu ta iluntzerako etxera. Etxean, zain eta zain aita eta ama xaharrak. Besarkada haundi bana: eta amak egiten zituen galderei nolabait erantzunez.

Baina gau hartan bai apaiz talde jator hori eta Trintxerpeko batzuek Tolosara etortzeko asmoa zutela eta: aitaren aurrean espetxeko konturik esan gabe ezin egongo ginela bada eta, neronek aitari nere berri ematea erabaki genuen.

Aitari gelara deitu eta:

- Aita, ni nun egon naizen ezeren arrastorik bai al duzu?
- Ez. Madrilen egon zerala, baino besterik ez.
- Ba, Madrilgo Ospital batean, kartzelan euki naute.
- Kartzelan? Zer ba?

Orduan labur samar gertatua agertu nion aitari.

- Jexux, ta or Eulali ta Xanti batera ta bestera ibilli direnean, hortaz zuregana joango ziren?
- Bai, aita: Xanti ta Eulali, ta Felix ta Joakina ta Maria.
Hobe iruditu zitzaigun zuei ezer ez esatea.
- Bai, nahiago det ez jakin izatea; bestela kezketan hor egongo nintzen-da.
- Baina amari esaterik ez da komeniko?

- Ez, ez amari ezin litzaioke esan.

Hala aitak oso pakez hartu zuen gertaera: gertatu ondoren, neroni ikusten ninduela behintzat eta gaitzerdi.

Gabeen bildu ginen lehen esan ditudan apaizak, Etxeberria ez besteak; baita ere Trintxerpetik Josetxo, Ramon, Baleriano eta Jexux Mari etorri ziren. Eta afalduaz naiko kontua esan genuen.

Pixka bat nerekin izaturik zeuden, zazpi kilo galdu nituelako, baina pixkabana osatuko nituen.

Gero aste hura osoa Tolosan igaro, amari Madrilgo nere lanen berri eman, gure Eliz barrutien alde egiten ari ginen lanen berri.

Ez dakit amak oso sinistu ote zituen guk orduan asmatu genituen gezur haiek, baina nun egon nintzen jakin gabe joan da mundu honetatik.

Hurrengo larunbaterako Trintxerpera: han sarrerako Meza ederra zeukaten gerturik: mutikoak abesten zutelarik. Larunbat eta igande artako Meza denetan neronek hitzegin nion herriari, nere agurra ta esker ona agertuz.

Hauxe izan da, nere bihotzean zantzu sakon bat utzi didan Erromesaldia. Jauna era askotan gure bizitzan agertzen zaigu, ta neretzat ibillaldi hau Jaunaren agerpen bat izan da.

Eraskina

Nere herrira eta parrokiara itzuli ondorengo egunetan ez nintzen oso lasai egon: iruditzen zitzaidan poliziak nere atzetik zebiltzala; baina inpresio hori ere denborarekin ahaztutzen joango zen.

Behin deitu ninduen neure Gotzainak, nere auziaren azken berriak emateko: Madril-dik ez zuten pakean uzten: epaitu egin nahi ninduten. Gerora ohartu nintzen

zer gertatzen zen: lehenengo egunetan Donostiako komisarioak esan zidanez, bi ministeritzek salatzen ninduten: Minist. de la Gobernación, multa jarritz, eta Minst. de la Justicia, epaitu nahirik. Multarena zen nik bete nuena, kartzelan hiru hilabete eginez; baina oraindik zintzilik zegoen epaiketa: eta horretarako Gotzainari eskatzen zioten baimena. D. Jazinto gotzainak esan zidan: “Zu epaitzeko baimena eskatu didate Madril-tik baina nik ukatu egin diet baimena. Beraz, zaude lasai”. Eta hala izan zen.

Horrek gogora ekarri zidan Carabanchel-eko Ospitalean nengoenean, hango nere lagunekin hizketan, Manolo epaitzeko baimena Kardenalak eman omen zuela-ta, nik esaten nion Manolo-ri:

-¿Tarancón ha dado autorización para que te juzguen? En eso no tengo yo ninguna duda: mi obispo Argaya nunca dará autorización para que me juzguen de esta actuación mía.

- ¿Estás seguro?

- Sí que lo estoy.

Halako inbidia pixka batekin begiratzen zidaten. Ba, orain egiaztatu zen nik orduan uste nuena eta adierazi niena.

Jexux Zubillaga
(errubrika)